



Vanesa Gimbert
futbolari ohiaren
atzera begirakoa

Mikel Santiago
fraideari
elkarriketa



Jose Maria
Arizmendiari gainera
musikala
aurkeztu du Gontzal
Mendibilek: 'Hazia' / 40

Hilabete pasa itxita
dagoen Urbiako Fonda
"behin betiko" utzi
dutela iragarri dute
maizterrek / 4



Maialen Biteri
Aretxabaletako
udaletxean lanean
dabil, 'Pauso berriak'
ekimenari esker / 20

Arrasateko Udalak
ekitaldi berezia
egingo du herriko
kirolarien lana
aitortzeko / 15



ASPACE ETA BITORIANATXO JAIETARAKO GERTU DAUDE

Gaur hasiko dira Bergarako Pentekoste jaiak, eta 50. urteurrena ospatzen ari den Aspace elkarte eta Bitorianatxoren jaitsiera izango dira hasiera ekitaldiko protagonistak / 24

Aspaceko Eneko Ziarsolo –zutik–, Agustín Toledo eta Aritz Bikuña, Bitorianatxorekin batera. XABIER URZELAI

ORAIN, DENA EDUKITZEA ERRAZAGOA DA:

ATERA ARGAZKI BAT IRAGARKI HONI,
ZATOK GURE OPTIKARA ETA LORTU

50€

ARTEKO DESKONTUA ZURE
MÓ BETAURREKO GRADUATUETAN*

*2022/06/30era arte, 500€ edo gehiagoko erosketetan aplikatuko da. Hortik behar bezala, 20€-ko deskontua egingo da.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multipopticas.com

MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen



Bi pertsona berriketan, Kulturete ostean jarri dituzten bankuetan parez pare eserita daudela. H.L.

Bakardadeari modu bateratuan erantzuteko sarea ehunduko dute

Gipuzkoako Foru Aldunditik sortutako Adinberri fundazioak 'Hariak' estrategia jarri du martxan, 55 urtetik gorako pertsonen bakardade-arriskuak prebenitzeko asmoz. Gaurko, 16:00etatik 20:00etara, bailara mailako hitzordua antolatu dute Arrasaten

Hasier Larrea ARRASATE

2020ko otsailean hasi zen Adinberri fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Etorkizuna eraikiz* egitasmoaren baitan, bakardadea pairatzeko arrisku egoera bizi dutenei begirako *Hariak* estrategia lantzen. Pandemia iritsi zen segituan, "esku artean" zuten "proiektuaren tamainaren garrantziaz jabetzeko" balio izan zuena, Rakel Sansebastian fundazioko zuzendariaren hitzetan.

Adinekoen egoitzetan, etxebizitzetan eta espazio publikoetan eredu berritzaileak sustatzea baita *Haziak*-en misioa, arlo soziosanitariotik eta ekonomikotik eraginez. Horretarako, Gipuzkoako 400 pertsona ingururen ekarpenak jaso dituzte, 77 udalekin, 98 gizarte erakunde eta tokiko eragilerekin, Osakidetza sei zentzorekin eta ho-

gei enpresa eta berrikuntza-zentzorekin kolaboratu ostean. "Elkarlan handi horren fruitua abenduan jaso genuen, ibilbide-orri bat prestatuta. Gomendio, konpromiso eta ekintza ugari ageri dira bertan, eta, herritarrei begira, modu errazagoan ulertzeko dekalogo bat argitaratu dugu", azaldu du Sansebastianek.

Atxikimenduaren bila

Izan ere, belaunaldi askotariko herritarren babesa edo atxikimendua lortu gura du estrategia integral horrek, eskualdez eskualde gauzatuko dutena. Le-

GIPUZKOAN, POPULAZIOAREN %46 IZANGO DA 55 URTETIK GORAKOA 2031RAKO

gazpin egin zuten lehenengo aurkezpena, maiatzaren 24an, eta Arrasaten egingo dute bigarrena, gaur bertan. Hala, *Hariak*-i modu batean edo bestean lagundu dioten "Debagoieneko udal guztiei, eragileei eta adituei egindako lana itzultzea" ere izango da ekitaldiaren helburua.

Kalea, ikurrez josita

Estrategia aurkezteko modua ohikoa ez izatea erabaki dute, eta iruditegi oso bat eraiki dute transmititu nahi dituzten balioak erakusteko. Kulturete atzealdeko berdegunean, Otalora Lizeantziaduna kalekoan, hamar banku jarri dituzte, bakoitza dekalogoko esaldi banarekin. Bankuen kokapenari garrantzia eman diote: "Denak toki berera begira jartzen baditugu, elkarriketa aukera murriztagoa izaten da, eta justu kontrakoa

da bilatzen duguna". Ildo bereetik, hilograma teknika erabilita, eskultura baten eraikuntzan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Eskultura hori ekitaldiz ekitaldi lekualdatuko dute hamar eskualdetan datozen asteetan zehar, eta ideia da 2023an egingeko asmoa duten kongresuan hariz osatutako objektuaren azken emaitza azaleratzea.

Informazio-puntu bat jarriko dute Kultureteko sarreratik gertu, jendeak proiektuaren nondik norako guztiak jakin ditzan, eta, orotara, bost tailer

BELAUNALDIEN ARTEKO HARREMANAK ERAIKI NAHI DITU 'HARIAK' ESTRATEGIAK

"Bizi-itxaropena igo egin da, eta bizi-kalitatea igoarazi behar dugu"

RAKEL SANSEBASTIAN ADINBERRI FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Enpresa munduan garatu du ibilbide profesionala Rakel Sansebastianek (Ordizia, 1975); bereziki, Gureak taldean 18 urtez jardunda. Hiru lagunekin batera darama Adinberriren gidaritzan. **Desgaitasuna edota dependentzia duten pertsonekin aritu izanak laguntzen al dizu proiektu honi heltzeko garaian?** Erabat. Gureak taldearen misioa halako pertsonen aukerak ematea da. Bertan ikasitakoak lagundu dit beharrak identifikatzen.

Adinberriren *Hariak* egitasmoak hauskortasun egoerak prebenitzea du erronketako bat. Nola egin daiteke hori?



IKASBIL.EUS

Gaia gizarteratzen, belaunaldien arteko elkarriketak sustatuta. Hauskortasun egoerak muga fisiko edo kognitiboan ondorio dira, baina baita harreman sozial faltarekin lotuta dagoen bakardade sentimenduaren ondorio ere. Kontua da oraindik kosta egiten zaiola 55 urtetik gorako pertsona bati bakarrik sentitzen dela onartzea: 2018ko ikerketa baten arabera, %5ek bakarrik onartzen zuten

zuzenean galdetuz gero, baina, zeharka galdetuta, eskala batzuen bidez, %29a igotzen zen ehuneko hori. Estigma agerikoa da, beraz, eta bakardadeari buruz gehiago sentsibilizatu beharra dago.

Baduzue estigma horri zuzenean heltzen dion saioren bat?

Aurkezpen ekitalditarako prestatu ditugun antzezlanak.

Elkarriketa horiek simulatzen ditugu bertan.

Bizi-itxaropena nabarmen hazi da gurean. Ze irakurketa egiten duzu?

Biztanleria geroz eta zaharragoa izatea positiboa da. Hemengo bizi-itxaropena mundu mailako handienetakoa da, Singapur, Japonia eta Suitzakoarekin batera. Zoriontzeko moduko datuak dira. Lortu behar da zahartzaroaren gaia lantzen dugun eragileon artean estrategia integrala eraikitzea, adinekoak dependentzia-egoerara ahalik eta beranduen iristeko. Horretan gabilta.

desberdin egingo dituzte; betiere, "pertsonen arteko loturak eta harremanak sendotzeko".

Aurkezpen ofiziala, 19:00etan

Dinamika horiei guztiei 16:00etan helduko diete. 18:30ean, harpa-jotzaile batek bakardadearekin lotutako piezak interpretatuko ditu toki berean, eta 19:00etan, kanpoaldetik Kultureteko areto nagusira joango dira partaideak, bertan egingo dute-eta aurkezpen ekitaldi ofiziala. Maria Ubarretxena alkateak eta Maite Peñak, Aldundiko Gizarte Politiketako diputatuak, hitza hartu ostean, antzezlan bat taularatuko dute, gaiari bete-betean helduko dion elkarriketa formatuan. Saiok, orotara, ordubete inguru iraungo du, eta amaieran otordua egingo dute. Sansebastianek bailara osora zabaltu du gonbidapena.

Udalgintzatik eragindako ereduak aztertu dituzte

Oñatiko, Aretxabaletako, Bergarako eta Arrasateko EH Bilduko ordezkariak Iruñean izan dira asteburuan, koalizio abertzaleak antolatutako Konferentzia Munizipalistan parte hartzen. Praktikan jarritako esperientziak izan dituzte mintzagai; tartean, Onaro

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Lehen aldiz antolatu du EH Bilduk Konferentzia Munizipalista, gobernantza eredu herrigilea, trantsizio energetikoa, gobernantza feministaren ereduak, etxebizitza eta beste hainbat gai ikuspegi munizipalistatik lantzeko. Iruñeko Baluartean eta Refenan batu dira euskal ezker subiranistako ehunka alkate, zinegotzi, ordezkari eta tokiko kargu publiko. Nazioarteko politikariak ere gonbidatu dituzte: Irlandako Sinn Fein, Eskoziako SNP, Kopenhageko aliantza gorri-berdea, Kataluniako ERC eta Galiziako SNP alderdikoak, besteak beste. Denen ekarpenak jaso dituzte ekitaldian, "garai nahasiotan tokikotik eta hurbi-letik eman daitezkeen konponbideak" jorrazteko.

Hangoak eta hemengoak

Aho zapore gozoarekin itzuli dira, oro har, jardunaldian parte hartu duten debagoiendarrak. Arrasateko EH Bilduko zinegotzi Maider Morrasede antolakuntza zoriondu, eta honako hau aipatu du: "Euskal Herriko herri ugartan ari gara politika munizipalista herritarrak aurrrera eramaten, gure ereduak pertsonak baititu protagonista, interes partikularren gainetik interes kolektiboak jarritz erdignean, hori baita euskal ereduak". Bide horretan jarraitzeko eta alderdikideen arteko harremanak estutzeko "esperientzia aberasgarria" izan dela gehitu du.

Ion Albizu Aretxabaletako zinegotziak zapatu goizean entzundako bi hitzaldi nabarmendu ditu, gobernantzari buruzkoa bata eta etxebizitzari buruzkoa bestea: "Suitzako Lausana hiriko eta Bartzelonako udalen eta herritarren arteko demokrazia-ereduen azalpenak asko gustatu zaizkit, baita Vienako Udalak etxebizitzaren gaiari aurre egiteko duen modua ere; egin



Debagoieneko lau herritako EH Bilduko ordezkariak, zapatuan Refenan. EH BILDU

"POSITIBOKI" GARATU DIREN ESPERIENTZIAK PARTEKATU DITUZTE, NORBERE HERRIAN KONTUAN HARTZEKO

kontu Austriako hiriburuko etxebizitzaren %80 direla alokairuak; gehienak, publikoak. Antzeko ereduak lantzen ari da arlo honetan Irlandan Sinn Fein ere".

EH Bilduk gobernatzaren duen udal eta adibideak ere izan dituzte mintzagai. Ainhua Lete Bergarako Udaleko alkateordeak Hernani Burujabe proiektua eta Usurbilgo Zaintza Ekosistema ekarri ditu gogora: "Hernaniko Udalean plan estrategiko bat jarri dute martxan, elikadura burujabetza, tokiko garapena, lana eta klima aldaketarekin lotutako erronkak izendatuz eta bakoitzarekin herriar, eragile eta udal ordezkariak osatutako lan batzordeak osatuz; Usurbilen zaintzaren inguruan garatu duten prozesua eta diagnostikoa azaldu digute; kontuan hartzeko iruditzen zaigu, gure herrian ere landu nahi baitugu gaia".

Bailaran landu diren proiektuei ere eskaini diete lekua, Bergara, Antzuola eta Elgetako udalek lagundutako Geuretik Sortua kultura bekaren eta Oñatiko Onaro telekomunikazio zerbitzuaren xehetasunak erakutsi baitituzte paneletan. Izaro Elorza Oñatiko alkatearen esanetan, Onaro "erreferentziatzeko" proiektutzat jotzen da, "balio duelako funtzionamendu hori herri bakoitzak bere erara moldatzeko".

"Komunitate aktiboa"

Era berean, mintzagai izan dituzten erronka konplexuei udalgintzatik erantzutea "gakoa" dela adierazi du, nahiz eta "eremu gehiagotatik eragiteko beharra" egon. Ildo beretik mintzatu da Ainhua Lete, erabakiak ardurakomunitarioa duten herriar, eragile eta enprekin hartzea komeni dela iritzita: "Izan ere, lehengo ereduak jada ez dute balio etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko, eta lidergo berriak eraiki behar ditugu denon artean, komunitate osoa ahaldundu dadin". Elorzak honela borobildu du: "Komunitatea herriar zaurgarrien oskola bezala irudikatzen dugu".

Sariak irabazteko aukera, altxorak bisitatzearekin bat

Arantzazuko parketxean eta Arrikruz koban aisialdiko jardueraz gozatzeko ekintzak egingo dituzte asteburuan

H.L. OÑATI

Lurpea elkartearen ekimenez, Koben XII. Eguna antolatu dute Euskal Herriko zortzi kobazulotan; tartean, Arrikruzten. Alde batetik, argazki lehiaketa bat egingo dute, zapatua eta domeka artean koba horietan argazkia ateratzen dutenen artean. Irudi bakarra *EasyPromos* plataformara igorri beharko dute partaideek, ekainaren 6ko eguna bukatu aurretik. Xehetasun gehiago, lurpea.eus-en. Bestetik, Urdazubiko Ikaraburua apartamentuetan asteburu-pasa egiteko eta zortzi kobak bisitatzeko bonua zozkatuko dute asteburuko bisitarien artean.

'Altzorraren bila' familian

Arantzazuko parketxeak, berriz, domekarako programatu du orientazio-jolasa, inguruko ibilbide irisgarrian pistak aurkitzean



Arrikruz kobako bisita gidatua. GOIENA

datzana. Saioa 11:00etan hasiko da, parketxean, eta 12:30ean amaitu. Izena ematea, pertsonako 3 euroren truke, derrigorrezkoa izango da arantzazu@gipuzkoanatura.eus-era idatzita edo 943 78 28 94ra deituta, plaza mugatuak baitaude.



TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

GAI ZERRENDIA

EGUNA: EKAINAREN 22a, EGUAZTENA
ORDUA: 18:00etan lehen delaidian eta 18:30ean bigarrenan.
LEKUA: Santa Ana antzokia

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2021/2022 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2021eko Urteko Kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2021 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2022 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2022/2023 ikasturteko aurrera, inbertsioei aurre egiteko bazkideen ekarpenari buruzko proposamena egitea eta, badagokio, onartzea.
7. 2022/2023 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea.
8. Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

OHARRA:

Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela Urteko Kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren delaidiaren epean zehar aztertzea ahal izan ditzaten.

Oñatin, 2022ko ekainaren 3an

"Penaz uzten dugu Urbiako Fonda"

Behin betiko agurra baieztatuta, 1999a ezkerro mendiko ostatu ezaguna kudeatu duen lantaldeak Goienara igorri du despedida-oharra. "Atzera begiratzean, esker oneko hitzak besterik ez dugu", adierazi dute. Maizter berri bila hasi da Partzuergoa

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI
Arduradunek ezustean eman zuten berria duela hilabete pasatxo, "abisu berrira arte" Fonda itxita egongo zela. Ordutik hona, kezka eta ostatuaren etorkizunarekiko jakin-mina izan da paraje hura bisitatu eta Fondan geldialdia egiteko ohitura zutenen artean –jende asko eta asko-. Astean iritsi da Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoaren baieztapena, "egungo Urbiako Fondaren arduradunek, behin betiko, Fondaren kudeaketa uztea erabaki dutela".

Fondakoen oharra

Partzuergoak berria emanda, Goienarekin jarri da harremanetan bi hamarkada luzeotan Urbiako Fonda kudeatu duen lantaldea, eta agurreko oharra helarazi dio. "1999ko urtarrilean etorri ginen Fondara, ilusio handiarekin eta esperientzia txikiarekin. Hasierako garai haiek ez ziren errazak izan, baina, etxekoan laguntza ikaragarriari esker, aurrera egin genuen"; horrela dio oharren hasierak.

"Lehen urte hartako Fondak eta gaur egun dagoenak ez daukate antz handirik", jarraitzen du, "aldaketak eta hobekuntzak egin dira, beti zerbitzu hobea eskaintzeko asmotan".

Esker on hitzak dituzte Oñatiko Altube eta Altxelai sendietako kideek: "Denbora honetan guztian hamaika komeria bizi izan ditugu, liburu bat idazteko lain, baina atzera begiratzean esker oneko hitzak besterik ez ditugu. Esker ona zor diogu proiektu hau martxan jarri eta mantentzen lagundu digun jende guztiari, familiari, tarte luzez edo aldi baterako gurekin batera lan egin duten guztiei, eta, nola ez, Fondaren erabil-tzaile izan diren bezero guztiei".

Ostatuaren orain arteko maizterrek dioten bezala, "Euskal

Herri osotik" etorri izan da jendea Urbiara: "Asko eta asko, etorriaren etorriaz, ohiko bisitari bihurtu dira, aurpegi eza-gunak, lagunak. Izan ere, Aizkorriko mendizerrak inguruko herri eta bailarak bereizten baditu ere, era berean, leku horietako jendea batzen du, mendizale gisa bertaratzen de-nean, eta hori da, azken finean, Fonda, elkartzeko leku bat, atsedean hartu eta indarrak berreskuratzeko".

Eta honela amaitzen da Fondakoen oharra: "Zerbitzu hori emateko ahaleginean saiatu gara urte hauetan, eta, orain, gure zikloari amaiera ematea erabaki dugu, eta beste batzuei lekukoa ematea. Ez dugu inor engainatu nahi, ez da lan erreza, lan soila baino gehiago dela ere esango genuke, baina baditu bere alderdi onak. Penaz uzten dugu Urbiako Fonda, ez izan

LANTALDEAREN OHARRAREN AZKEN BERBAK: "URBIAN IKUSIKO DUGU GERO ERE ELKAR"



Urbiako Fonda, pertsiana jaitsita, eta itxieraren berri ematen duen kartela. ARITZ ALTUBE

dudarik, baina ziur gara etorriko dela jarraipena emango dion jende gogotsua. Beste barik, eskerrik asko denoi, Urbian ikusiko dugu gero ere elkar".

Maizter berri bila

Egungo maizterren agurra iragarrita, berriak bilatzeari ekin dio Urbiako Fondaren –besteak beste– ardura duen Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak. Eguaztenean plazaratutako oharrean jakinarazi zuten ostatuaren kudeaketarekin jarraitzeko interesa luketenek Segurako Udalera jo behar dutela, telefonoz edo posta elektronikoz: 943-80 10 06 eta udala@segura.eus.

Urbiako Fonda 1925eko abuztuaren 30ean zabaldu zuten. Ia mende bateko historian zenbait jabe eta maizter izan ditu. Partzuergoarena sorrerarekin, 1997an berreskuratu zuten jabetza –saldu egin baitzuten 36ko gerraren ostean–. Orain arteko maizterrak 1999an sartu ziren Fondan, 50 urterako emakida bi urte lehenagotik martxan zela; emakidaren erdia falta da oraindik. Besteren batek eman beharko dio jarraipena. Hala bedi.

Aspaceren erakusketa

Mende erdia ospatzen ari da Gipuzkoako Aspace, eta, ospakizunen barruan, 50 urte *inklusioa* berraztertzen erakusketa egongo da ikusgai Eskoriatzako Huhezin.

Elkartearen historia, mugarrak eta bilakaera jasotzen dituen erakusketa, Arrasaten eta Bergaran ere egona, Gipuzkoako hainbat herritara eramango dute gero.



IMANOL BELOKI

Grupo ULMA, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2022ko ekainaren 10a
Ordua: 08:30an lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena
Lekua: Arantzazulab - Oñati auzoa

GAI ZERRENDIA

1. AURREKO AKTA ONARTZELARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDEI EZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2021EKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2022KO GESTIO PLANA ETA KOSTU MANKOMUNITATUA DUTEN JARDUERA ETA ZERBITZUEN AURREKONTUA BERRESTEA
3. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
5. POGU III-KO II. TITULUKO 1.3.2 ETA 1.3.3 ATALAK ETA III. TITULUKO 2.3.5.2 ATALA, "ORDAINKETAKO ELKARTASUN FUNTSA" RI BURUZKOA, ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA
6. POGU III-KO III. TITULUKO 2.2. ATALA ALDATZEA, KOOPERATIBA BAZKIDEEN ESTATUTU SOZIALITAKO 64. ARTIKULUAN HAMABIGARRREN ATALA SARTZEA, ETA 65.BAT ARTIKULUA ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA, IRABILGARRI DAUDEN SOBERAKIN GARRI POSITIBOAK BANATZEARI, BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTSA APLIKATZEARI ETA DERRIGORREZKO ERRESERBA FUNTSERA EGOZTZEKO MUGA MARGUTZEARI DAGOKIENEZ
7. HONAKO HAUEK ALDATZEA ONARTZEAREN BERRESPENA: POGU III-KO I. TITULUKO 4.4 ATALA, II. TITULUKO 2.1. ATALA ETA III. TITULUKO 1. ETA 2. ATALAK, KOOPERATIBEN ARTEKO FINANTZA TRESNEI ETA DEPARTAMENTU ZENTRALEI ESLEITUTAKO BAZKIDEEN EGOERA ANTOLATZEARI BURUZKOA, ETA, HALA BADAGOKIO, KOOPERATIBA BAZKIDEEN ESTATUTU SOZIALAK ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIA ALDATZEAREN ETA EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBA BAZKIDEEN GAIUR EGUN DITUZTEN PREMIETARA EGOKITZEAREN, BAI ETA KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN TESTU BATEGUNA ONARTZEAREN BERRESPENA ERE KOOPERATIBAREN ESTATUTU SOZIALAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAIUR EGUN DITUZTEN PREMIETARA EGOKITZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
8. ULMA TALDE MAILAN APLIKAZIO OROKORREKO ETA ARAUDI IZAIERAKO GAI EI BURUZ KOOPERATIBA BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIEK HARTUTAKO ERABAKIAK BERRESTEA
 - 9.1 2021ean ULMA Fundazioak IPDK-etik egindako erabilerrari buruzko deskargua
 - 9.2 ULMA Fundazioak, 2022an, IPDKrekin eratzeko fondoarentzat aurrekositutako aplikazioa azaltzea
 - 9.3 Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
 - 9.4 Kapitalaren ordainketa
10. KONTSEILU ERREKTOREKO ERABAKI HONEN BERRESPENA: PROIEKTU TRAKTOREIN FONDOK KUDEATZEKO EZENDAPENA
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE BERRI BAT EZENDATZEA ETA KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN KOPURUA ZEHHAZTEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAIINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDETZEA
17. GALDE-ESKAK

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaien Kooperatibaren egintza eta inbentarioa elkaraguri dimitela zerbitzu konplexu eta onak aplikatzeko proposamena Batzar Nagusiaren deialdian zuzenean erabaki behar dela eta ez da inbentarioa onartu behar.

Hala ere, bazkide guztiak jakinarazten zaien Kooperatibaren egintza eta inbentarioa dimitela elkaraguri Kooperatibaren eta Bazkide Kooperatibaren Enbentarioa, Kooperatibaren Berraztertzearen eta POGU IIIan proposatutako aldatutako testu onen eta aldatutako lehen justifikazio txostenak, eta horiek denak denak onartu eta berraztertzea eskatzen da.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2022ko maiatzaren 27a

Komunikazioaren erraiak gazteen eskura jarrita

Irratia eta telebista egiteko modu tradizionaletatik hasi, eta sare sozial, podcast eta 'streaming'-etara; komunikatzeko modu guztiak hartuko ditu baitan Goienak eta Mondragon Unibertsitateak antolatutako Komunikazio Campusaren aurtengo edizioak

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Komunikatzeko erabiltzen diren euskarri eta moldeen atzean dauden trikimailuak bertatik bertara eta ezagutzeko aukera eskainiko du, beste urte batez, Mondragon Unibertsitatearen eta Goiena Komunikazio Taldearen Komunikazio Campusak.

Idoia Lahidalga Campuseko koordinatzaileak azaldu du parte hartzera animatzen direnek "aukera polita" izango dutela komunikazioaren munduan murgiltzeko: "Profesionalen moduan lan egiten ikasiko dugu, unibertsitatean ditugun baliabideekin, baina baita bakoitzak bere etxean dituen aukerekin jarduten ere; adibidez, eskuko telefonoarekin".

Horretarako, komunikazioaren alorreko hiru profesional izango dira master-eskolak ematen: Ainhoa Vitoria, komunikatzaile eta Gazteako irratia esataria; Alex Padilla, sare sozialetan aditu eta Tabakalera eta Gazteako komunikazio teknikaria; eta Goiena Komunikazio Taldeko Xabier Urzelai, *mojo* edo eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan aditua.

Indarra, podcastean

Alor ugari jorratuko dira Komunikazio Campusean: sare sozialak, bideogintza, argazkilaritza, kazetaritza... Nolanahi ere, aurtengo, Lahidalgak aurreratu duenez, indar berezia jarriko da irratia egitean: "Iazko balorazioak aztertuta, apustua argia da: komunikazioaren joerak podcastera gerturatu direla ikusita, esparru hori jorratzea pentsatu dugu".

Iazko edizioan parte hartu zuten Naroa Morenok eta Itxaso Plazak ere irratigintzan izandako esperientzia azpimarratu dute. "Irratia da gehien gustatu zitzaidana; agian, sekula ez dugulako ikusten zer dagoen horren



Komunikazio Campuseko parte-hartzaileak, kontrol gelan. GOIENA

AURTENGO EDIZIOARI AMAIERA EMATEKO, ZUZENENKO PODCAST BAT EGINGO DUTE PARTE-HARTZAILEEK

atzean", azaldu du Plazak. "Irratiaren eta telebistaren erraiak ikusi genituen; bitxikeriaz beteta daude", gehitu du Morenok.

Hala, Campusari amaiera emateko proiektu moduan, zuzeneko podcast bat egin beharko

dute parte-hartzaileek. Horixe izango da edizio honen berrikuntza nagusia.

Izen-ematea, zabalik

Campusean izena emateko epea hilaren 18an bukatuko da. DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako gazteei zuzendutako formakuntza da, eta bi txanda egongo dira aukeran: uztailaren 4etik 8ra eta 11tik 15era. Txanda bakoitzean hamabost gazte elkartuko dira, gehienez, eta, ordutegiari dagokionez, 09:00etatik 13:30era izango dira saioak.



NAROA MORENO LEHENENGO EDIZIOKO PARTE-HARTZAILEA

"Oso esperientzia polita izan zen. Orain, lagunekin egiten ditudan bideoetan erabiltzen ditut ikasitako trikimailuak"



ITXASO PLAZA LEHENENGO EDIZIOKO PARTE-HARTZAILEA

"Irratia da gehien gustatu zitzaidana. Horrelako aukerak besoak zabalik hartu behar dira, zalantzarik gabe"

EKINTZAIETZA GARAIA



Garaia parkeko eraikin bat. GOIENA

Hamabost urte bete ditu aurtengo Garaia Parke Tecnologikoa

Espazioa sortzen hasiak egon arren, 2007ko ekainean ireki zituen ateak Parke Tecnologikoko eraikin nagusiak

U.I.L. DEBAGOIENA

Arrasaten kokatutako parkea eraikitze lanak 2000. urtean hasi ziren. Sustatzaileen arabera, zenbait lagunek "argi" ikusi zuten polo berritzaile edo parke teknologiko bat "beharrezkoa" zela Debagoienera, eskualde moduan etorkizuneko erronkei erantzuteko.

Egun, hamabost urte geroago, parkea eratze asmoa abiatu zutenek esandakoa ekarri dute gogora Garaia osatzen duten kideek: "Pertsona haiek arrazoi zuten. Haien zatia ametsa zena errealtate bihurtu da: ekosistema ekintzaile, teknologiko eta berritzaile aparta dugu gure parean".

Gizarteari eragiteko ekosistema

Orain arteko ibilbideari errepa-soa eginda, parkeak duen "balio erantsia" azpimarratu dute Garaia Parke Tecnologikoa osatzen duten kideak: batik bat, "kalitatezko" eta "kualifikaziozko" lanpostuei dagokienez. "Teknologia eta prozesu berritzaileetan oinarritzen diren enpresaz osatuta dago gure sarea. Gainera, enpresa horiek etorkizun luzeko esparruetan garatuko diren sektoreetan dihardute: ingeniariak, IKT, energia, medikuntza... Halaber, Garaia ekosisteman dauden enpresak iraunkorrak eta inguruarekiko jasangarriagoak dira", diote.

Halako sare batek Arrasate eta Debagoiena "erakargarriago" egiten dituela azaldu dute: "Ekosistema baliagarri batek baila-

rara gerturatzen ditu beste enpresa batzuk ere, eta, langileak atzerrira joan beharrean, hemen bertan laneratzen dira". Horri jarraituz, adierazi dute bertan bizitzeak eta kontsumitzeak "zeharkako beste onura batzuk" ere badituela; bai gizartearentzat eta baita enpresentzat eta gizarte eragileentzat ere.

Hala, parke teknologikoa "errealtatean" eragiten duela diote sustatzaileek: "Unibertsitatea eta ikastetxeak-hezkuntza-, ikerketa eta garapen unitateak-ikerketa-ezagutza-, enpresak eta eragile publikoak... Denak espazio bakarrean daude. Askotariko proiektuak elkarlanean aurrera ateratzea errazten du Garaia parkeak".

Beste hamabosten bila

Sektore eta tamaina ugarietako enpresak eta askotariko nortasun eta ibilbideak izan dituzten pertsonak igaro dira Garaia azken urteetan. Azaldu dutenez, horrek ekosistema elikatu du, eta horrela jarraitu nahi dute: "Espero dugu hurrengo hamabost urteak orain artekoak bezain aberatsak izatea eta Debagoienari ekarpen onuragarriak eskaintzen jarraitzea, guztion konpromiso eta laguntzarekin".

ETORKIZUNEN ERONKEI HELTZEN BEHARREZKOTZAT JO ZUTEN GARAIAKO PARKEA ERAIKITZEA

Eroski Taldeak 59 milioi euroko irabaziaz izan ditu 2021eko ekitaldian

Domekan egindako batzar nagusian, iazko etekinen inguruko datuak eman zituen Eroski Taldeak, eta bertan jakinarazi zen Agustin Markaidek taldeko lehendakari kargua utziko duela; Rosa Carabel izango dela kooperatibaren lehendakari berria



Agustin Markaide eta Rosa Carabel elkarri eskua ematen. EROSKI

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA Eroskik batzar nagusia egin zuen domeka arratsaldean Barakaldon. 500 ordezkari batu ziren bertan –250 bazkide langile eta 250 bazkide kontsumitzaile–, eta 2021eko ekitaldiak emandakoak izan zituzten berbagai. Zehazki, urteko banakako kontuak eta kontu kontsolidatuak onartu zituzten, eta baita joan den urteko ekitaldiaren kudeaketa txostena ere.

Alderdi ekonomikoari erreparatuta, iazko urtean 59 milioi euroko irabaziaz izan zituen kooperatibak; azken hamalau urteetako zenbateko oparoena, Markaide lehendakariaren esanetan. Taldeak adostu duenez, 55,9 milioi euro erreserbetara bideratuko dituzte eta beste 2,8 milioiak Mendeko Finantza Ekarpenen interesak ordaintzeko erabiliko dira.

Bestetik, iaz, 600 bazkide kooperatibista berri batu ziren taldera, eta azaldu dute bost urte barru 2.000 bazkide berri izatera iritea dela erronka. Momentu honetan, 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago dira.

Lehendakari aldaketa taldean

Domekakoa Agustin Markaide lehendakariaren azken batzarra izan zen kargu horrekin. 11 urteko ibilbidearen ostean –eta kooperatiban 30 urte baino gehiago egin ondoren–, Kontseilu Errektoreak jakinarazi zuen

600 BAZKIDE BERRI BATU ZIREN EROSKIRA IAZ; BOST URTEAN BESTE 2.000 IZATEKO ERRONKA DUTE

Rosa Carabel izango dela Eroskiko lehen exekutiboa uztailaren 1etik aurrera.

Markaidek eskerrak emateko baliatu zuen bilkura, eta taldea osatzen duten kideek egindako lanari eman zion balioa: "Gizarteak azken urteetan izan dituen aldaketei erantzun egokia emateko ahalegina egin dute Eroskiko profesionalek". Era berean, nabarmendu zuen horrek baduela "isla" Eroskiren bilakaera ekonomiko eta finantzarioan, eta azken ekitaldiko emaitza "oso ona" izan dela.

Aurrera begira, "ilusioz jarduteko" dei egin zien Markaidek bazkideei, eta Carabelen "profesionaltasuna" azpimarratu zuen, "begirada berriek" erronkei aurre egiteko "aukerak" eskaintzen dituztela esanez. Carabelek "eskertuta" dagoela adierazi zuen, eta "proiektuaren

oinarriak indartzeko eta bidean aurrera egiteko asmoz" ekin diola aro berriari.

Akordioa, "bertakoaren alde"

Carabelek berak jakinarazi zien bazkideei "nekazaritzako elikagaien industriari bultzada emateko" hitzarmena berrituko dutela Jaurlearitzarekin: "Gizartea eta kontsumitzailearen joerak bizkor aldatzen ari dira (...) Jendarteak apustu argia egiten du elikadura osasungarri eta iraunkorren alde; bertako pro-

duktuen alde. Horrek bete-betean egiten du bat gure kooperatibaren konpromisoarekin".

Hitzarmenaren arabera, Eroskik eta tokiko ekoizleek duten jarduera komertziala "hiru aldiz" haziko da. "Hobetu egin nahi dugu hurbileko produktuak kontsumitzeko esperientzia". Calabelek azaldutakoaren arabera, ia 300 dira Eroskirekin lan egiten duten tokiko ekoizleak eta 2.400 produktorekin baino gehiagorekin hornitzen dute kooperatiba.

ULMA Inversiones, S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • D E I A L D I A

Eguna: 2022ko ekainaren 10a
Ordua: 11.00etan lehen deialdia eta 11.30ean bigarrena
Lekoa: Arantzazulab - Oñati auzoa

GAI ZERREDA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2021EKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA, ETA, KASUAN KASU, 2022KO GESTIO PLANA ETA AURREKONTUA BERRESTEA
3. 2021EKO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA
4. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
5. KAPITALERA EGINDAKO EKARPENAK ORDAINTZEKO PROPOSAMENA
6. 2021EKO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
7. KOOPERATIBAREN ESTATUTU SOZIALAK EUSKADIKO KOOPERATIBEN ABENDUAREN 20KO 11/2019 LEGERA ETA KOOPERATIBAK GAUR EGUN DITUEN PREMIETARA EGOKITZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO
8. HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BISTE HILBURI BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
9. KOOPERATIBA BAZKIDE BAKOITZAREN GUTXIENEN EKARPEN EKONOMIKOA
10. MENPEKO FINANTZA EKARPENEN JAULKIPENA
11. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE BERRI BAT IZENDATZEA ETA KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEN KOPURUA ZEHATZEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
15. AHALMENAK ESKUORDETZEA
16. GALDE-ESKEAK

OIHARRAK: Bazkideei gogoraratu zaien Kooperatibaren egoitza eta inbentarioa ekoizgarri dituztela berdeko kontak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kargu ikusizkoak egindako gero-zerrenda. Batzar Nagusiaren Azalduaren erpin orain aurrera aldi irati ditzate.

Hilabete, bazkide gertuak jakinarazten zaien Kooperatibaren egoitza eta inbentarioa dituztela ekoizgarri. Estatutuaren proposatutako aldatutako testu orain aldatutako berriak justifikazio txostena, eta berriak denak aldi oraineko edo bideratutako eda deialdia.

KONTSEILU ERREKTOREA
 Oñati, 2022ko maiatzaren 27a

Arantzazuko frantziskotar berriak, herrira begira

Arantzazura fraide berriak etorri dira; horietako bat da Juan Miguel Dorronsoro –egun Arantzazuko frantziskotarren nagusia– eta beste bat uztailan batutako Mikel Santiago. –48 urterekin egin da fraide, oso bestelako bizimodu bat atzean utzita–

Uxue Igarza Loiola OÑATI

21 fraide daude gaur egun Arantzazun; garai batean baino gutxiago. Halere, irailetik hona lau batu dira elkartera; horietako bat da Juan Miguel Dorronsoro –frantziskotarren nagusi kargua hartu duena– eta beste bat Mikel Santiago soraluzetarra.

Fraide gazteena da Santiago –48 urte ditu soraluzetarrak–, eta 2016an profesio txikia egin ostean, duela bi aste bihurtu da "bizitza osorako frantziskotar". Orain arte oso bestelako bizimodua egin du. Lanbidez abokatua izan da eta politika munduan ibilitakoa ere bai; EH Bildu alderdiaren zinegotzia izan da haren herrian.

Puntua aldizkarian egindako elkarrizketan azaldu du "desberdina" dela fraide bizimodua, baina ez dela "apurketa bat" izan aurretik izandako bizitzarekiko: "Guztia da norberaren bizitzako ibilbidearen zati bat. Ezberdina da, anaia artean nagoelako, kristau bizitzaren testigantza bat eman nahian. Baina aurretik egindako gauzak baliagarriak izan dira honaino heltzeko, pertsona moduan naizena izateko".

Bestelako egoera Arantzazun

Aurreko astean, Antonio Larrea sakristaua zendu zen, eta otsailan hil zen Pello Zabala fraide ezaguna; baita Iñaki Beristain ere, 2017an. Dorronsoro Arantzazuko frantziskotarren nagusiak azaldu duenez, "aurpegi ezagunak" ziren: "Santutegiak kanpora begira zuen proiektzioa ziren. Elkartea ahulago geratu da, zalantzarik gabe".

Nolanahi ere, aurreratu bezala, lau izan dira ikasturte berrian batu diren fraideak. "Ni ere berria naiz, baina Mikel Santiagoren etorrera pozez hartu dugu (...) Garrantzitsua da eguneroko martxarako eta gure bizimoduaren arrazoia berri eta berpizteko", dio Dorronsorok.



Mikel Santiago fraidea, Arantzazun. TXOMIN MADINA

SANTIAGO MAIATZEAN EGIN DA FRAIDE; AURRETIK, ABOKATUA ETA EH BILDUKO ZINEGOTZIA IZAN DA

Iritsi berriak izanik, Arantzazuko egunerokotasunera moldatzen ari dira Dorronsoro eta Santiago. "Gure bizimodua oso xumea da; baina ez erraza. Gauza asko egin behar dira: komenturen kudeaketa, gaixoak eta ezinduak zaindu, elizkizunak prestatu, topagunean lan egin... Eta, gutxiago izanda, lehen bosten artean egiten zena bik egin behar dugu orain", azaldu du santutegiko nagusiak. "Gauza asko ezingo ditugu egin; sinplifikatu egin beharko da Arantzazuko eskaintza", gehitu du.

Ildo beretik jardun du Santiagok ere: "Momentuz, eskaintzari eusteko moduan gaude, baina ikusten da murrizte sasoian

gaudela eta egoerara moldatu beharko dugula: anaiarte txikiagoak egin, beste era bateko eskaintza egin...".

Herrira gerturatzeko asmoa

Frantziskotarren eskaintza moldatzeari lotuta, Dorronsorok azaldu du fraideek badutela asmo berri bat ere: "Gure artean beste modu batera antolatu, eta gutako norbait beti kanpoan edo eliza-inguruetan egotea nahi dugu. Beste modu batera esanda, herritarrengana gerturatzeko ahalegina egin nahi dugu. Lehen naturalagoa zen Arantzazura etorri eta fraideak ikustea, baina orain, barrura begirako beharrek ez digute uzten".

Herritarrengana hurbiltzeko saiakera horretan, Santiagok ere helarazi du mezu bat: "Federik ez izan arren, jendeari esango nioke ahalegindu dadila bizitzaren zentzu sakona bilatzen, zabalik egoten. Behin bizi gara eta merezi du sustraitik bizitzea, bakoitzak bere barruari jarraituz". Garai berrietara egokitze lanetan dago Eliza Santiagoren iritziz, eta Arantzazun ere herrian arreta jartzeko ahaleginetan ari dira.



Mikel Santiagori egindako elkarrizketa irakurtzeko, eskaneatu QR kode hau.



Hormak Apurtzen taldeko zenbait kide, irteera batean. H.A.

Sozializatzeko modu berriak, kuadrillako planez harago

Lagun eta plan berriak egiteko aukera debagoiendar guztien eskura jarri du Hormak Apurtzen taldeak

U. I. L. DEBAGOIENA

Pandemiak eten egin zuen 2019ko urrian sortutako Hormak Apurtzen Taldearen dinamika, baina "berriz ekiteko gogoz" itzuli dira aurten; jarduteko modu berriekin, gainera.

Lagun berriak egin eta askotariko plan proposamenetara batzeko aukera eskaintzen du ekimenak. "Sozializatzeko beste aukera bat", Sergio Serrano ki-dearen hitzetan. "Sozializatzea gizakiak duen oinarriko beharra da, eta betiko kuadrilla, lagun eta planetatik harago, beste jarduteko modu batzuk ere badaudela erakutsi nahi dugu", dio Serranok.

40tik 70 ingurura

Sorrerako urtean, 40 bat pertsona elkartu ziren taldean, baina orain, 70 inguru dira ekimenaren bueltan dabilzan debagoiendarrak. "Ikusezinak diren horma horiek apurtu, eta ezezagunekin harremanak sustatzea da asmoa. Nerabazaroko udalekueetan gertatzen den egoeraren antza du: lagun berriak eta ekintza berriak egiten ditugu", adierazi du Sergio Serranok.

Taldeari dagokionez, askotariko profilak dituzten pertsonak daudela azaldu du Serranok: "Euskaldunok itxiak izatearen fama dugu, baina hori pertsona bakoitzaren araberakoa da. Nolanahi ere, ekimen hau aukera polita da bakoitzak izan ditzakeen sozializazio arazoak gainditzeko; eta jakina, baita gozatzeko eta ondo pasatzeko ere".

Proposatu eta antolatu

Aurreratu bezala, egiteko moduetan aldaketak egin ditu taldeak pandemiaren ostean. "Urteko egutegia egiten genuen lehen, eta hilean plan bat proposatzen zen. Funtzionamendua oso motela zen, eta aldatzea erabaki genuen. Gasteizko *Amigos de Vitoria* ekimena hartu dugu oinarri", azaldu du Serranok. Webgune bat baliatuta, taldea osatzen duten kideek proposamenak zintzilikatzen dituzte iragarki taula digitalean: "Edozeinek proposatu dezake bere gustuko ekintza eta gainerakoak gonbidatu –dagoeneko taulan dauden planak oztopatu gabe–. Proposatzen duenaren ardura da interesa dutenenekin Whatsapp talde bat sortzea eta planaren zehaztasun guztiak bertan azaltzea".

Mendira joatea, kontzertuak ikustea, zinemara joatea eta pintxo-potea egitea izan daitezke planak. "Gauza sinpleak izan daitezke, edo apur bat landuagoak", dio Serranok.

Interesa duen orok har dezake parte dinamikan, *hormakapurtzen@hotmail.com* helbidera mezua bidalita. Hori bai, "elkar errespetatzea" da taldearen ezinbesteko baldintza.

HORMAK APURTZEN TALDEA JARDUTEKO MODU BERRIAREKIN ITZULI DA PANDEMIA IGARO OSTEAN



Martitzenean Donostian egindako elkarretaratzea. BEDELKAR

'Ticket Bai'-ren ezarpena salatu dute merkatariek

Debagoieneko eta Gipuzkoa osoko merkataritxikiek elkarretaratzea egin dute asteon, Foru Ogasunak ezarri nahi duen fakturazio sistema berriaren harira. Protestara batu dira, besteak beste, Arrasate, Bergara eta Oñatiko merkatarien elkarteko kideak ere

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Dendaratean Gipuzkoako Merkataritxikien Elkartearen Bilkurak deituta, martitzenean elkarretaratzea egin zuten dendari txikiek Foru Aldundiaren egoitzaren parean. *Ticket Bai, horrela ez* lelopean, merkatariek salatu zuten establezimendu txikiek ezin diotela "aurre egin" sistema berria ezartzeak dakarren "gastuari", eta epeen gaineko kezak ere plaza-ratu zituzten.

Sistema berria azaroan sartuko da indarrean gipuzkoarrentzat; Bizkaiko eta Arabako merkatariek, aldiz, beste bi urte izango dituzte oraindik aldaketa egiteko. Lierni Arregi Bergarako Bedelkar Merkatarien Elkarteko kideak azaldu du ez dela "bidezkoa"

lurraldeen arteko alde hori: "Aldundiak ez doaz batera, ez dituzte neurri berak jarri (...) Ez gauden sistemaren kontra; bai, ordea, indarrean jartzeko erabiltzen ari diren moduaren kontra".

Arrasateko Ibai-arte elkarteak ere ohar bidez azaldu du protestako mezu nagusia: "Administrazio publikoak arduraz jokatu behar du, eta egiten dituen eskakizunen mailan egon behar du. *Ticket Bai* ongi ezartzeko beharrezkoak zaizkigun denbora eta baliabideak jarri behar dizkigute".

Txikientzako, "gastu handia"

Arrazoi ekonomikoak dira merkatarien kezka iturri nagusia. Mobilizazioan azaldu zuten,

"ezinezkoa" iruditzen zaie sistema ezartzea "sektorean kalte handia sortu gabe. *Ticket Bai* ezartzeko zailtasuna ez da berdina enpresa handi, enpresa txiki edo merkataritxikientzat; beraz, *Ticket Bai* ezartzeko laguntzak eta egutegia sektoreka eta enpresen tamainaren arabera bereizi beharko lirateke", diote Ibai-arte merkatariek.

Oñatiko Txanda Merkataritxikien Elkartearen presidentea Bilma Sotok ere ildo beretik jardun du: "Dendari txikiok ahalia handia eskatzen digu aldaketak. Batzuek softwareak ere aldatu behar dituzte, eta ekipo berriak erosi". Izan ere, teknikoki sistema honek dakarrena da jardueraren ekonomikoak egiten dituzten pertsona

fisiko eta juridiko guztiek Aldundiak ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituen fakturazio-software bat erabili behar izatea.

Lierni Arregi bergararrak azaldu du sistemak "esfortzu handia" eskatzen diola hari: "Nire sistema ez dago eginda *Ticket Bai* ezartzeko. Makina berria beharko nuke eta 3.000 bat euro balio du".

Bestetik, Dendarte Elkarteak salatu du "hasierako kostuaz" gain, hileroko mantentze gastuak ere ekarriko dituela sistemak.

Gardentasuna aldarri

Horrez gain, beste bi mezu ere helarazi nahi izan dizkiote dendariak Gipuzkoako Foru Aldundiari: alde batetik, azpimarratu dute badaudela merkataritzaren alorrean "arautu beharko" beste jardueraren batzuk; adibidetzat jarri dituzte online salmenten fiskaliteta eta saltoki handien gaineko zergak. Ildo beretik joan da bigarren mezua ere: "Ez dugu ezer ezkutatzeko; saltoki txikiok gardentasun osoz egiten dugu lan *Ticket Bai*-ren beharrik gabe (...) Gainera, Aldundiak eskatzen duen urgentzia hau ez da inolaz ere beharrezkoa ikuspegi fiska-

letik; izan ere, saltoki txikiok salmenta-tiketa eskaini ohi dugu".

Formakuntza eta laguntzak

Orain arte, Aldundiak, udalek eta zenbait merkataritxikien elkarteek sistema erabiltzen ikasteko formakuntzak eskaini dituzte. Nolanahi ere, merkatariek azaldu dute "galduta" daudela. "Hitzaldi batzuk eman dizkigute, baina ez dakigu askorik. Gure aholkulariak ere nahiko galduta dabilta", onartu du Arregik.

Dirulaguntzei lotuta, "ziurgabetasuna" dagoela azaldu du Bedelkarreko kideak: "Ez gara ausartzen; izan ere, dirua aurrez jarri behar da, eta oraindik batzuei ez zaie laguntza iritsi".

Aldundiaren esanetan, sistema berriak zergadunen jardueraren ekonomikoaren diru-sarrerak eta betebeharrak "kontrolatzen" lagunduko du. Eta, momentuz, protestak protesta, ez dute al-daketatik iragarri asmoetan.

SALTOKI TXIKIETAN "GARDENTASUN OSOZ" JARDUTEN DUTELA ALDARRIKATU DUTE MERKATARIEK

Laboral Kutxak zibererasoa atzeman du, baita saihestu ere

Erasotzaileek ez dute lortu bezeroen kredentzial pertsonaletara edota txartelen zenbakietara sartzea

U. I. L. DEBAGOIENA

Martitzenean, Laboral Kutxako Segurtasun Taldeak zibergertakari bat baieztatu zuen; zehazki, posta zerbitzuan baimenik gabeko sarrera bat atzeman zuen. Kooperatibak azaldu duenez,

"segurtasun protokoloak" aktibatatu zituzten, eta sarrera hori "indargabetu" egin zuten. "Arazoa berehala konpondu da, eta, gainera, berriro ez gertatzeko neurriak ezarri dira (...) Bezeroen banku-eragiketen segurtasuna

bermatuta dago", zehaztu zuten egunean bertan.

Laboral Kutxak emandako azalpenen arabera, eraso egin dutenek ez dute informaziorik lortu kredentzial pertsonalen, txartelen zenbakien edota autentifikazioko beste elementuen gainean: "Korrespondentzia aruntoko zenbait dokumenturi eragin die soilik gertakariak". Halere, salaketa jarri duela jakinarazi du kooperatibak.

Bestetik, gertakaria aitzakia hartuta, hiru gogorarazpen he-



Laboral Kutxaren bulego bat. GOIENA

larazi dizkie erabiltzaileei: Laboral Kutxak ez dituela inoiz eskatzen online bankuan sartzeko datuak SMS edo beste edozein bitartekoren bidez; eragiketarik hasi ezean, banketxeak ez dituela inoiz erabilera baka-rreko kodeak eskatzen (edozein eragiketa sinatzeko SMS bidez bidalitako gakoa hartu behar da kontuan); eta, bukatzeko, norberaren ekimenez ez bada, datu pertsonalik inoiz ez emateko, ez telefonoz ezta beste edozein kanalen bidez ere.



Bigarren urtez jarraian, Oñatiko lantegiko biltokian egin zuen Lanak ohiko batzar orokorra. JON IRIZAR ARANGUREN

Hankak lurrean, sozialki urrats berriak egiten

Joan den egubakoitzean egin zuen Lana kooperatiba oñatiarrak ohiko batzar orokorra. Erabaki zehatzak bide-erantz hartuta doaz aurrera, barnera zein kanpora begira gizarteari ekarpenak egiteko konpromisoa berretsiz. Batzarra horren adibide

2022ko maiatzaren 27a gorritz borobilduta zuten egutegian Oñatiko Lana kooperatibako kideek: ohiko batzar orokorren eguna. Joan den urteko esperientzia aberasgarritik abiatuta, aurten ere "etxeko lasaitasunean" jarri zuen hitzordua Mirari Zilaurrenek, kooperatibako presidentek. Lantegiko biltegian bertan: "Gure eguneroko ingurunean".

Puntuari hasi ziren gai-zerrendako edukiak xehatzen. Ohiko legez, negozioa izan zuten ardatz. Baina ez ziren soilik zenbaki eta merkatuetara mugatu.

Hankak lurrean

"Oso urte gorabeheratsua izan zen 2021a, eta hala izaten ari da 2022a ere". Presidentearen hitzek agerian utzi zuten merkatuaren ezegonkortasunak ondorioak utzi dituela Lanaren jardunean. Hornidura eskasia eta prezioen gorakada tarteko, paradigma berria kudeatu

behar izan dute azken hilabeteetan: "Gure burukomin eta gerlatxoekin, baina bagoaz aurrera". 85 milioi euroko salmentekin, 2021a "ondo" amaitu zuten, eta hala doa urte berriko lehen seihilekoa ere. Hankak lurrean izanez eta erabaki zehatzak hartuz.

"Norberak kontrolatu ezin dituen faktore asko daude; egoera bera bigarren aldiz bizi duzunean, baina, beste perspektiba eta ezagutza batetik hartzen dira erabakiak". Eta bide horretan, aldeko dute merkatu eta zenbakiak jaso edo neurtu ezin duten faktore bat: bezeroen fideltasuna. "Eskerrak eman beharrean gara".

Urratsak egiten

Hitz egin zuten aktez, merkaturaz, estrategiez eta kudeaketa planaz; hitz egin zuten Oñatiko lantegiaz eta Txekiako adarraz; adostu eta onartu zituzten langileen esku zeuden erabakiak. Baina batzarraren egitura zu-

rrunetik harago, alor sozialeko gaiek piztu zuten ikusmina. Etxe barruan eta Santxolopetegiko mugetatik kanpo urratsak egiten ari diren seinale.

Arrasateko Emun kooperatibarekin lankidetzan, lau urterako Genero Berdintasun Programa jarri dute martxan. Besteak beste, kooperatibako produkzio postuetara emakumezkoak erakartzea dute helburu. Ez da, baina, azken hilabeteetan barrura begira egin duten ekarpen bakarra.

Langileen baldintza eta aukerak hobetzeko asmoz, hiru herrikuntza dira azpimarratzekoak: lantegiaren klimatizazioa, irisgarritasuna eta

BARNE ZEIN KANPO MAILAN, IRMOA DA ALOR SOZIALEAN PAUSOAK EMATEKO KONPROMISOA

Genero Berdintasun Programa

Arrasateko Emun kooperatibarekin elkarlanean, 2021eko eta 2022ko otsailaren artean berdintasun diagnostikoa egin zuen Lanak. Genero ikuspegitik egindako lehen ariketa parte-hartzailea izan zen, eta ondorioen irakurketatik ateratako lanketa esparruetan eragiten hasteko garaia hasi berri dute; *2022-2025 Berdintasun Programa* gisa izendatutako bide-errietan ezarritako helburuak eta ekintza plana egikaritzen hastekoa, alegia.

Lau erronka

Diagnostikoa "lehentasunezko" lau erronka identifikatu zituzten: emakumeen kontratazioak sustatzea, emakumeen osasuna eta segurtasuna erdiguinean izango duen prebentzio protokoloa diseinatzea, emakume langileak elkartzeko espazioak sortzea eta etengabeko formakuntza eta sentsibilizazio ekimenak egitea.

Laugarren erronkarekin hasi dira bidea urratzen. Hala, kolektibo guztiari eskaintako formakuntzarekin eta berdintasun batzordearen osararekin abiatu dute prozesua. Etengabeko formakuntza programa diseinatu dute; horren adibide, hilabete gutxian lau formakuntza saio jaso dituzte jada batzordekideek.

Emakumezkoak lantegian

Gainerako esparruei garrantzirik kendu gabe, emakumeak kontratatzea da begi artean duten erronka nagusia. "Uste dugu herritarrek ohiko zerrategi bat irudikatzen dutela Lanako lanaz gogoeta egitean; eskulana oinarri duela eta lan fisikoa dela, alegia. Kooperatibaren maskulinizazioa eraman gaitu uste okerrak, errealitatea guztiz bestelakoa baita". Izan ere, urteen joanak prozesua automatizazioa eraman du, eta postu konkreturen batean salbu, langileek ez dute egurra ukitzen. "Egurra lantzen duten makinaren kontrol lanean oinarritzen da gure jarduna; ondorioz, prestatutako jendea behar dugu, baina makinerian, ez egurrean".

Hala, kooperatibaren irudi zaharkitu hori eraldatu nahi da programa honetan, eta emakumeen kontratazioa sustatu; besteak beste, emakume ikasleek Lana ezagutzeko bisitak antolatuko dira.

produkzio makinaren hotsen erregularizazioa.

"Langileek hobeto lan egiteko, espazioen kudeaketa hobekuntzak egiten dihardugu", adierazi zuen Kepa Bastida zuzendariak. Hala, klimatizazio sistema berritzailea instalatu dute; hots, lantegi kanpoaldeko eta barnealdeko airea jaso, birziklatu eta tenperatura doitzen du sistemak. "Jendea gustura dago", Zilaurrenen esanetan. Baita lantegirako bidegorrian egin dituzten inbertsioekin ere. Irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Ulma, Onnera Group eta Oñatiko Udalararekin elkarlanean finantzatu dute proiektua. Eta hasi dira makinak sortzen duten hotsen erregularizazioan egiten ari diren inbertsioen fruituak ere jasotzen. "Zarata mapa egin dugu, eta langileei eta ingurunean sortzen dugun kutsadura akustikoari begira, hobekuntzak egiten ari gara", gogorarazi zien Bastidak langileei. Oñatin

eta Txekiar Errepublikan, barne eta kanpo mailan eragitea dute helburu.

Ez dira kasualitatea, beraz, Aita Mari gobernuz kanpoko erakundeari eta Mundukideri ematen dizkieten laguntzak; ezta bailaran eta Txekian babesten dituzten eskola, kirol talde, kultur elkarte eta ekitaldi zehatzak. Argi hitz egin zuen presidentek: "Kooperatiba gisa dugun arduratik, alor soziala etengabe lantzen ahalgintzen gara".

Bide horretan, hitzaldi berezi batekin amaitu zuten batzarra. Joseba Azkarate oñatiarrarekin elkarlanean dihardute 2019az geroztik: "Haren osasuna zaintzeko eta kirola egin ahal izateko, guk erosi genion lehen bizikleta egokitua". Antxintxika Triatloi Taldearen kirol egokituko taldea sortzeko hazia izan zen ekarpena. "Inspirazio iturri gisa", haren bi- zipenak ezagutzeko tartea izan zuten langileek.



ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

Gehiago nahi dugu

Pasa da maiatza eta horrekin batera txirrindulari-zaleontzat denboraldiko lehen itzuli handia: Italiako Giroa.

Beti ematen dute hiru asteko itzuliek zeresana: aurretik, bitartean eta ostean. Oraingoan, gurean, hiru *etapa* horietan nabarmen hitz egin dugu Budapesten hasi zen lehiaketaz, bertan genituen lau euskaldunen artean zeresana eman behar zutelako bik: Pello Bilbaok eta *landismo*-aren ikur nagusi den Mikel Landa Meanak.

Azken hau beti izan da, balego eta balitz munduak balioko balu, haren palmaresean itzuli handi batzuk izango zituenena... Baina, momentuz, orain arte bi aldiz podiuma zapaltzeaz konformatu beharko du.

Eta gizakiaren ezaugarri den nahi infinitu hori elikatu digu Murgiko txirrindulariak. Haren erara, baina eman dizkie zaleei disfrutatzeko momentuak. Hala ere, irteerako parte-hartzea ikusita puntu bat gehiago eskatzen zitzaion lehiari begira.

HURRENGO ITZULI HANDIARI ESKATZEN DIOGU EZ DADILA IZAN SIESTA EDERRAK EGITEKO AITZAKIA

Baina zaleak jakitun ziren askorik ere ezin zitzaiola eskatu –hiru asteko itzulia ezbehar larririk gabe amaitzea eta, ahal izango balitz, lehen hamarren edo bosten artean egotea–, baina etapak erre ahala ez zitzaion ohiko


Hor eskatzen zitzaion afizioa sofatik altzaraziko zuen akzioa egitea eta maglia arrosaren bila joatea: bizikletari azpiko heldulekutik heldu eta erasoak jotzea.

Baina, azkenean, bi txirrindulari izan ditu aurretik sailkapen nagusian. Hori bai, orain, berriz eskatzen zaio hurrengo itzuli handian sailkapen nagusiaren lehian egotea.

Bitartean, txirrindulari-zaleok hurrengo itzuli handiari eskatzen diogu ez dadila izan siesta ederrak egiteko aitzakia. Bai, ikusi ditugu sekulako paisaiak, Budapesten hasi zelako eta Italiako Veronako Arenan amaitu, eta, bitartean, joan ziren Etnara, Dolomitetara eta Alpeetara, baina kirol lehiari dagokionez... gehiago nahi dugu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Iturbide egoitzari esker mila

MARGA ETA BELEN ARANBURUZABALA
AMOZARRAIN
ARRASATE

Bizitzaren azken txanpan dagoen pertsona nagusi bat bere betiko habiatik atera eta bizileku berri batera eramateak zalantza eragiten du, bertigo pixka bat, eta sentimendu kontraesankorrak mugitzen ditu.

Gure familian zaila egin zitzaigun 85 urteko osaba maitea herriko nagusien egoitzan sartzeko erabakia hartzea, eta, zer esanik ez, proposamena osabari planteatzea. "Bertan ondo

zainduta egongo zara, etxean baino hobeto"; "Zure lagun batzuk han daude eta gustura dabilta; lagun artean egongo zara, entretenituta"; "Igogailua dagoenez, gurpildun aulkian kalera irteteko aukera izango duzu, paseatzera edo tabernara"; "Bisitak egin daitezke nahi ahala; beraz, jarraituko dugu egunero zurekin egoten eta zaintzen"...

Halako argudioekin adoretu ginen eta pausoa eman genuen. Hilabete gutxi batzuk eman ditu bertan osabak eta benetan esperientzia aberasgarria izan da harentzat eta baita gure familiarentzat ere.

Egoitzako langileek, daukaten lan karga handia izanik ere, tratu goxoa eta hurbilekoa eman digute, eta osaba bera eta familia osoa maitasunez artatuak sentitu gara.

Ederra izan da, osaba hiltzeaz zegoela, begiak itxi aurreko unea goxatzeko eta ahalik eta erosoan egoteko langileek agertutako adeitasuna eta eskaini diguten babesa.

Ez da etxean hil, baina etxean bezala hil dela sentitu dugu, goxo eta lasai.

Beraz, eskerrik beroena, bihotz-bihotzez, hau guztia posible egin duen Iturbide egoitzako lantalde osoari!

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.

Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Edurne Arenaza.

Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Hemen hizkuntzarekin egin dena leku gutxitan egin da"

IMANOL LARREA SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERREKO ZUZENDARIA

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Soziolinguistika Klusterrak aurreko astean eman zituen euskararen kale erabileraren inguruko azken neurketaren emaitzak. Euskararen erabilera egonkor dagoela esan daiteke. Imanol Larreak (Antzuola, 1965) eman ditu argibide gehiago.

Kaleko elkarrizketetan zortzi pertsonatik bat ari da euskaraz. Irakurketa baikorra egin daiteke?

Nondik begiratzen den da hori. Ez genuen 2016ko datuekiko aldaketa handirik espero. Jakin badakigu hizkuntzen inguruko aldaketak ez direla bat-batekoak. 1989tik egiten dira neurketak, eta ikusi dugu zein alde txikiak egon diren neurketa batetik bestera. Beraz, eustek egonkortasuna dakar, eta egonkortasun hori albiste ona da. Nahikoa da euskararen biziberritzerako? Ez.

Datu orokorrak ditugu, oraingoz.

Bai. Hilabete barru aurkeztuko ditugu



Imanol Larrea, astelehenean, Arrasaten. L.Z.L.

eskualdekako datuak eta urrian, berriz, herri herrikoak. Datu horiek ezagutzea ere interesgarria izango da.

Zer egin daiteke hazkundean urratsak egiteko? Badalab

ekimena, adibidez; Euskaraldia bera... Badira tresna egokiak? Horretarako ari gara lanean. Azken urteotan aldatu egin da egoera soziopolitikoa eta horrek, nire ustez, hainbat aukera zabaldu ditu

euskararen biziberritzean aurrera egiteko. Iaz sortu genuen, esaterako, erakunde publikoen eta eragile sozialen arteko elkarlanean oinarritzen den Badalab. Euskaraldia bera ere elkarlan horretan oinarritzen da. Horrek esan nahi du orain arte egindakoez ez dutela balio? Bai; ez bagenu egin auskalo non geunden! Nahikoa dira? Ez. Horregatik dira beharrezkoak espermentazioa, berrikuntza eta ikerketa. Miraririk ekarriko dute? Ez, etorriko dira lagungarriak.

Erreminta eta dinamika sozial berriak beharko dira?

Formula berriak behar ditugu, baina baita ere zaharrak diren batzuk biziberritzea. Eskola, esaterako, ezinbestekoa da. Bailara honetan asko landu da, baina oraindik ere egiteko asko dago. Lan munduaren barruan lantzea ere ezinbestekoa da. Horietan ere lanean jarraitu behar da. **Globalizazioa, digitalizazioa, migrazioak, pandemia... Faktore hauen guztien eragina gehiago edo hobeto aztertu beharko litzateke?**

Argi ikusten dugu zaurgarritasun egoeran gaudela. Unescok ere behin eta berriz esan du. Datuek ere

baieztatu egiten dute hori, eta erakusten dute luzera ere horrela izaten jarraituko duela, ziurrenik. Horregatik, erne egon behar dugu. Gora egitea kosta egingo zaigu, eta jakin behar dugu hori luzerako bidea dela. Gainera, ez dugu kanpo erreferentziarik; ez daukagu nora begiratu. Esango nuke munduan leku gutxitan egin dela hemen hizkuntzarekin egin dena.

Hain zuzen ere, azken neurketa honen inguruan antolatu duzue ekainean Bilbon egitekoa duzuen Euskal Soziolinguistika Jardunaldia.

Klusterraren helburu nagusia da ikerketa egitea euskararen biziberritzerako, eta urtero egiten dugu jardunaldia. Ekainaren 22an egingo dugu aurten, eta gaia izango da kale neurketa. Datu berriak aurkeztuko dira, eta saiatuko gara hainbat ikuspegitaz zuku ateratzen interpretaziorantz ailegatzeko. **Daude ñabardurak ikusita argi dago neurriak eta politikak ezin direla berberak izan leku guztietan.**

Argi dago ezetz. Egoera ez da berdina EAEn, Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian. Lurralde beraren barruan ere aldaketak egoten dira eskualde batetik bestera.

ITURRI ONETIK

Debagoieneko aldizkariak digitalizatzen

Goiena Komunikazio Taldea ari da Debagoieneko herri aldizkariak digitalizatzen. Lehendik hasia da 2000 urtetik aurrerako *Goienkaria*, *Asteleheneko Goiengkaria*, *GOIENA* aldizkariak, eta *Puntua* digitalak *Goiena.eus*-era igotzen. Orain ari da *Arrasate Press* eta *Berrigara* digitalizatzen. Eta asmoa da *Aretxagazeta*, *Ze Barri?*, *Kontuola*, *Txirritola* eta *Goibekokale* ere digitalizatu eta *Goiena.eus*-era igotzea. 1988tik aurrerako paperekoak sarean izateko.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-05-28

Eskubide zibilen alde, herri plataformak kalera

Ezker abertzale *ofizialeko* eskualdeko herri plataformek –hauteskundeetara aurkeztu eta legez kanporatuak– manifestazioa egin zuten Oñatin, 2003-2007 agintaldiaren erdian. *Eskubide zibil eta politikoen alde No Apartheid* leloa zeraman pankartaren atzetik zeharkatu zituzten kaleak. Hauteskundeetan balio barik geratu ziren 8.000 boto emaille baino gehiago udal ordezkaritza barik geratu zirela salatu zuten.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Ernai GKS eta Bergarako jaiak

@ErregeGarmendia:

"Bergarako jaixetako ikasle bazkarixa Ikama (Ernai) eta Ikaske Abertzaleak-ek elkarrekin antolau dabela". "Emuten dabenez bixek eskatu zebe bazkarixa organitzazeko permisua egun berdinarako, eta @xaxauBergara-tik erantzun zotzen: elkarrekin edo ezebe".

@NiNeuNaizNi: "Jajajaja zela gustau morbua..."

@kojeigen666: "Bikote terapia".

@inakigaldosira: "Ba azkenean asmatu egingo du gure etxe aurrean hau marraztu zuen [Ernai x GKS] ekumenista honek..."

Zuntza 2021: "Noizko bukatuko dituzte lanak?"

Alde zaharrear zuntz optikoa "lehenbailehen" jartzeko aldarrikapenarekin sortu zen Zuntza 2021 taldea kexu azaldu da lanen atzerapena dela eta. Adierazi dute oraindik arazo handiak dituztela Internet konexioarekin etxebizitzetan eta establezimenduetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Udalak herriari agindu zion ekainerako erdigune osoan zuntza erabilgarri egongo zela, eta lanak oraindik oso-oso atzeratuta daude; gainera, inork ez du epeen inguruko informaziorik", nabarmendu dute, ohar bidez.

"2021eko maiatzean Iturriotz kalean argazkia atera zuen alkatetzak, zuntz optikoa alde zaharrean berehalaxe jarriko zela iragarritz komunikabideen aurrean, hain ohikoa duten argazkiaren politikaren beste agerraldi batean", adierazi du taldeak. "Hauze izan zen orduan titularra: 'Herritarrek zuntz optikoa erabili ahal izango dute alde zaharrean 2022ko lehen sei hilekotik aurrera'. Urtebete igaro da ordutik, epea betetzear dago eta guztiok argi ikusten dugu urruti dagoela oraindik alde zaharreko biztanle nahiz langileok ganorazko Internet konexioa lortzeko unea".

"Pazientzia handiz" jokatu dutela diote, bai herritarrek bai Zuntza 2021 taldeak, baina Udalak emandako epeak agortu egin direla salatu dute. "Alde zaharreko bizilagunoi pazientzia agortzen ari zaigu".

Lanak 2021eko azaroan hasi zituzten, Ferrerías kalean. "Orain dela urte erdi baino gehiago zen hori, eta oraindik Ferrerías kaleko zati batzuetan agertzen eta desagertzen dira toki berberetan noizean behin beharginak, ezin dutenak inolako eperik eman instalazioaren inguruan, euren hitzetan", adierazi du taldeak. "Hala ere, ez dirudi urte osoa hartuta ere amaituko denik instalazioa, oraindik atarte eta etxeetara sartzeko prozesua otza-otza hasi ei da eta. Erritmo honetan, noiz amaituko dute? Zenbat urte beharko dira? TAOren bulegorako berehala sartu zuten zuntza, baina, noski, hori Udalaren behar bat asetzeko zen", azaldu dute, haserre.



Zuntz optikoa jartzeko lanetan, urtarrilean, Ferrerías kalean. JOKIN BEREZIARTUA

UDAL GOBERNUAK DIO DATORREN ASTEAN AZALDUKO DITUELA PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

"Denbora irabazten ari dira"

Irudipena dute, "zarata" hasten denean, argazki batekin edo komunikabideetara bidalitako "berriren" batekin erantzuten dutela alkatetzatik. Diote Zuntza 2021ek egin duen agerraldi bakoitzeko Udalak eman duen erantzuna ez dela izan "zuntza"ren instalazioan aurrerapauso eraginkor eta esanguratsuak emateko", baizik eta Zuntza 2021 eta herritarrek lasaitzeko. "Horrela, lortzen dute Arrasateko herriar ugariak pentsatzea alde zaharrean zuntza dagoeneko erabilgarri dugula, eta aldi berean, denbora erosten dute hilabete batzuetarako, jendeak arduradun politikoen fede onean sinetsi nahi duelako".

"Lanean ganoraz has daitezela"

Azpimarratu dute oraindik ere "arazo handiak" dituztela Inter-

net konexioarekin etxebizitza, komertzio eta bestelako establezimenduetan. "Negozio txiki askotan, esaterako, konexioa jausi egiten da, eta bezeroei emandako zerbitzua guztiz otopatuta geratzen da". Horregatik, orain ez dute nahi "alkateztatik beste komunikatu edo albiste gisa etorriko den pilula lasaigarririk", ez eta bestelako aitzakiarik ere. "Lanean ganoraz hastea exijitzen dugu, herritarrek epeen inguruan eta instalazioaren nondik norakoen inguruan zintzotasunez aldiro informatzea eta instalazio lanei Udaletik benetako jarraipena egitea. Kanpora saltzen den Arrasate moderno eta lehiakorrek ez duela zerikusirik askok bizi dugun eguneroko errealitatearekin".

Bilera informatiboa

Zuntza 2021 taldeak argitaratutako oharren harira galdetuta, Udal Gobernuak adierazi du datorren astean egingo dutela komunikabideekin bilera informatiboa, prozesua nola doan kontatzeko. Edozelan ere, alde zaharrean zuntz optikoa ezartzeko lanak abian daudela nabarmendu du.



Gazte Batzordearen bilera, eguaztenean, Monterron parkean. ARRASATEKO EUSKARALDIA

Euskaraldiko Gazte Batzordea eratu dute, "gazteak saretzeko"

Bigarren bilera ekainaren 15ean egingo dute eta Herri Batzordea, berriz, datorren eguaztenean batuko da

E.A. ARRASATE

2018koaren eta 2020koaren ostean, badator hirugarren Euskaraldia, "aurrekoetan egindakoa sendotu eta euskara biziberritzeko prozesuan jauzi kualitatiboak emateko gogoz". Izan ere, diote, aurreko bi edizioen ostean egindako ikerketek "argi" erakusten dute Euskaraldia ekimen eraginkorra dela eta herritarrek euskararen erabilera indartzen jarraitu nahi dutela, gainera.

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute, eta "ariketa sozial erraldoiak aurre lan handia" eskatzen duenez, Arrasaten ere hegala astintzen ari dira dagoeneko. "Horren adibide da ekainaren 15ean eratu den Gazte Batzordea. Euskaraldia gaztetu nahi dugu eta hau izango da batzorde honek edukiko duen erronka", azaldu dute.

Gazte Batzordeak asteon egin du lehen bilera. "Taldeak badi-

tu dagoeneko gazteak saretzeko eta Euskaraldian aktiboki parte hartzeko hainbat proposamen, baina erabat zabalik dago kide eta ideia gehiago batzeko", azaldu dute. "Etorri, bada, hurrengo bilerara, ekainaren 15ean, 19:30ean, Monterronen".

Herri Batzordea ere martxan

Ildo beretik, Herri Batzordearen berri ere eman du Arrasateko talde eragileak. Ekainaren 8an egingo dute lehenengo bilera, 18:30ean, AEDren lokalean. "Bertara etortzera animatzen zaituztegu, zenbat eta anitzagoa izan, orduan aberatsagoa izango baita Arrasateko Euskaraldia".

Entitate edo norbanako gisa

Entitateek, aurrekoan bezala, ariguneak osatuko dituzte. Norbanakoek, talde eragilean lagunduz hartu dezakete parte, edo *ahobizi* edo *belarriprest* izanda.

Gobernuak gezurtatu egin ditu Podemosek emandako datuak

TAOren baitan isunak jartzen hasi osteko lehen hiru hilabeteetako datuak eman zituen eguaztenean alderdi moreak. "Gobernuak eman beharko litzuzke datu hauek, baina ez daukanez horretarako asmorik, argitaratzea erabaki dugu", azaldu zuen Eva Abuin bozeramaileak. Udalaren eta Gertek Sociedad de Gestiones y Servicios

SA enpresaren txostena hartu zuen oinarritzat.

Haren hitzetan, lehen hiru hilabeteetan 216.838,56 euro bildu dira, hiru bidetatik: tiketekin biltzen den diru kopurua, txartelarekin, eskudirutan zein online; makinan ezeztatzen diren isunak eta tramitatutako isunak.

Gobernuak kontu-hartzaileak sinatutako ziurtagiria kaleratu du, eta urtarrilaren 31tik apirilaren 30era arte TAOen batutako kantitatea 95.044,49 eurokoa dela adierazi (Ikus *Goiena.eus*).

Esku-hartzeak ia erdira jaitsi dira trafiko arloan

Arrasateko Udaltzaingoak 1.615 esku-hartze egin ditu 2022ko lehen lauhilekoan: 599 izan dira arlo administratibokoak; 175, trafiko arlokoak; 148, segurtasunekoak; eta 126, ingurumenarekin lotutakoak. Halaber, atxiloketa bat egin dute epe horretan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Trafiko arloko datua azpimarratu gura izan du Maria Ubarretxena alkatea: "Aztertzen ari gara, seguruena, jaitsiera horrek zerikusia duelako azkenaldian herriko antolamenduan egindako aldaketekin: autobus geltokia Zalduspen jarri, Garibai oinezkoendako jarri, TAO ezarri eta abar. Erdigunean trafikoa gutxitu egin da eta, horren ondorioz, interbentzioak erdira jaitsi dira". Halaber, 175 horietatik, erdiak baino gehiago, 98, kexa edota arazoei dagozkie.

Bestalde, zenbatutako istripuak 49 dira. "Ez da hildakorik izan eta gehienak arin zauritu dira edo ez dira zauritu. Bi oinezko zauritu dira, biak urtarrilean, bat lesio arinekin eta bestea lesio larriagoekin".

Atxiloketa bat eta bost inputatu

Administrazio-eremuko 599 interbentzioak 2021eko azken lauhilekoan baino 89 gehiago

dira, besteak beste, animalien kudeaketarekin, zaratarekin, pintaketen garbiketarekin eta dokumentuen edo objektuen galerekin lotutakoak.

Segurtasunarekin lotutako esku-hartzeak 148 izan dira eta horietatik hamaika, abisu faltsuak. Lapurretak ugaritu egin dira (18), eta ebasketak edo kalte materialak, murriztu.

Epe horretan, Zigor Andino udaltzainburuaren esanetan, pertsona bat atxilotu dute erasoengatik, hiru pertsona inputatu dituzte bide-segurtasunaren aurkako delituengatik eta beste bi, "beste arrazoi batzuegatik".

Kameretako irudiak, bateratuta

Udalerriko kamera publiko guztien irudiak zentralizatuta jarri dituzte Udaltzaingoan, aldi berean hainbat lekutan gertatzen ari dena ikusi ahal izateko. Orain arte, irudiak grabatu egiten ziren, eta gero ikusi behar izaten zituzten udaltzainek.



Maria Ubarretxena eta Zigor Andino, Udaltzaingoan. E.A.

'Karkabatik herria' zikloaren bosgarrena, Floren Aoizekin

Bosgarren saioa ekainaren 8an egingo dute, 19:00etan, Irati Topalekuan, eta Floren Aoiz izango da gonbidatua. Solasaldia, berriz, *Mamuari so: burujabetza vs neoliberalismoa* liburuxkan oinarritutakoa izango da. "Gure garaia ulertu eta ditugun erronkak aletzeko gakoak partekatuko ditu Floren Aoizek, Idoia Zengotitabengoak egindako galdera sorta jasotzen duen liburua oinarri hartuta", diote Sortuko kideek. "Neoliberalismoaren ezaugarritzea eta ibilbidea aztertzen dute, kapitalismoarekin dituen loturak eta gizartean zer modutan eragiten duen agerian uzteko". Irakurgaia eskuragarri dago jada.

OHARRAK

Bozeramaile berria

Aritz Murua zinegotziak hartuko du Victor Fuentesek izan duen sozialisten bozeramaile kargua.

Gaztetxeko ekintzak

Bihar, zapatua, Zeker eta Wood Strings taldeak ariko dira, 22:00etan hasita. Ekainaren 9an, bestalde, ikasle jaialdia egingo dute, 18:30ean hasita.

Etxezarreta PR-GI 91

Ibilbide berria aurkeztuko dute Besaidek eta Udalak etzi, Kulturolan, 09:30ean.

'Go!azen', Elman

Auzoko jaietan izango da emanaldia, irailaren 9an.

ATE IREKIAK
ekainaren 8tik 10era

Etorri,
KULTUROLAN
gaude!

ARRASATEKO UDAL
EUSKALTEGIA

» EZAGUTU GURE ZERBITZUAK

10:00-12:30
16:00-20:00

% 10EKO DESKONTUA MATRIKULAN!

ERRESERBATU PLAZA

Aurrera egiten segi ahal izateko, atzera begiratua

Arrasate Rugby Taldeak 50 urteotako ibilbidea jasotzen duen erakusketa ireki berri du Kulturateko klaustroan; argazki eta kamiseta zaharrak ikusi ahal izango dira, panel informatiboekin batera; era berean, Garagardo Azoka ere martxan dute egun hauetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

50. urteurrenako ospakizunetan murgilduta dihardu ARTk, eta atzera begiratua egitea funtsezkoa da horretarako. Hala, Arrasaten errugbiak izan duen ibilbidea jasotzen du dagoeneko Kulturateko klaustroan ikusgai dagoen erakusketak. "Taldearen memoria historikoa sortzen ari gara eta 50 urte hauen errepasoa egitea da erakusketaren helburua. Hori dela eta, argazki eta kamiseta zaharrak ikusi ahal izango dira, panel informatiboekin batera. Denbora-lerro moduko bat egin dugu, mugarri garrantzitsuenak aipatuz, eta gaur egungo filosofia jasotzen duen beste panel bat ere badago. Era berean, taldeak irabazitako hainbat kopa ere egongo dira", azaldu du ARTko kide Ihabar Arriaranek.

Atzo, eguna, inauguratu zuten erakusketa eta ekainaren 18ra arte egongo da zabalik.

Garagardo Azoka bueltan da

Bestalde, azken bi urteetan antolatu ezin izan duten arren, bueltan da Garagardo Azoka, atzo hasita. Diru-sarrera garrantzitsua da azoka hori Arrasate Rugby Taldearentzat, urteko aurrekontuaren zati potolo bat irteten baita hortik. "Hori dela eta, azken bi urte hauek zailak izan dira eta beste diru iturri batzuk aurkitzen saiatu behar izan dugu. Beraz, bi urteko geldialdiaren ostean, gogo handiarekin gatoz bueltan", adierazi du Arriaranek.

Orain arteko modu berean funtzionatu du azokak. Ukondoa, oilaskoa eta saltxitxak egongo dira jateko, ohi moduan, eta, edatekoari dagokionez, berriaz, askotariko garagardoak dastatu ahal izango dira. Atzoko pintxo-potearen ostean, gaur eta bihar afaltzeko aukera egongo da eta bihar, zapatua, bazkariak ere emango dituzte, 14:00etan.



Ihabar Arriaran, ARTren argazki zaharrak erakusketan jartzen, eguaztenean. E.A.

BI URTEKO ETENAREN OSTEAN, ITZULI DA TALDEARENTZAT EZINBESTEKOA DEN GARAGARDO AZOKA

Kontzertuak eta tailerra ere bai Azoka girotzeko, bestalde, kontzertu batzuk ere antolatu dituzte. Atzo, esaterako, lehenik, Leire Etxezarreta eta Pello Heriz aritu ziren, eta ondoren, Doce C Klik rap-kantarien txanda izan zen. Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Sin+ talde beteranoak joko du kontzertua eta bihar, zapatua, azkenik, AZ Gaubelakek musikatuko du azoka, 22:30ean hasita.

Musikaz gain, umeentzako aurpegiak margotzeko eta txapak egiteko txokoa jarriko dute gaur, 17:00etan hasita, eta ARTren 50. urteurrenean oinarritutako mural bat margotuko dute. Pook taldeko Lexuri Doyague eta Joana Manzisidor ari dira mural hori diseinatzen eta haiek egingo dituzte gidari lanak. Behin murala eginda, Mojategiko sarreran jarri gura dute.

Aurten, zazpiko errugbirik ez Azokarekin batera zazpiko errugbiko txapelketa antolatu izan du ARTk, baina aurten ez dute egingo. "Azken urteetan indarra galtzen ari zen eta geroz eta talde gutxiago etortzen ziren. Denboraldia gogorra izaten da eta taldeak nahiko erreta iristen dira sasoi honetara. Beraz, aurten ez antolatzea erabaki dugu". Edozelan ere, horren orde, *Herenugeek* partidua jokatu dute bihar, zapatua, Mojategin, Hernaniko beteranoen aurka, 16:30ean hasita.

Gustura, baina aurrera begira

ARTko kidea "gustura" azaldu da urteurrenaren baitan orain arte egin dituzten ekintzek emandakoarekin, eta kirol arloan ere "urte borobila" izan dela azpimarratu du. Edozelan ere, urteurrena ahalik eta ondoen borobildu gura dute eta udazkenara begira jarrita daude dagoeneko. Izan ere, beste hainbat ekintza antolatzen ari dira; besteak beste, *Touch Rugby* txapelketa bat –plakaketa bako errugbia– edota umeentzako errugbi eguna, puzgarriekin eta bestelakoekin.

Seber Altube plaza elkartasunez beteko dute bihar, egun osoz

Askotariko ekintzak egongo dira 10:30etik 20:30era; tonbola ere jarriko dute, Ankur proiektuari laguntzeko

E.A. ARRASATE

Activos Por Un Mundo Solidario, Serso San Victor eta Harreman erakunde antolatzaileek hainbat gobernu kanpoko erakunde eta elkarterekin batera jardungo dute: Amnesty International, Zaporeak, Mundukide, Migra-tzaileen Pastoral eta abar.

Aurreko urteetan bezala, hainbat jarduerak osatuko dute eguneko egitaraua. Batetik, gobernu kanpoko erakundeen produktuak erakusgai eta salgai jarriko dituzte. Bestalde, txikienentzat, puzgarriak eta sukaldaritza tailerra egongo dira egun osoan, eta Kontukabi taldearen eskutik *Lau haitzeta* antzerkia ere bai. Era berean, trikitilariak, dantzariak, gaiteroak eta Arrasate Musika-kaleko gazte taldearen emanaldiak ere izango dira. Azkenik, Erromintxelak taldeak kontzer-

tua eskainiko du, 19:30ean. Halaber, Harreman Dendako kideak egun osoz egongo dira Seber Altuben, bidezko merkataritzako produktuak saltzen.

Tonbola solidarioa

Harremanek laguntzen dituen proiektuekiko elkartasuna adierazteko eta Ibai-artek eskaintako ehunka sarietako bat irabazteko aukera egongo da tonbolan parte hartuz, eta hor lortutako dirua Mumbaiko (India) Ankur harrera-etxerako izango da. Gainera, 20:30ean, Ibai-arteko dendetan bonuetan gastatzeko 300 euroko sariaren zozkatuko dute. "Nabarmendu nahi dugu Ibai-arteren laguntza, urtez urte tonbola egiteko aukera emanez. Eskerrik asko bazkide parte-hartzaile guztiei, horiek gabe tonbola ezinezkoa izango bailitzateke".

Zapatei koba garbitzeko auzolana egingo dute bihar

Besaide Mendizale Elkarteko kideak, Euskal Herriko Espeleologia Elkartekoak eta 40 boluntario inguru ariko dira lan horretan. Joan den astean egin zuten boluntarioak lortzeko deialdia, eta arrakasta handia izan du, Besaideko kideen esanetan. Meatzerreka auzoko koba horretan hiru tona zabor daude eta guztia garbitzea da asmoa.



Zapatei kobako zaborra. B.M.E.

Testamentua eta herentzia hizpide, seihiilekoa bukatzeko

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, *Testamentuak eta herentziak* hitzaldia egingo du ekainaren 7an Arrasateko notario Antonio Jose Roman de la Cuestak, 17:30ean, Kulturateko areto nagusian. Lehen seihiilekoko azkena izango da. "Oso balorazio positiboa" egin dute, eta ekitaldietan parte hartu dutenei eskerrak eman dizkiete.

Udal Euskaltegi berria ezagutzeko ate irekiak Kulturolan

Udal Euskaltegian, aurten, bi kontu dituzte ospatzeko: alde batetik, 40 urte dira bidea hasi zuenetik; eta, bestetik, datorren ikasturtea euskaltegi berrian hasiko dute, Kulturolan. Hori dela eta, ate irekiak antolatu dituzte ekainaren 8rako, 9rako eta 10erako. Ordutegiei dagokienez, 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 20:00etara izango dira.



ARTren 50. urteurrena ospatzen dabilta klubeko kideak; eurek eta MUko neskek aitorza jasoko dute AKSetan. GOIENA

Badatoz AKSak, lorpenak eta ibilbideak saritzera

Ekainaren 16an banatuko dituzte Arrasateko Kirol Sariak. Aitortza jasoko dute MUko emakumezkoek eta 50 urte bete dituen Arrasate Rugby Taldeak. Hala ere, kirolari onenak eta ibilbide oparoenak bozketa bidez aukeratuko dituzte herritarrek

Xabier Urtzelai ARRASATE

Arrasateko Udalak herriko kirolari eta kirol talde onenen lana eta esfortzua aitortuko ditu hilaren 16an, Seber Altuben egingo duten ekitaldian. Hala, AKS (Arrasateko Kirol Sariak) barruan, batetik, kirolari onenaren sariak banatuko dituzte, eta, bestetik, kirol ibilbideak ere sarituko dituzte. Eta bi sari

horiek herritarren esku egongo dira, bozketa bidez aukeratu ahal izango dituzte-eta Arrasateko Udalaren webgunean eman daiteke botoa--.

Aitortza bikoitza

Bozketatik harago, baina, antolatzaileek garbi dute 2022 honetan bi talde daudela, gainontzekoen gainetik, aitortza berezia

merezi dutenak. Eta horiek dira Arrasate Rugby Taldea -50. urteurreneko ospakizunetan murgilduta daude- eta mailaz igotzea lortu berri duen Ointxe!-ko emakumezkoen senior mailako taldea. Bada, MUko neskek, aitortza horretaz gain, kirolari onenaren saria ere poltsikoratu dezakete, hautagaien artean daude eta.

AKSko sarietarako hautagaiak:

AKS sariaketa barruan, batetik, kirolari onenaren sariak banatuko dituzte -bakarkako kirolariak eta talde mailako lorpenak multzo berean egongo dira-, eta bestetik, kirol ibilbideak ere sarituko dituzte. Hauek dira hautagaiak:

Kirolari onenaren sariak:

- **Ander Murua** pilotaria. 23 urtez azpiko euskal pilotako Munduko Txapelketan, eskuz binakako finala irabazi zuen. Arrasatekoak, finalean, Andoni Gaskuerekin batera osatu zuen bikotea, eta Mexikoko pilotariei 2-0 irabazi zieten.
- **Maria Jose Gil** atleta. 2022ko urtarrilaren 8an Donostian jokatu zen Euskadiko Master txapelketan Espainiako 400 metroko errekorra ondu zuen, berriro, 81 urteko emakume atletak.
- **Miren Apraiz** triatleta. Arrasatearra distantzia motzeko Euskadiko Duatloi txapelketa izan berri da, Azkoitian egindako lasterketan 02.19.23ko denbora egin zuen.
- **Mondragon Unibertsitateko emakumezkoen taldea.** Lehen Nazional Mailan dira, ligan bigarren sailkatu eta Iturripen jokatu zuten lauko finalean nagusitu eta gero.
- **Yaman Mjahed** borrokalari. Arrasatekoa MMAko borrokaldi garrantzitsuetan esku hartzen dabil. Dagoeneko WOW5 eta WOW6 jaialdietan hartu du esku, eta bietan gailendu da.
- **Mikel Aizpuru eta Igor Gordobil.** Beasaingo futbol taldeko erdilaria bata eta entrenatzailea bestea. Talde bagoilari 2. RFEF kategoriarra igo berri da.
- **Mondrate**, areto futbol taldea. Maila Nazionalera igo berri den senior taldea denboraldi bikaina burutzen ari da. Asteburuan dute *play-off*-etarako sailkatzeko aukera.
- **Malen Ruiz de Azua.** 2021eko maiatzean zilarrezko domina lortu zuen nazioen arabarako Europako Atletismo Txapelketan. Iberoamericano txapelketan bigarren izan berri da.
- **Mondragon Unibertsitateko gizonezkoen taldea.** EBA mailan jokatzen duen taldeak lauko finalerako txartela lortu zuen. Finalean galdu ondoren, ez ziren igoera faserako sailkatu, baina denboraldi bikaina burutu dute.

Kirol ibilbidearen sariak:

Udalak Arrasateko kirolari egindako ekarpenagatik hainbat lagun ibilbidea ere aitortu gura du, eta horiek ere bozketa bidez aukeratuko dituzte herritarrek. Hasteko, hil ondoko titulu moduan saria jasotzeko hautagaiak dira Mariano Arrieta eta Joxe Antonio Aranburuzabala. Bi lagun horiek ekarpen handia egin zioten herriko eskubaloari. Eta horiekin batera, beste hautagaiak dira urteetan Besaide Mendi Elkarteko zuzendaritzan egon den Karmelo Bergaretxe, Arrasateko saskibaloia sorrarari lotuta dagoen Jon Basurko eta Maria Jose Gil atleta beteteranoa.

Oharra: Bozketa horiek arrasate.eus atarian egin ahal izango dira.

Valentzian protagonista

Asteburuan jokatu dute, Torrenten (Valentzia), gimnasia aerobikoko Espainiako txapelketa, eta Dragoi Gimnasia Taldeko gimnastek nabarmentzeko moduko lana egin dute. Azpimarratzekoa da senior mailan -step-en- Nora Marcok, Sara Yan Azkaratek, Maider Agirreurretak, Nahia Irazolak, Maddi Etxagibelek eta Zihara Etxeberriak lortutako zilarrezkoa.



ARRASATE DRAGOI





Neska-mutilak Santa Barbarako ur parkeko jolasekin gozatzen. H.L.

Ur parkeak irekita hasi dute udako kanpaina

Martitzenean ireki zituzten Santa Barbara eta Villa Amparoko ur txorrotak, aurreikusitakoa baino egun bat lehenago, egiten zuen beroa kontuan hartuta. Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak ekainaren 18an zabalduko dituzte

Hasier Larrea ARRASATE

Arrasate Gipuzkoako lehen udal-lerria izan da udako denboraldia inauguratzen. Hala adierazi du Ander Garay Kirol zinegotziak: "Txorrotak ekainaren 1ean irekitzeko asmoa geneukan, baina bezperan egindako beroa kontuan hartuta, egun bat lehenago irekitzea erabaki genuen; iaz, ekain erdialdean ireki genituen, eta duela bi urte, uztailean". Hala, iraila bukatu arte egongo dira erabilgarri egunero, 10:00etatik 20:00etara.

Santa Barbarako ur parkeak 21 joko ditu, adin guztietako herritarrek erabili ahal izateko, eta iaz egunero 100 pertsonatik gora ibili ziren bertan, Arrasateko Udalak emandako datuen arabera. Villa Amparoko parkea, ostera, Santa Barbarakoa baino handiagoa da, bi gunerekin; bidegorritik gertuen dagoen gunean 18 jolas daude, 4 urtetik gorakoentzat, eta Etxetxikietatik gertu dagoen gunea haur txikiagoentzat diseinatuta dago, bi

zirkuiturekin". Beraz, Udalak herritarrei azpiegiturok behar bezala zaintzeko eskatu die, kristalik eta zikinkeriarik ez pilatzeko.

Maiatza ezker lanean

Ur parkeak ireki ahal izateko hainbat lan egin ditu Arrasateko Udalak, kiroldegiko mantentze arloko langileen bitartez: ur jolasak jarri, depositu eta filtroak hustu, ur zirkuitua garbitu eta desinfektatu, instalazioa berriz urez bete, filtrazioa eta arazketa martxan jarri, laborategian ziurtagiri baten bidez uraren laginak hartu eta beharrezko analitikak egin, zehazki. Udan zehar beste hiru analitika egingo dituzte, eta Eusko Jaur-

PANDEMIA AURREKO EGOERARA ITZULIKO DIRA GUNEAK, EDUKIERA-MUGA ETA TXANDARIK GABE

laritzako Osasun Publikoak ikuskapen bat egingo du.

Igerilekuak, bi aste barru

Aurten, ekainaren 18an irekiko dituzte Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak; hileko hirugarren zapatuan, alegia. Kiroldegiko langileek asteotan dihardute igerilekua hustu eta ur garbiz betetzen.

Interesa dutenek udako abonua eros dezakete, prezio hauetan: 18 urtetik beherakoentzat, Arrasaten erroldatuta badaude, 41,70 euro, eta ez-erroldatuentzat, 50,10 euro; 18 urtetik gorakoentzat, Arrasaten erroldatuta badaude, 70,10 euro, eta ez-erroldatuentzat, 84,20 euro; eta familiako udako abonua, Arrasaten erroldatuentzat, 112 euro, eta ez-erroldatuentzat, 134,40 euro. Bestalde, eguneko sarrerak –adinez txikikoe, 3,50 eurotan eta nagusiek 6,20 eurotan– eta hamar alditarako bonuak –adinez txikikoe 28,50 eurotan eta nagusiek 56,80 eurotan– ere erosi daitezke.

"Jendea zuzenekoetan abesten ikusteak poza eragiten digu"

NAROA AGIRRE ETA MIREN ITURBE TABU BIKOTEA
Ziar-Ola kultur elkartean joko dute gaur, 19:00etan

H.L. ARRASATE

19 urteko arrasatearrek denborapasa bezala hartzen dute, duela hiru urtetik, euren proiektu musikala.

Nolatan ekin zenioten abestiak jotzeari?

Kuadrillako lagunak gara eta asko gustatzen zaigu poesia. Ikusi genuen talde akustiko asko zeudela, baina gure asmoa zen musika poemekin eta idatziekin nahastea. Hala, guk poemak konposatzen ditugu, beste abesti batzuen musikarekin jotzeko, gitarraren, ukelearen eta aho-tsaren bidez.

Norenak dira bertsoiak?

Lagrimas de Sangre eta Zuu katalanenak, La Otra madrildarrena... Gure kontzertuetara datozenendako ezagunak diren abestiak dira, eta gozatu egiten dute zuzenekoetan. Ikus-entzuleak gurekin batera abesten ikustea da poz gehien ematen diguna; baten bat negarrez ere ikusi dugu, hunkituta.

Non jo duzue orain arte?

Gehienbat, Arrasaten. Lehenengo emanaldia Txatxilipurdiren ekitaldi batean izan zen, pandemia aurretik. Pandemian zehar bitan jo dugu gaztetxean, baita



Kulturte osteko parkean. TABU

Ostantz eta Osorik tabernetan ere. Gaur, Musakolako Ziar-Ola elkartean arituko gara, poteoa girotzen. Ekainaren 18an Aretxabaletan dugu hitzordua.

Ez da oso ohikoa emakumez osatutako taldeak ikustea oholztan.

Musikaren munduan oholztara igotzen direnak mutilak dira, gehienbat, eta oraindik badaude espazio batzuk emakumeen presentzia ez dena existitzen. Guk gazte guztiak animatu nahi genituzke musika egitera; batez ere, neskak. Lagunekin jo, talde txikiak sortu eta gozatu!

Etxeko espazioak antolatze gakoak, Belungo 'Tertulixan'

Maitane Ormazabal antolatzaile profesionalak txukun bizitzeko gomendioak emango ditu gaur Zerkaostetan

H.L. ARRASATE

Zerkaosteta kaleko Belun Une Ahaztezinak dendako arduradunek *Tertulixan* hitzaldi-zikloari jarraipena emango diote gaur, 18:00etan hasita. Maitane Ormazabal lasartearra gonbidatu dute oraingoan, *Ordena kanpotik eta barrutik* izena jarri dioten tailerra gidatzeko. *Txukuntzen.eus* ataria kudeatzen du Ormazabalek, eta bulegoak eta etxebizitzak ahalik eta modu txukun, egoki eta lasaienean ordenatzeko zerbitzuak ematen ditu. Gaurko saioan, "minimalista izatea zer-

gatik kostatzen zaigun hainbeste" azalduko du: "Gai psikologikoa da estetiko baina gehiago. Autoezagutzatik, oinarritzko objektuak bakarrik mantentzea lor dezakegu; izan ere, zenbat eta gauza gehiago pilatu, orduan eta energia gehiago behar dugu horiek zaintzeko". Plaza mugatuak daudenez, 943 04 03 20ra deitu beharko da aurrez.

Ekainaren 11n, azkenik, trapuzko panpinen tailerra egingo dute, 6 urtetik gorako haurrei zuzenduta, Ruben Pantigaren eskutik, 20 euroren truke.



Telebista



Profesionalekin

Euskaraz

Komunikazio Campusa 2022

Sare sozialak



Podcastak

Fotokazetaritza



Kamera aurrekoak

Noiz: 1. txanda, uztailaren 4tik 8ra. 2. txanda, uztailaren 11tik 15era. **Taldeak:** gehienez ere, 15 lagun.

Non: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan, eta Goienan, Arrasaten.

Ordutegia: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

Norendako: DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak. **Izen ematea:** Martxoaren 18tik ekainaren 17ra. **Prezioa:** 125 euro.

IZEN EMATEA ZABALIK: www.labur.eus/komunikaziocampusa



Master-eskolak adituen eskutik:

Alex Padilla Sare sozialetan aditua. **Ainhoa Vitoria** Komunikatzailea eta Gazteako irrati esataria.

Xabier Urzelai Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.

Informazio gehiago:    600 02 27 20  komunikaziocampusa@mondragon.edu

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Anima zaitetz eta eman izena!



Maiatzaren 26an egindako ohiko osoko bilkura. A.E.G.

Kiroldegia berritzeko kontratazioa, zabalik

Aramaioko Udalak Maider Unda kiroldegia handitzea eta berritzea onartu, eta lan horiek egiteko kontratazioa publikatzea onartu du. Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira ekainaren 16a baino lehen, plataforma digitalean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Maiatzeko ohiko osoko bilkuran onartu zuten, aho batez, kiroldegia berritzeko eta handitzeko obraren exekuzioa kontratatze-ko espedienteari hasiera ematea eta onartzea.

Kontratuaren aurrekontua, BEZa barne, 470.183,65 eurokoa izatea onartu dute.

Zer egingo duten

Kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko proiektua 2021eko iraileko osoko bilkuran onartu zuten. Azkenaldian materialek izan duten igoera handia dela eta, aurrekontua moldatu egin behar izan dute; hala, aurrekontua handitu egin dute, kontratazio lehiaketara norbait aurkez dadin.

Bi lan egingo dituzte: kiroldegiaren teilatua berritu egingo dute, egun dituen itogin arazoak konpontzeko. Izan ere, kiroldegia 80ko hamarkadakoa da eta ordutik ez dute teilatuan lanik egin. Bestalde, kanpoko frontoia

estali egingo dute. "Estalkia jarriko zaio. Alboetatik zabalik egongo da, baina teilatua izango du", azaldu du Oier Ezkerra aparejadoreak. Egurrezko egitura izango du, eta txapazko teilatua. Modu horretan, eguraldi txarreakin ere kanpoko frontoia erabilgarri egongo da, bai pilotan egin nahi dutenendako eta baita bertan jolasean ibili nahi duten gaztetxoendako ere.

Eguzki plakak

Kiroldegian egin beharreko beste lan bat eguzki plakak jartzea izango da. "Hori gerora egin beharreko lana da, ez dago kontratazio honetan sartuta", azaldu du Ezkerrak. Proiektua egin dabilatzala gehitu du. Asmoa

KANPOKO FRONTOIAN EGURREZKO EGITURA ETA TXAPAZKO TEILATUA JARRIKO DUTE

da kiroldegiko teilatuan eguzki plakak jartzea, horien bitartez lortutako energia berriztagarriekin herriko eraikin publikoak hornitzeko.

Plataforma digitala

Kontratazio plataforma maiatzaren 27an argitaratu zen; eta proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira ekainaren 16ra arte, 14:00ak baino lehen.

Bestelako gaiak

Osoko bilkuran landu zuten beste gai bat izan zen Tokiko 2030 agenda EAEn bultzatzeko akordioaren aldeko atxikimendua onartzea. Aho batez onartu zuten akordioarekin bat egitea.

Azkenik, 2022ko enplegu publikoa egonkortzeko eskaintza-aren onarpena ere onartu zuten. Modu horretan, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko abenduko legearekin bat egiten da.

Bigarren aldiz egingo dute Aramaio Loratzen lehiaketa

Etxe-atariak, balkoiak eta leihoak apaintzeko sariketan ekainaren 17ra arte eman daiteke izena, udaletxean


A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko Udalak bigarren aldiz antolatu du herria txukun eta polit izateko lehiaketa. Aramaio Loratzen lehiaketak etxe-atari, balkoi eta leiho txukunenak sarituko ditu. Parte hartu nahi duten herritar guztiek izango dute parte hartzeko aukera: izena emateko azkeneko eguna ekainaren 17a izango da.

Udaletxean eman behar da izena, hara joanda edo telefonoz deituta: 945 44 50 16. Izen-abizenak eta ataria, leihoa edo balkoia identifikatzeko helbidea eman beharko dira –astelehenetik barrikura, 09:00etatik 14:00etara–.

Balorazio irizpideak

Balkoiak edo leihoak apainduta eduki beharko dira, gutxienez, ekainaren 24ra arte. Sariak ematerakoan kontuan izango dute: originaltasuna, kalitatea,



lazko balkoi irabazlea. A.E.G.

loreen iraunkortasuna, harmonia eta diseinua eta erabilitako materiala.

Sariak izango dira: leiho eta balkoien kategorian, 200 euro; etxe-atarien kategorian, 200 euro; eta parte hartzaileen artean zozketa bidez, 50 euro.

Santi Kurtz eguna ospatzeko, meza eta jana eta edana

Etzi, ekainaren 5ean, Santi Kurtz eguna ospatuko dute. Aspaldiko ohitura da Aramaion, eta ekaineko lehen domekako urteroko hitzordua izaten da aramaioarrendako. Arriola eta Arexola auzoetako bizilagunek antolatzen dute herri guztiarendako.

12:00etan izango dute eguneko hitzordu nagusia: meza esango dute Orixol mendirako gailu-

rerrerako bidean dagoen Santi Kurtz ermitan. Ondoren, ermitatik 200 bat metrora dagoen txabolan jatekoa eta edatekoa izango dute. Salda beroa eta txorizoa jarriko dute auzotarrek, bestek beste, hara joango diren auzotarrendako eta mendizaleendako. Izan ere, eguraldi onarekin, mendizaleak ere baten dira Santi Kurtz eguneko ospakizunera. Gainera, herriko trikitilariak girotuko dute domekako ospakizuna, trikiti doinuekin.

OHARRAK

Txirrindularitza proba

Aloña Mendik antolatutako lasterketa Aramaiotik pasako da, A-2620 errepidetik, 17:33 inguruan. Aramaiotik Azkoagara hartuko dute eta Zabolatik eta Untzillatik pasako dira.

Konponketak Andra Marin

Hurrengo asteetan konponketak eta egokitzapenak egingo dituzte Andra Mari inguruan.

Igerilekuak eta ur sare publikoa

Udalak eskatu die igerileku partikularren jabeek horiek betetzeko ur sare publikotik hartu behar baldin badute ura, aldez aurretik abisua emateko udaletxean.

90eko hamarkada gogora dakarten doinuak

XIII. Musika Festibala hasiko dute gaur Sastiñan. Ekaineko barikuetan kontzertuak egiteko ohiturak bere horretan jarraituko du aurten ere. Gaur hasiko da jaialdia, Jukebox bikotearekin, eta jarraipena izango du hurrengo bi barikuetan

Arantzazu Ezibel Galdos ARAMAIO
80ko eta 90eko hamarkadetakozko gaztelarazko pop-rock musika eta abestiak gogora ekarriko dituen bikoteak ekingo dio aurten Musika Festibalari. Ekaineko barikuetan musikaz gozatzeko aukera egongo da, beste behin; aurten, ez bakarrik Sastiñan, baita beste agertoki batzuetan ere.

Jukebox bikoteak egingo du gaurko kontzertua, 19:30ean hasita, Sastiñan.

Gitarra eta baxua

Jukebox bikotearen arima Ruben Ocasar musikaria da. "Proiektu pertsonala da, eta zenbait musikarirekin lan egiten dut kontzertuetan. Oraingoan, Jose Antonio Garcia baxu-jotzailea izango da nirekin Aramaion", azaldu du Ocasarrek.

Bertsioz osatutako emanaldia egingo dute: "90eko hamarkadako talde onenen errepasoa egingo dugu: Revolver, Los Secretos, Fito&Fitipaldis...". Nabarmendu du oso samur entzuteko musika joko dutela, eta, musika estilo jakin baten zale amorratua izan ezean, gustura egoteko emanaldia izango dela. "Gaur egun oraindik ere irratian entzuten diren abestiak dira: Joaquín Sabina-ren *Princesa*, Fito&Fiti-



Ruben Ocasar gitarrarekin. RUBENOCASAR.COM

ORDU ETA ERDI IRAUNGO DUEN SAIOAN, POP-ROCK ABESTIEN BERTSIOAK EGINGO DITUZTE

paldis taldearen *Soldadito mariner*o, M Clan taldearen *Carolina*... Oso ondo funtzionatzen digun errepertorioa da".

Ordu eta erdi iraungo duen emanaldia izango dela dio Ocasarrek; eta gaineratu du gogotsu

dagoela lehenengo aldiz Aramaion jotzeko.

Ekaineko kontzertuak

Ekaineko barikuetako beste bi kontzertuak hauek izango dira: ekainaren 10ean, zarzuela emanaldia kultura etxean; eta ekainaren 17an, organo kontzertua elizan. Santiago Banda organo-jotzaileak eta Enrique Abello tronpeta-jotzaileak egingo dute ekainaren 17ko musika klasikoko emanaldia. Aramaio-ko elizan izango da, arratsaldeko zazpietan hasita.

Udako udalekuei begira jarriko dira domekan nerabeak

Tximista elkarteak antolatuta hainbat jolas eta dinamika egingo dituzte uztaleko proposamenak erabakitzeko

A.E.G. ARAMAIO

Tximista aisialdi taldeak nerabeei zuzendutako topaketa antolatu du domekarako: gazte udalekuen topaketa egingo dute. 17:00etan elkartuko dira parkean, eta 12 eta 16 urte bitarteko aramaior guztiak gonbidatu dituzte topaketan parte hartzera. Gazte Udako aurkezpena eta antolaketa egitea izango da helburu nagusia. Dinamika batzuk jarraituz jolasak egingo dituzte, eta modu horretan uztaleko proposamenak erabakiko dituzte. Azken finean, helburua izan-

go da nerabeekin elkartu eta euren interesetatik abiatuta zehaztea uztaleko udalekuetan egingo dituzten ekintzak.

Gazte Uda uztail azkenaldian egingo dute; iaz egin zuten moduan, zortzi eguneko udalekua izango da. Asmoa da nerabeek eurek parte hartzea udalekuen antolaketan eta euren gustuen eta interesen arabera ekintzak zehaztea.

Hain zuzen, Tximista elkar-teen helburua herriko nerabeei aisialdiaz gozatzeko dinamikak proposatzea da.

Mendi Asteko ospakizunak hasiko dituzte bihar

Orixol Mendizale Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko egun nagusia bihar izango dute. Orixeleko gailurrean elkartuko dira, 10:30ean, plaka aldatzeko; ondoren, 14:00etan talde argakia egingo dute plazan eta 15:00etan bazkaria izango dute. Musika-ekin amaituko dute eguna. Ospakizunek jarraipena izango dute astean zehar.

Kopla txapelketaz gozatzeko, eman izena hilaren 10erako

Aramaioko kopla txapelketaz gozatzeko aukera egongo da aurten, hirugarrenez. Ekainaren 17an izango da. Bi finalerdi jotuko dituzte: 18:30ean parkean eta 19:30ean plazan. Finala Dukienan izango da afariaren ondoren, 21:00. Afarirako txartelak 25 euroren truke daude salgai; eman izena hilaren 10a baino lehen, 688 62 70 89 telefonon.

Zarzuela, oraingoan, Aramaion

Musika Festibalak bestelako musika estiloak eta agertokiak izango ditu aurten. Ekainaren 10ean, Titania konpainiak *Chateau Margaux* zarzuela ekitaldia aurkeztuko du, kultura etxean, 19:00etan. Kultura teknikari Itxaso Aspiazuk dio aramaiorak zarzuela ikustera Arrasatera joaten direnez, jendeak gustura hartuko duela Aramaio-ko ekitaldia.



Chateau Margaux emanaldiko abeslariak. TITANIA TEATRO



JUAN LUIS NAFARRATE

Espainiako txapeldunorde

Espainiako Txapelketa eta Iberiar Txapelketa jokatu dituzte aste bukaeran Valladoliden. Aramaio-ko tiratzaileak ere han izan ziren, eta emaitza onak ekarri zituzten. Trap5 modalitatean, adibidez, beteranoen mailan, Enrique Ullibarrarana txapeldunorde izan zen. Podiumera igo zen, beraz, aramaiarra Valladoliden.

'Pauso berriak'-ekin udal zerbitzuetan praktikak

Maialen Biteri eskoriatzar gazteak Arkupen eta udaletxean dihardu lanean azken lau asteetan, Atzegik eta Gureak-ek kudeatzen duten egitasmoari esker, "oso gustura" ibili ere; egun erdiko jardunean, urtebeteko praktikaldia egingo du

Mirari Altube ARETXABALETA

Atzegik eta Gureakek abian jarritako ekimena da *Pauso berriak* eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta dago. Desgaitasun intelektuala duten gizarteratzea eta laneratzea ikusaraztea eta laguntzea du helburu, eta horri esker Maialen Biteri (Eskoriatza, 2001) praktikak egiten hasi da Aretxabaletako Udalarenak diren hainbat zerbitzutan.

Arkupen eta udaletxean

Egun erdiko lan jarduna Arkupen kultura etxean hasten du Biterik, goizetan; liburutegian egiten ditu zenbait lan eta harrerako langileekin beste hainbat. "Taldera oso ondo batu da eta inolako arazo barik egokitu da gure martxara", adierazi du Dani Sanchez harreragileak. Gero, udaletxera joaten da, eta han egiten ditu beste bi ordu. *Pauso berriak*-eko lan prestatzaile Isabel Negreira oñatiarrak



Jon Fernandez, Dani Sanchez, Isabel Negreira, Maialen Biteri eta Unai Elkoro. M.A.

laguntzen dio lehen asteotan, lanei eskua hartu artean, eta ondoren, bakarrik jardungo du.

Udala, gustura

2010ean jarri zen abian *Pauso berriak*, eta urtetik urtera pro-


grama sendotzen joan dela adierazi du Jon Fernandez Aranburu arduradunak: "Ia 300 pertsonak hartu dute parte ekimenean hamabi urtean eta gaur egun 160 bat enpresatan gaude; bai praktiketan, bai zerbitzu oku-

pazionala deituriko hitzarmen baten baitan, azken helburua enplegua izanik". Enpresarekin, lankideekin, familiarekin, prestatzaileekin eta teknikariekin sarean lan egiten dute "pertsonak beren gaitasunekin bat datozen lanak egin ditzaten eta lan-ingurunean benetako inklusioa bizi dezaten". Eta pozik agertu da Udalak bat egin duelako egitasmoarekin: "Gurekin harremanetan jarri ziren, eta guk programa aurkeztu orduko eman ziguten baiezkoa".

Unai Elkoro alkateak adierazi du aurretik beste saiakera bat egin zutela baina ez zuela aurrera egin orduan; oraingoan, oster, bai, eta pozik agertu da: "Maialen gustura ikusten dugu eta gu ere halaxe gaude. Pertsona horien gaitasunak kontuan hartuta lanak aurkitzea da kontua, eta beti daude horriendako modukoak". Gaineratu du urtebeteko praktikaldi horren ondoren aztertuko dutela jarraipena izango duen edo ez.

"Gustuko ditut liburutegiko lanak"

MAIALEN BITERI 'PAUSO BERRIAK'-EKO ERABILTZAILEA



M.A.

Eskoriatzako gazteak ia hilabete egin du lanean Aretxabaletako Udalarendako, eta oso gustura dabilela adierazi du.

Zein lan egiten duzu?

Arkupen egoten naiz lehenengo orduan; egunkari bila joaten naiz, liburutegian liburuak txukuntzen ditut eta alarma jartzen diet. Gero, 11:00etatik aurrera, udaletxera joaten naiz.

Ondo moldatu zara lan horietara?

Bai, bai. Udaletxeko lanak apur bat zailagoak dira, baina lagundu egiten didate. *Pauso berriak*-eko Isabel egoten da nirekin laguntzen eta oso ondo konpontzen gara.

Lan batzuk gustukoago dituzu, ezta?

Bai; liburutegian egiten ditudanak, adibidez. Kartelak jartzea herrian zehar ez zait hainbeste gustatzen, paseozalea ez naizelako ni eta asko ibili behar delako.

Udal zerbitzuen tasa sistema aldatzea eskatu du EH Bilduk

Proposatu du diru sarreraren arabeko kuotak ezartzea eta Ibarra kiroldegiko prezio batzuk jaistea

M.A. ARETXABALETA

"Udal zerbitzu guztiek herritar guztien esku" egon beharko luketela uste du EH Bilduk. Eta ez dela hori betetzen adierazi dute Ion Albizu, Naiara Olabarria eta Gorka Gabilondo zinegotziek: "Familia guztiek ez dituzte aukera berberak gure zerbitzu publikoetara sartzeko. Horregatik, sistema aldatu beharra dago". Kiroldegia tasa aipatu dute horren adibide gisa, eta udal tasa sistema iraultzeko lehenengo pausoa izan gura duen proposamena egin.

"Irailean indarrean" izatea

Komunikabideen aurrean azaldu dutenez, proposamenaren helburua da "familiak laguntzea", batetik, eta Udalak eskaintzen dituen "zerbitzuetatik kanpo inor ez geratzea", bestetik: "Horretarako, ezinbesteko ikusten dugu kiroldegiko prezio batzuk jaistea eta diru sarreraren arabeko kuota sistema ezartzea hainbat zerbitzutan". Hori lortzeko, honako proposamen hau egin dute: 23 urtetik beherako kuota guztietan %25eko jaitsiera aplikatzea; eta kiroldegian,

udalekuean, ludotekan eta beste hainbat ikastarotan baldintzapeko kuota sistema bat ezartzea.

Azken horretarako, bizikidetzaren unitateko kopurua kontuan hartuta diru-sarreraren arabeko hobariak proposatu dituzte, gehienez %90ekoa eta gutxienez %50ekoa. Eskatu dute ordenantza fiskalen aldaketa baten bidez onartzea hobari horiek: "Helburua da lehenbailehen egitea; ikasturte hasieran, irailan, indarrean egoteko". Eta gaineratu dute udazkenean onartuko diren 2023ko ordenantza fiskalarako adibide izatea dela asmoa, "behin betiko ezartzeko".

Kiroldegiko tasaren hobaria beste tasa batzuetara zabaltzea ere jarri dute mahai gainean: "Hori aztertzea proposatzen dugu, lasaiago".

GORA ETA BEHERA



Beste edukiontzi bat erre dute, Lausitta aldean

Edukiontzien erreketez ez dute etenik; azkena, joan den domekan, 06:30 bueltan. Lausitta kaleko autobus geltokitik gertu dagoen ontzi arinena izan zen erretakoa. Aurretik, maiatzaren 8an, Santa Kurtz kalean, Iturrigorri pilotalekuaren aurrealdean, erre zituzten.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Urteurrena borobiltzera datorren festa bihar

Jai giroa sortu gura du UDAk herriko kaleetan 75 urteko ibilbidea ospatzeko, eta ekitaldiz betetako egitaraua gertatu du: txapelketak, paella-jana eta txahal-mokadutxoak, kuadrillen arteko jokoak eta Gozategi taldearen kontzertua izango dira

Mirari Altube ARETXABALETAK

75. urteurrenaren pastela izango da biharko UDA Festa. Hala adierazi du Ainara Muga kudeatzaileak, antolatze lanetan diharduen taldearen izenean: "UDA herri guztiak egindako lanaren emaitza da. Horregatik, gure asmoa da zelaitik atera eta herrira gerturatzea, herritar guztiarekin batera ospatzeko". Eguraldia edozein izanda ere Herriko Plaza izango dela gune nagusia berretsi dute, eta jatekoak –herriko sukaldariak kordinatutako paella erraldoia eta txahal-mokadutxoak–, jokoak –kuadrillen artekoak eta mus txapelketak– eta Gozategiren kontzertuak bat egingo dute han.

Kirolari dagokionez, Ointxe saskibaloi elkartearekin batera hiruko txapelketa jokatu da eta dagoeneko hamabi taldek emana dute izena –egunean bertan ere eman daiteke–; Mitarteko kantxan izango dira partiduak. Gaztetxoek –2010 eta 2011 artean jaiotakoak–, oster, *street* futbola izango dute Kurtzebarri eskolako kantxan.

Elkartek dei berezia egin die herritarrei UDAREN koloreekin apain ditzaten leihoak, balkoiak eta komertzioak egunotan.

Erakusketa astelehena ezker

Bestetik, 75 urteko ibilbidea jasotzen duten argazkiak ikusgai jarriko dituzte Arkupen. Erakusketa digitala izango da –telebista bidez– eta astelehenetik –hilaren 6a– 30era bitartean izango da zabalik: "Elkarteen historiari errepaso ona emango diogu argazki zaharrekin zein berrieekin", dio. Izan ere, argazki asko jaso dituztela jakinarazi du Mugak: "Argazkiak biltzeko ahalegina egin dugu eta baten batek albuma ere eman digu dohaintzan. Horiek osatu ditugu guk ditugunekin". Ekaitz Zilarmendik izan du horiek guztiak antolatze ardurak.



75. urteurrenaren irudia jokalar baten kamisetan. M.A.

UDA Festa: egitaraua

- **10:00** Etxafuego jaurtiketa.
- **10:30** Saskibaloia: 3x3; ; Mitarteko kantxan.
- **10:30** *Street* futbola gaztetxoendako; Kurtzebarriko kantxan.
- **12:00** Erraldoiak eta buruhandiak, Arrasateko gaitariekin.
- **14:00** Paella erraldoia eta txahal-mokadutxoak; Herriko Plazan.
- **16:00** Mus txapelketa; Orlyk antolatuta.
- **16:00** Kuadrillen arteko jokoak; Loreturekin.
- **20:00** Gozategiren kontzertua.

"Pozik" orain artekoarekin

75. urteurrenari eskainitako urtea aurrera doa, eta nekatua baina pozik agertu da 2021eko irailetik hona egindako guztia- rekin: "Gustura gaude, askotari-ko kontuak jasotzen dituen

'Ikazkin trail' lasterketa

Urteurrenaren aitzakiapean, mendi lasterketa antolatuko du Aretxabaleta kirol elkarteak, herrian egingo den lehenengoa, hain zuzen ere. *Ikazkin trail* izena jarri diote eta irailaren 10ean izango da. Lehenengo datuak ematen hasi da UDA sare sozialen bitartez: 21 kilometro izango ditu eta 1.200 metroko malda. Eta ibilbidearen argazki batzuk ere erakutsi dituzte; Degurixa ingurua, esaterako. Izena emateko epea zabaltear dagoela adierazi dute elkartetik.

egitarau osatzea lortu dugulako; baita jendearen erantzuna bikaina izaten dabilelako ere. Orain, zapatuko jaia dugu aurretik, guretako oso garrantzitsua; ea borobiltzen dugun horrekin guztia".



MIRARI ALTUBE

Askotariko dantzak kalean

Jaiki elkarteak, Udaren laguntzarekin, antolatutako *Dantzastea*-k girotu ditu herriko kaleak egunotan. Besteak beste, Kuba aldeko dantzen, aretokoan, bat-batekoan eta euskal dantzen erakustaldiak izan dira. Herritarrek gertutik jarraitu dituzte emanaldiak eta txalo zaparradekin eskertu dute dantzarien trebetasuna eta ahalegina.

Pirinioak argiztatzera joateko izen-emate epea zabalik dago

Herrion autodeterminazio eskubidearen alde Pirinioak argiztatzera leloarekin 400 mendi tontor argiztatzea da Gure Eskuren asmoa, uztailaren 2an. Euskal Herriko eta Kataluniako entitate sozialek elkarlanean antolatutako ekimena da eta herritarrek parte hartzea gonbidatu dituzte antolatzaileek.

Aretxabaletarrei Astate mendia (1.022 metro) argiztatzea egokitu zaie. Horren gaineko xehetasunak gura dituenak, izena eman edo kamiseta erosi, herriko Gure Eskuko kideak Durana kaleko UDAREN lokalean izango dira gaur, ekainak 3, eta datorren eguazten eta egubakoitzean (19:00-20:30).

Berdeguneko proiektuen bozketa ekainaren 13tik 17ra

Ibarra kiroldegaren aurrealdeko zelaian zer egin erabakitze-ko parte-hartze prozesua jarri du abian Udalak. Hainbat aukera mahai-ganean izan ostean, hiru proiektuen artean hautatu beharko dute herritarrek. Botoa emateko epea zabalduko dute ekainaren 13an, astelehena, eta 17ra arte egongo da aukera, Arkupen.

Murruixoren mendi martxa ekainaren 12an izango da

Lau urteren ostean bueltan dator Murruixoko mendizale elkarteak antolatutako mendi martxa, hamaikagarrena, hain zuzen ere. Ekainaren 12an izango da, domeka, eta 28 kilometro pasatxo egingo dituzte mendizaleek.

Herriko Plazatik abiatuko dira (07:00) eta izena egunean, hain bertan eman behar da. Urkulu- ra joko dute eta handik Ugastegira; GR-121 ibilbidea hartuta Arantzazu aldera egingo dute lehenengo Degurixara itzultzeko gero, eta Kurtzebarritik bueltan jaitsiko dira Aretxabaletara. Anoa postu bi egongo dira; bata, ohi legez, Ugastegin –8. kilometroa– eta bestea Degurixan –19. kilometroan–.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

Ikastolak herriarekin bat egiteko festa zapatuan

Arizmendi ikastolak antolatutako 24. Ferixie ospatuko da zapatuan, eta, urtero moduan, askotariko produktuak batuko ditu azokak. Guztira, 90 postu izango dira, bertako ekoizle eta artisauek jarritakoak eta kanpotik datozenek ezarritakoak

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Arizmendi ikastolak antolatutako Ferixie zapatu honetan ospatuko da. Azken bi urteetan Arizmendiko Jose Arana guneko irakasleek, haurrek eta gurasoek jaiegunari nolabaiteko keinua egin dioten arren, ekin-tza xume batzuekin, aurtengoa 24. edizioa izango da, eta, aurreikuspen handiekin, gogoz daude egunerako.

Eskoriatzako Ferixie Jose Arana gunea hasi zen antolatzen, eta hasierako helburu bera mantentzen dutela adierazi du Jon Kortazarrek, Arizmendiko irakasleak: "Ikastola herrira zabaltzea zen hasierako asmoa, eta bide horretan antolatzen jarraitzen dugu. Urte asko dira jaia ospatzen dela, eta ikastola herrira zabaltzea, ikastolak herrian parte hartzea eta herritar guztiek ikastolarekin bat eginez egun ederra pasatzea da jai honen funtsa, besteak beste".

90 postu, guztira

Ohi bezala hasiko da eguna, etxafuego jaurtiketarekin eta txistularien kalejirarekin, eta, Eskoriatzako talogileek lehengo talo gozoak prestatzen hasi orduko, bailarako ekoizle eta artisauek zein kanpotik etorritakoek postuak irekiko dituz-

te, 10:00etan. "Guztira, 90 postu izango dira; horietatik 60 artisauek izango dira. Egurrekin landutako produktuak ekarriko dituzte, bitxiak, poltsak, arropa, bestelako tresnak... Eta 30 postulari, berriz, baserriko produktu eta elikagaiekin egongo dira; esaterako, eztia, gaztak, barazkiak, ogia, marmeladak... egongo dira. Euskal Herri osotik etorriko dira, eta 90 postulari horietatik 25 inguru eskoriatzar-rrak izango dira. Oso ondo dago parte-hartze handia izatea, baina pozgarria da halako parte-har-

tzea izatea eskoriatzarren partetik", adierazi du Jon Kortazarrek, Arizmendi ikastolako irakasleak.

Lehiaketak, azokaren parte

Azokaz gain, txorimalo lehiaketa ere egingo da, Jose Arana ikastola alboan, nerabe eta gaztetxoagoentzat klasikoa dena. Horrekin batera, haurrentzako tailerrak eta puzgarriak ere izango dira ikastetxeko patioan, eta, azken edizioetan egin duten moduan, oraingoan ere ez du hutsik egingo gazta lehiaketak.



Jon Kortazar eta Lorea Erzila, Arizmendiko irakasleak, Ferixako kartelarekin. I. BELOKI

Gazta-saltzaile guztiek hartuko dute parte, eta epaimahaiak gazta onena sarituko du. Gainera, epaimahaiakideek ez ezik, gazta postuetara bertaratzen diren herritarrek ere gaztak probatzeko aukera izango dute.

Gazta txapelketaz gain, Eskoriatzan berezia den beste lehiaketa bat ere izango da: txapel-jaurtiketa lehiaketa. "Ikusmin handia duen hitzordua izaten da. Bazkalostean izaten da hori, eta Jose Arana kalean, Fernando Eskoriatza plaza aurrean, jendetza batzen da lehiaketa bitxi hau ikusteko eta parte hartzeko", adierazi du Kortazarrek.

Larrain dantza, berritasun

Aurtengo programan bada berezitasunik. Izan ere, Eskoriatzako herritar talde batek sustatuta eta dantza-taldearekin harremanetan jarrita, larrain dantza ikastaroa izan dute interesdunek, hiru astelehenetan jarraian, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Aste honetan azken saioa egin dute, eta gertu daude bertan aritu direnak zapatuan Ferixa Egunean dantzara ateratzeko Fernando Eskoriatza plazara.

Oihane Vicente dantza irakaslearen gidaritzapean aritu diren zenbait partaidek bazekiten dantza aurretik, eta errepaso gisa aritu dira larrain dantza ikastaroan; beste batzuk, aldiz, hutsetik hasi dira, eta, lau saio nahikoa izan ez diren arren dantza bere osotasunean ikasteko, aurrerapausoa eman eta ikasi ahal izan dutena praktikan jarriko dute plaza aurrean, lotsa barik; izan ere, ez da dantza-saio profesionala: herritik sortua herriarentzako eta ondo pasatzeko saioa da.

Ferixa Eguneko egitaraua

Zapatua, ekainak 4

- **09:00** Etxafuego jaurtiketa.
- **09:30** Txistulariekin kalejira.
- **10:00** Ferixaren hasiera, baserriko produktu eta elikagaia, artisautza, tresneria.
- **10:15** 23. txorimalo lehiaketa Jose Arana ikastola alboan, erreka ertzean.
- **11:00** Haur eta gazteentzako tailerrak eta puzgarriak ikastolako jolastokian.
- **11:00** XII. gazta dastaketa eta txapelketa Santa Marina plazan.
- **11:30** Kalejira trikitilarekin.
- **12:30** Eskoriatzako dantza taldea, Gorosarri plazan.
- **14:00** Txorimalo lehiaketaren sari banaketa eta errifaren zozketa.
- **15:00** Zuk ekarri zuk jan bazkaria plazan.
- **18:30** VII. txapel jaurtiketa txapelketa.
- **19:30** Larrain dantza.

EKOIZLEEN ETA ARTISAUEN ARTEAN, 25 POSTU ESKORIATZARRENAK IZANGO DIRA

Seme-alaben emozioak zaintzeko hitzaldi irekia

Ekainaren 8an, 18:00etan, kultura etxean, Donna Apellaniz terapeutak apirilaren 27an emandako hitzaldiaren jarraipena egingo du. Treba Gurasoak kanpainaren bueltan antolatuta, *Emozioen garrantzia familian* hitzaldia haurren eta nerabeen gurasoei zuzenduta egongo da. Saioa euskaraz izango da, eta ez da aurrez izenik eman behar.

Ausartak taldeak bi emanaldi egingo ditu asteburuan

'La caja tonta' ikuskizuneko sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian erosi daitezke, bost eurotan

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako antzerkilarien ikuskizun hori ez da berria. Duela sei urte egin zuten herrian, eta, orduko harrera "oso ona" izan zenez, berriz egitea erabaki dute. Hauxe adierazi du Mari

Carmen Fernandezek, Ausartak antzerki taldeko kideak: "Normalean, egun berean bi saio eskaini izan ditugu Eskoriatzan, herritarren artean arrakasta izaten dugulako, eta inor ez gertatzeko saioa ikusi barik. Ez

gara profesionalak, baina gustura egiten dugu, eta, egun berean bi saio eskaintzea gogorra denez, oraingo honetan, bi egunean egitea erabaki dugu. Hau da, ekainaren 4an, zapatuan, 19:00etan, eta ekainaren 5ean, domekan, ordu eta leku berean, Zaldibar antzokian".

Bere egunean *La caja tonta* lana Eskoriatzan egin zutenean ikusi ahal izan zutenek errepikatze aukera izango dute, beraz, eta lehen aldiz ikusi nahi dutenek umorezko saio apartaz

disfrutatu ahal izango dute. Izan ere, telebistako saioen gaineko umorezko kritika egingo dute antzezlanean. Edukirik gabeko zabor-programak, egunerokotasunean buruan sartzen dituzten ideien gainekoak berba izanda. Lan horretan arituko dira Arantxa Lopez de Letona zuzendariaren gidaritzapean Emi Izurra, Katy Pizarro, Maribi Carrillo, Mari Carmen Fernandez, Marijo Fernandez, Paquita Ramos eta Amaia Arrizabalaga artista eskoriatzarrek.

Eskoriatzako buztinari balioa emateko lana

June Larzabal eskoriatzarrak, Sorkuntza eta Diseinua tituludunak, Gradu Amaierako Lanerako sukaldaritzako askotariko ontziak diseinatu ditu, Zuian (Araba), Elosun (Legutio), Aretxabaletan eta Eskoriatzan jasotako tokiko buztinak erabiliz

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA EHUko Arte Ederren Fakultateko Sorkuntza eta Diseinuko ikasle June Larzabalen Gradu Amaierako lana da *Lurlau*, sukaldaritzako ontziak diseinatze-ko proiektua, eta nota gorena-rekin kalifikatu dute (10). Larzabalek zehazten duenez, "euskal buztintzaren tradizioa iker-tuz, lanbidearen jatorria eta artisau-prozesua arakatu eta diseinuaren tradizio berrie-kin konbinatu nahi ditu proiektuak, "artisautzaren eta garaikidearen arteko harremana sortzeko". Lau udalerritan jasotako buztinekin platerak eginda, orain Zeramikako Masterra eginda, Master amaierako lanean proiektuari jarraipena ematen ari da.

Zubiateri balioa emateko

Proiektuaren ideien jatorria-ri buruz galdetuta, Eskoriatzan, Zubiaren gordetzen den zera-mika zaharreko labea dagoelako abiatu zela dio Larzabalek, eta, betidanik interesa izanda, he-rriko buztina hartu eta zerbait egitea pentsatu zuela. "Zubiate labearen gaineko ikerketa abian jarri nuen, pentsatuta Eskoria-tzan labea izanda buztin ona ere egongo zela herrian. Buztina jaso nuen Apotzaga elizatera bidean, bazter batean, eta lagin batzuk labean sartu nituen ten-peratura ezberdinetan, gero plateren diseinuekin hasteko..."

Plateren ezaugarriak

Plater sakonen sorta bat da Larzabalek egin duena. Molde berean egindakoak, baina el-karren artean pixka bat ezber-dinak; hau da, hainbat kolore-tan diseinatuak eta elaborazio-rako erabili den eremu bakoit-zeko lokatzaren arabera alda-tzen direnak. Ere-mu bakoitzeko buztinaren aldake-tak esperimentatzeko adibideak direla dio Larzabalek. "Ere-muaren eta lurraren artean



June Larzabal lau udalerritako zeramikazko platerekin. JUNE LARZABAL

diferentzia dago, eta, tenpera-tura desberdinetan eta lehortze desberdinekin laberatzen di-renez, kolore desberdinak eta emaitza fisiko desberdinak dituzte. Proba- eta erre-reperimentu bat da, zeinetan tonu diferentziala ikustea nahi nuen".

Ikerketa sakona

Proiektuaren ikerketa fasean, Eskoriatzan, Zubiate labearen albotik edo autobidearen sarre-ra ingurutik hartzen zela buz-tina dago idatzita, eta erreferen-tzia bibliografikoak batzen eta

urratsak egiten bilegunak ere izan dituela adierazi du Larza-balek: "Saioa Altzua Ibarraundi museo-ko langilearekin egon nintzen, eta, museoa ezagutzeaz batera, zenbait azalpen eman zizkidan. Ibarraundi museoan jasotakoez batera, Ollerietako (Elosu, Araba) Euskal Buztin-gintzaren Museoan ere izan nintzen, eta bertako Blanka Gomez de Segura buztintzileare-kin buztin motei buruzko irakaspenak jaso nituen, eta piezak sortzeko prozesuan la-gundu zidan".



Larzabalek egindako platerak eta laginak. JUNE LARZABAL

LEINTZ GATZAGA | 23



Gatz Museoko harreragunean musikariak entseatzen. DORLETA ELKOROBARRUTIA

Gatz Bidearen gaineko 'Hegoko iparra' kantua aurkeztuko dute

Domekan, Eskoriatzatik Gatzagarainoko bidea oinez egingo dute, eta bazkalostean aurkeztuko dute abestia

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Gatz Bidearen bueltan sortu berri duten *Hegoko iparra* kan-tua aurkeztuko dute domekan Leintz Lotzen egitasmoko kideek. Horren aurretik, baina, oinez Eskoriatzatik Gatzagara oinez igotzeko deialdia irekia egin dute, eta animatzen denarentzat ura, sagardoa eta ardoa jarriko dute Leintz Lotzen taldekoek. Horrekin batera, mahaiak eta aulkia jarriko dituzte norberak eramandako bazkaria egiteko, 14:15 bueltan, plazan.

Abestiaren aurkezpenean, kan-tuari musika eta ahotsa jarri

dioten musikari guztiak bertan izango dira, eta hitzak banatuko dituzte bertaratuek abesteko; eta, horrekin batera, beste hi-ru-lau pieza eskainiko dituzte. Konpositorea Aitor Zilardegi izan da eta bailarako hainbat musikarirekin egin dute kantua; tartean, lau gatzagarrekin.

Ekarpenak jasotzeko panela

Kantua aurkeztearekin batera, panel bat jarriko dute, bidea egiten dutenek iritziak, ekarpe-nak eta abar egin ditzaten eta, horrela, Gatz Bidean zehar egin beharrekoak batzeko.

GORA ETA BEHERA



Auzolanean, sastraka garbiketa pinudian

Eskoriatza eta Gatzaga artean, koloretako hesiak dauden eremuan, sastrakak garbitu dituzte, Gatz Bideko ibilbide zati batean lokatz asko izaten delako-eta bidea aldatzeko.



PENTEKOSTEAK 2022



Plaza jendez beteta jaien hasierako ekitaldian, 2018an. GOIENA



Pentekosteak amaitzean desmuntatuko dituzte barrakak aurten. A.G.

Aspace eta Bitorianatxo prest daude Pentekosteei hasiera emateko

Goienak jarraipen zabala egingo die Pentekoste jaiari. Gaur, esaterako, Bitorianatxoren jaitsiera zuzenean jarraitu ahal izango da Goiena telebistan eta 'Goiena.eus'-en, eta datozen egunetan zuzeneko eta saio bereziak emango dira

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Gaur lehertuko da festa Bergaran, Aspace elkarteko kideek jaurtiko duten suziariarekin eta Bitorianatxoren jaitsierarekin. 50. urteurrena ari da ospatzen elkarteak, eta Pentekosteetan

ere protagonista izango da. Agustin Toledok, Aritz Bikuñak eta Eneko Ziarsolok botako dute txapligua, baina kide guztientzako "berri pozgarria da". Denen izenean botako dutela suziria diote. "Ikus gaitzaten

nahi dugu. Garrantzitsua da; izan ere, jende askorendako Aspace beste mundu bat da, eta ozen esan nahi dugu ez garela gaixoak. Garuneko paralisia dugu; ez da gaixotasun bat, lesio bat baizik, eta Aspa-

ce aspalditik dago Bergaran", dio Aritz Bikuñak.

Denek asko gozatzea eta dena giro onean joatea espero dute, "pertsonetikiko errespetuz eta inolakorik erasorik gabe. Izan daitezela denok gozatzeko moduko jaiak!". Aurten, gainera, Ainara Uribesalgo izango da hezur-haragizko Bitorianatxo.

Haurrak, festan murgilduta

Barrakak martxan daude pasaden egubakoitzetik eta Pentekoste jaiak amaituta desmuntatuko dira. Inklusioaren aldeko apustua egin du Bergarako Udalak eta hilaren 5ean eta 6an ez da musikarik jarriko barraketan 17:00etatik 19:00etara. Horrela, behar bereziak dituzten haurrek ere gozatzeko aukera izango dute.

Bidaian prezioari dagokionez, txartel batek 2,20 euro balio du; hamar euro seiko bonuak. Hala ere, hilaren 6an eta 8an, 1,30 euroko prezioa izango du bidaia bakoitzak.

Aparkalekuak eta trafikoa

Egun hauetan aparkaleku batzuk ez dira erabilgarri egongo, eta trafikoa aldaketak egongo dira. Alde batetik, barrakak ohiko

hilerriko aparkalekuko eremua hartu dute, baina, ohi bezala, Matxiategi kalea aparkatzeko gaitu da. Poligonoan ere aparkatzeko gunean egongo da, eta jaiegunetan, eskolako patioa ere zabalik egongo da. Txosnagunea, berriz, ekainaren 9an amaituko dute desmuntatzen.

Matxiategi kalean postuak muntatzen hasiko dira gaur, eta horiek muntatu bitartean, herri barrura doan erre bat itxita egongo da. Hala ere, autobusek igarotzeko aukera izango dute.

Goitibeheren ekitaldia ekainaren 5ean egingo da, eta ordu-rako bide guztia autoz hustu behar da. San Martzialera bidean trafikoa moztuta egongo da egun horretan, 15:30etik 18:30era.

Txosnak, lekualdatuta

Xaxau jai-herrikoien konpartsak prest dauka dagoeneko egitaraua. Aurten, ordea, Oxirondoko aparkalekuan egongo dira txosnak. Andoni Etxezarreta Xaxauko kideak adierazi du lekualdatze horrek "beldur pixka bat" ematen diela. "Poteo-gunetik urrunago gaude aurten. Berez, zubia igaro eta bi minutuko ibilalditxo egitea da. Hala ere, positibo gaude, eta badakigu jendea ekin-tzetara animatuko dela".

Halaber, antolaketaarako jendea aurkitzea kostatzen ari zaie. "Ikusten da jende beharra dagoela. Horrela jarraituz gero, etorkizun batera begira, arazoak edukiko ditugu". Jendea ez animatzearen arrazoia "ezjakintasuna" dela uste du Etxezarretak:

**ANTOLAKETARAKO
JENDEA BATZEA
KOSTATZEN ARI
ZAIOLA BAIEZTATU DU
XAXAU KONPARTSAK**

@cenarro
cold forming specialists
www.ecenarro.com

Aurten bai! Ondo ibili jaiak!





ZubiKua

Aurten bai! Gera Bergarako jaiak!

Barrenkalea 24 • BERGARA • 943 76 10 16

"Txosnagunea antolatzen atzean ze lan dagoen ez da jakiten, eta horrek atzera eramaten du pertsona".

Bestalde, Pentekosteetan San Martin plazan egoten den txosnaren ardura Larramendiko Arnasa taldeak izango du aurrean, egubakoitzetik martitzenera; paper-fabriken hondakinak tratatzeko Larramendiko industrialdeko h partzelan aurreikusita dagoen plantaren aurka egiteko plataformak.

Erasorik gabeko jaiak

Txosnagunerako protokoloa landu dute Martxanterak talde feministak eta Xaxauk. Horretaz gain, txoko morea ere jarriko dute hiru egunetan: egubakoitzean, 20:00etatik 22:30era; zapatuan, 18:00etatik 20:00etara eta domekan, 17:00etatik 19:00etara.

Halaber, Bergarako Udalak adierazi du egunerokoan lanean ari dela "Bergara herri inklusi-boa, pertsonen arteko berdintasunean oinarritutakoa izan dadin, eta herri feministarantz bidea urratzen, indarkeria matxista prebenitzeko lan eginez eta sortzen diren kasuak artatuz".

Gainera, kartelak jarriko dira herrian zehar *Jaietan ere ez dugu inongo erasorik onartuko!* lelopean, "erasoen edo erasotzaileen konplize ez izatera dei egitez, eta zaintza kolektiborako gonbidapena eginez". Udalak jakinarazi du tabernariei ere helarazi zaizkiela eraso egoerak kudeatzen laguntzeko aholkuak.

Ingurukoak errespetatzeko eta zaintzeko dei egin die Udalak herritarrei nahiz kanpotik etorriko direnei, "jaiegunak eta guneak espazio seguruak eta askeak izan daitezen".



Maite Aristegi, Gorka Artola eta Ainhoa Lete, eguazteneko agerraldian. T.M.

Bergarako zezenak ere prest

Lau eguneko egitaraua prestatu du Bergarako Zezenak ganadutegiak; zapatutik martitzenera. Hirurogei animaliatik gora aterako direla zezen-plazara baieztatu du Iñigo Almorzak. Saio bakoitzerako zezen ezberdinak ateratzen dituzte. Almorzak adierazi duenez, "errekortadoreentzako zezen garbiak ateratzen dira, inoiz zezen-plazara atera ez direnak". Litekeena da pandemiako azken bi urteek animaliei ere eragin izana, bi urte "asko" baitira animalia baten bizitzan: "Txiki izatetik handi izatera pasatzen dira, edo sasoi onean egotetik heldu izatera. Beraz, handicap hori daukagu.



Jaien gaineko informazio guztirako, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Animaliak ezagutzen ditugun arren, ez dakigu zehazki nola jokatu duten".

Olinpiadak eta errekortadore eskola ibiltariak harrera ona izatea aurreikusten du Almorzak; hogeitakudrilla inguruk parte hartzea espero duelako, eta eskola ibiltarian haur askok hartzen baitu parte: "Azken festetan, bederatzi mila lagun igaro ziren zezen-plazatik, eta gehienak haurrak izan ziren".

Autobus zerbitzu bereziak

Pentekosteetan, gaueko autobus zerbitzu bereziak egongo dira. Ekainaren 3an, Arrasaterako noranzkoan bi orduko behin aterako dira autobusak Bergararik: 00:30ean, 02:30ean, 04:30ean eta 06:30ean. Kontuan izateko, 00:30ean eta 04:30ean ateratzen diren autobusek Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere egingo dute geldialdia. Ekainaren 4an, aldiz, ohiko autobus zerbitzua egongo da linea horretan.

Antzuola-Bergara-Elgeta arteko linean, ekainaren 3an eta 4an, 00:30ean, 01:30ean, 02:30ean, 03:30ean eta 05:30ean aterako dira autobusak Antzuolatik. 04:40an Bergararik aterako da autobusa Elgetarantz.

**INGURUKOAK
ERRESPETATZEKO ETA
ZAINTEKO DEI EGIN
DIE UDALAK JAIETARA
ETORTZEN DIRENEI**

goiena
enpresak

goiena
seguru bizi

Inbisa Negozio Gunea (Gamarra)
Zumar Etorbidea 1, 229 bulegoa
01013 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 00 00 71 • Fax: 945 00 00 72

goiena@goiensaasegurak.com
www.segurosgoiena.com

Antso Abarka 6, behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 59 81
Fax: 943 79 39 18

Zurradero 2
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 65
Fax: 943 76 40 37

**Aurten bai!
Disfrutatu jaiak!**

Sastreria Mujika

Gizon eta gazte moda
Osagarriak
Ezkontza-trajeetan espezializatuak

*Aurten bai!!!...
Ondo pasatu
Bergarako jaiak!!!*

Barrenkale, 1 • 943 76 29 91
Instagram @sastreriamujika



altube



**Ondo pasa
jaiak!**

Ugarte kalea 14 eta 22 • 943 76 22 74

Bitorianatxoren jaitsiera, zuzenean

Pentekosteen jarraipen zabala egingo du Goienak. Gaur, zuzenean San Martin plazatik, *Hemen Debagoiena jaietan* saio berezia emango da telebistan eta *Goiena.eus*-en, 19:00etan hasita. Goiatz Arana izango da gidari, eta Oihana Elortza eta Aitor Agiriano murgilduko dira giroan.

Kuadrillen arteko XII. olinpiadak ere zuzenean izango dira, ekainaren 6an, 12:00etan hasita. Errekortadoreen txapelketa, berriz, ekainaren 7an, 19:00etan izango da. Bi egun horietan, Bergarako jaiak eskainitako tarte berezia izango da ikusgai. Eta, azkenik, martitzenean, 21:00etan, Bergarako jaiak errepasoa egingo dien saio berezia emango da. Hau guztia, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en.

RPS: 89/20

Felsinee
www.felsinee.net

*Ondo pasa Pentekoste jaiak!
Eskeerik asko!*

IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA • 20570 BERGARA
• Tel.: 943 53 44 53

Ortuak: araudia onartuta, udan zehar erabilgarri

Epe barruan doaz San Joxepe gaineko eremuan ortu komunitarioak jartzeko obrak, eta araudirako zein izen-ematerako prozesuak atzeratu badira ere, espero dute ortuak udan erabilgarri izatea; 90 partzela izango dira eta oinezkoendako bide berri bat irekiko dute

Jokin Bereziartua BERGARA

San Joxepe gaineko eremuan, San Martzialera bidean, jarriko dituzten ortu komunitarioak errealitate izango dira laster, udan zehar erabilgarri egotea espero du-eta Udalak. Halaxe eman zuen aditzera EH Bilduko bozeramaile Nagore Inurrategik asteleheneko osoko bilkuran, ortuotarako araudiari hasierako onarpena emanda. Ekimenarekin, araudian jasotzen denez, "aisialdi aktiborako eta inklusiborako topagune bat" sustatu nahi dute: "Gizatalde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak nahiz belaunaldi ezberdinen arteko trukea bultzatu nahi dira; eta, aldi berean, nekazaritza ekologikoari bultzada bat eman". Horregatik, besteak beste, partzela jasotzen duten herritarrek elkarte bat sortu beharko dute, eta baita kudeaketaren udal arduradunarekin zuzeneko harremana izateko pertsona bat izendatu ere. Bozeramaile hori erabiltzaileen zalantzak, arazoak edota bestelakoak jasotzeaz arduratuko da.

Eztabaida kokapenarekin

EH Bilduren aldeko botoekin (9) eta EAJren (6) zein alderdi sozialistaren (1) abstentzioarekin onartu zen araudia; 30 lanegunez egongo da jendaurrean ikusgai,



Ortuotarako lanak epe barruan doaz; argazkia goiko trenbidetik dago aterata. E. AZKARATE

eta zuzenketarik jasotzen ez badu behin betiko onartuko dute. Udal Gobernuaren arabera, araudiaren onarpenarekin "urrats garrantzitsu bat" egingo da "aspaldiko eskaera bat" betetzeko. Araudia onartu beharra zegoen izen-emate prozesua hasteko, eta prozesu hori atzeratu bada ere obrak aurreikusi moduan doazela dio EH Bilduk. "Bagatoz urteetako eskaera bati erantzutera. Pozgarria da halako proiektu bat aurrera ateratzea; izen-emate prozesua atzeratu bada ere obrak martxan eta epeen

barruan daudela jakinarazi nahi diet herritarrei. Uda bueltarako ortuak gertu egongo dira", dio Inurrategik.

EAJ eta alderdi sozialista ados daude araudiarekin, baina ez aukeratu den kokalekuarekin. "Abstentziora jo dugu gure kokapena Bolua zelako, malda ondoko eremua; proiektu honek ez luke malda erabat egonkortuko, baina lagunduko luke. Hala ere, gaur [astelehena] onartu diren ordenantzetan egin ditugu gure ekarpenak eta ados gaude araudiarekin", dio EAJko eledun

Maite Agirrek. PSE-EEko Alberto Alonsok kokalekuaz gehiago eztabaidatu beharko zatekeela deritzo: "Ortuen kokapena aukeratzeko partaidetza gehiago egon zitekeen eta oposizioarekin adosteko ahalegin handiagoak egin zitezkeen. Araudia ondo ikusten dugu, baina kokapenaren gaineko debatea beste bat izan zitekeen". Eztabaida unean Gorka Artola alkateak hitz hartu zuen eta adierazi zuen, besteak beste, uste zuela kokapenaren eztabaida "gaindituta" zegoela. San Joxepeko eremua lehenetsi izana arrazoi zuen esanez Udalaren jabetzako eremua dela -hirigunetik Udalaren jabetzakoak diren lurak oso eskasak dira, eta ez zegoen apenas beste alternatibarik- eta baldintzak betetzen dituela ahalik eta epe motzenean martxan izateko. "Asko poztzen gara epe oso motzean herritarrek ortu horiek eskuragarri izateko aukera izango dutelako".

Boluko malda ez da Udalarena

Boluko kokalekua aukeratu ez izanaren arrazoiak dira, EH Bilduren arabera, San Joxepekoak ez bezala Boluko lurak ez direla udal jabetzakoak eta horrek atzeratu egingo lukeela proiektua bertan gauzatzea. Nagore Inurrategik gogora ekarri zuen ortuen proiektua lantzeko bilera irekietan herritarrek ahalik eta azkarren egitea eskatu izan dutela, eta bestetik, kokapen horretarako aurreko legealdian egindako proiektuan ez zela Boluko maldaren egonkortzerako azterketarik jasotzen.

90 partzela, 22.282 metro koadro
90 partzela aurreikusten dira 22.282 metro koadrotan, eta eremuak esku ahur baten for-

ma izango du. Hala, baratzeetarako sarbidea sima kokatua zegoen eremu lauaren inguruan eraikitzen ari diren baratzezainen etxolak markatuko du. Ortuotara heltzeko bi bide egongo dira: batetik, San Martzialera edo ur depositura doan errepidea izango da autoz zein oinez iristeko aukera emango duena. Bertan lau ibilgailurentzako aparkalekua eta bizikletak uzteko aparkalekuak jarriko dituzte. Bestetik, Ibargarai kalean ibaiaz gaindi dagoen bide magaletik abiatuko den bidea zabalduko da, oinezkoentzat. Proiektuaren exekuzioa K1 Ekopaisaia enpresari esleitu zitzaion, 222.870 euroko aurrekontuarekin -BEZa barne-.

Hilabete pasa izena emateko

Ortuak herritar guztien erabilerarako pentsatuta daude, eta irizpide jasangarriak izango ditu kontuan. Horretarako, oinarriko ur, materia organiko eta biltegi guneak "auzokidetasun irizpideak" jarraituz antolatuko dira, eta, ondorioz, baratze eremu barruan hainbat elementu komun egongo dira; tartean, etxola: jabeen aldagela eta lanabesendako biltegiak egongo dira. Era berean, etxolak topaleku funtzioa ere izango du eta lanabesak zein barazkiak garbitzeko aska bat ere izango du. Araudia behin betiko onartzeko 30 lanegun pasatu behar direnez, izena emateko prozesua uztailean abiatuko dute.

ARAUDIAREKIN ADOS DAUDE EAJ ETA PSE-EE, BAINA EZ KOKAPENAREKIN; ABSTENITU EGIN ZIREN

Lorenzo Askasibarrek eskultura bat oparitu dio Bergarako herriari

Lorenzo Askasibar eskultoreak dohaintzan eman dio Udalari Jose Migel Barandiaran protagonista duen eskultura. Udal ordezkariak "sorpresaz" jaso zuten oparia eta esker on hitzak izan dituzte Elgetan jaio arren Bergararekin harreman estua duen artistarentzat. Udaletxeko lehen solairuan dago eskultura, beste leku bat aukeratu artean.



Askasibarren eskultura udaletxean. J.B.

San Joxepe elkarteak hiru hitzordu datozen egunetarako

San Joxeperen egoitzan antolatu ohi duten -Dolor + Vida ikastaroa ekainaren 13an itzuliko da. Bestalde, San Joxepeko abesbatzak kide berriak behar dituela-eta bilera deitu dute ekainaren 15erako, egoitzan bertan (17:00). Horrez gain, irteera antolatu dute Iruña-Veleia aztarnategira ekainaren 22rako; ekainaren 10erako eman behar da izena (30 euro).

OHARRAK

Euskaraldia dinamizatzeko lan eskaintza

Lan kontratua uztailearen 1etik abenduaren 31ra arte izango da, egunean zortzi ordukoa. Curriculumak bidaltzeko azken eguna ekainaren 17a da: jardun@topagunea.eus edo 605 71 24 69.

Enpresa ekintzaileendako dirulaguntzak

Enpresa berriek lokala alokatzeko 20.000 euroko dirulaguntza eta herrian finkatutako enpresendako Eragin programako 30.000 euroko laguntzak emango dira; eskaerak, abenduaren 1era arte.

Bergarako Orfeoien batzar orokorra

Orfeoiko bazkide guztiak deitu dituzte batzarrerara; ekainaren 14an egingo dute, Santa Marinako sakristauaren etxean (20:30).



Ordenantza fiskalak %3,3ko igoeraz doitzeko proposamenaren bozketa; EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren. JOKIN BEREZIARTUA

Aurrekontuko akordioak betetzeko, ia bi milioi euro

EH Bilduk eta EAJk 2022ko aurrekontuaren negoziazioan adostutako proiektuak garatzeko 1.902.200 euroko kreditu aldaketa onartu zen astelehenean; Boluko malda egonkortzea eta hileta zibiletarako gune bat egokitzea daude "lehentasunezko" inbertsio horien artean

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurrekontuaren negoziazioan EH Bilduren Udal Gobernuak EAJrekin adostutako konpromisoak betetzeko 1.902.200 euroko kreditu aldaketa bat onartu zen astelehenean osoko bilkuran. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin (15) eta PSE-EEren abstentzioarekin (1) onartu zen kreditu aldaketa; bi alderdi na-

gusiek aurrekontuetarako egin zuten hitzarmenean jasotako proiektuak eta lehentasunez aurrera atera behar diren hainbat proiektu gauzatzeko izango da diru-partida hori, iazko gerakina -1.300.000 euro inguru- eta 500.000 euroko mailegu baten batura dena. Diru partida horretan jasotzen dira, besteak beste, honako proiektu hauek: Boluko mal-

da, hilerriko kapera, Martoko proiektua idaztea, hileta zibiletarako espazioa, San Blasko bigurutzeko eta energia berriztagarrien proiektua.

Boluko maldaren kontratazioa

2017ko urtarrilean behera etorri zen Boluko mendi magala egonkortzeko lanei dagokienez, Udalak espero du lanen kontratazioa

uztaileko lehen hamabostaldian sinatzea. Bigarren faseko proiektu tekniko aldatua idazteko adjudikazioa emergentziaz esleitu zitzaion Sestra Ingenieria y Arquitectura SL enpresari, martxoan, 18.144 eurotan -BEZa barne-. Hori aurkeztuta, apiril amaieran, 519.458 euroko -BEZa barne- lizitazio oinarria zituzten baldintza administratiboen eta teknikoen pleguak onartu ziren, prozedura arruntaren bidez. Hiru enpresa aurkeztu dira kontratazioa: Construcciones Zubieder SL, Tecnicos en Estabilizaciones e Inyecciones SA eta Ekin Eraiketak SL.

Egin beharreko lanen artean, gainazaleko lur labainkorretarako hesi malgua azpimarratu beharra dago; azaleko irristaketan eragina geldiarazteko hesi berria egun dagoenari erantsita joango da, eta haren bi aldeetan zabalduko da. Hesi iragazkor bat da eta, beraz, *debris flow* edo lur jarioaren eragina gelditu ondoren, material finenek eta ur-fluxuek langa zeharkatzen dute abiadura arindu ondoren. Bidegorriari erantsitako ezpondaren buruan indusketa bat egitea ere planteatzen da.

Hileta zibiletarako kokapena

Beste konpromisoetako bat da EAJren azken hiru urteetako eskaera izan den hileta zibiletarako gune bat egokitzea. Osoko bilkuran Gorka Artola alkateak iradoki zuen aukera ona izan daitekeela gune hori Laboratorium atzeko eraikinen jartzeari; *caballeriza* moduan ere ezaguna den eta haizeteak apurtu zuen eraikina, alegia. "Erbakia ez dago formalki hartuta, baina badago kontratazio txiki bat eginda, urgentziatzeko izaeraz, eraikina egonkortzeko. Ez dago

itxita, baina baliabide urriak ditugu eta aukera oso interesgarria iruditzen zaigu bi behar horiek uztartzea: eraikina egonkortu eta hileta zibiletarako baliatu. Aldez aurretik ere identifikatu dugu espazio hori aproposa dela, lasaitasun, itxura eta kokapen aldetik", aurreratu zuen Artolak. EAJko Maite Agirrek erantzun zion gustatuko litzaikeela lanketa horretan modu zuzenean parte hartzea.

Ordenantza fiskalak doitzera

Bestalde, hainbat ordenantza fiskalen aldaketa ere onartu zen EH Bilduren aldeko botoekin eta jeltzaleen zein sozialisten abstentzioarekin. Onartu zen hainbat tasa edo kuota doitzera, iazkotik %3,3 igota. Udal Gobernuak %5 igotzea proposatu zuen hasieran, eta EAJk zero igoera eskatzen zuen. Negoziazio baten ostean adostu dute %3,3ko igoera. Gobernuak dio KPiren igoera nolakoa izan den ikusita eta kalitatezko zerbitzuak emateko Udalaren diru-sarrerak bermatu behar direla aintzat hartuta, igoera "ezinbestekoa" dela. EAJk uste du, aldiz, egoera zein den ikusita Udalak egin beharko liokeela aurre igoera horri. PSE-EEK EH Bilduren "zinismo ariketa" aipatu zuen: "Aurreko agintaldian, oposizioan egonda, edozein igoera ukatzen zuten eta orain, Gobernuan daudela, azaltzen digute zergatik igo behar diren zergak eta tasak. Gu koherentzia mantentzen saiatzen gara".

BOLUKO MALDARAKO KONTRATAZIOA UZTAILEKO LEHEN EGUNETAN GAUZATZEA ESPERO DU UDALAK

Oinezean, elkar ezagutzera

Bizimodu osasungarria sustatzea eta herritarren arteko harremanak sendotzea helburu duen Bergara Oinez ekimena aurrera doa; orubete inguruko ibilaldiak egiten dituzte, Agorrosindik irtenda. Amaieran hamaiketako egoa ohi da partaide guztiendako. Azken irteera Mariaren Lagundiko ikasleek gidatu zuten; hurrengo txangoa ekainaren 9an izango da.



TXOMIN MADINA

Bizikletendako aparkalekuak

Hilerriko aparkalekuan eta Osteta bidean -Munibe plazaren eta Iparragirre kalearen artean- bizikletendako aparkaleku berri bana zabaldu zuten maiatzaren 17an. Iaz Labegarietako kirol eremuan jarritakoari gehituko zaizkio bi aparkaleku berri hauek. Gune horietako bat erremintekin eta bizikletak garbitzeko tresnekin gaitzeko asmoa ere badu Udalak.



B.U.

Soraluce txapelketak baditu finalistak

Soraluce Lau eta Erdiko Txapelketak baditu finalistak, eta astelehenean 19:00etan hasiko duten pilota jaialdian erabakiko da zeintzuk diren aurtengo edizioko onenak. Martitzeneko final-erdietan Beñat Zubizarretak eta Eneko Labakak egin zuten aurrera

Xabier Urtzelai BERGARA

Soraluce Lau eta Erdikoaren hamabigarren edizioari onena geratzen zaio, finalak jokatzeara. Eta aste barruan jokaturako final-erdietan Beñat Zubizarretak –promes mailan– eta Eneko Labakak –senior mailan– egin dituzte final horietan egoteko meritua. Hala, Bergarako Kirol Elkarteak astelehenerako –ekainak 6– antolatuko duen jaialdian –19:00etan, Udal Pilotalekuan–, promes mailan izango dira aurrez aurre Zubizarreta bera eta Iker Eiguren.

Eta, tamalez, senior mailan azken orduko batek aldaketak eragingo ditu. Izan ere, berez, Eneko Labakarekin batera Aitor Alduntzinek egon beharko luke finalean, baina aste barruko albistea da Alduntzinek min hartu duela, eta Gaizka Karregal bizkaitarrak jokatu du haren ordeza. "Aitor Alduntzini animo mezua bidali nahi diogu, eskerrak eman txapelketan parte hartu duelako eta ea lehenbailehen kantxetan ikusten dugun", adierazi dute Bergarako pilota elkartetik.

Ander Muruak, ezin

Joan den martitzeneko final-erdietan bailarako ordezkari bakarrak hartu ahal izan zuen



Finalean izango den Beñat Zubizarreta, ezkerrean, eta Mikel Aranbarri. BKE

AITOR ALDUNTZINEK MIN HARTU DU ETA GAIZKA KARREGALEK ORDEZKATUKO DU SENIOR MAILAN

esku, Ander Murua arrasatearrak. Arrasatekoak, baina, senior mailako partiduan kontrario gogorra izan zuen aurrean, Eneko Labaka. Partiduaren lehen zatian joko oso ona erakutsi zuten biek, bai erasoan eta bai

defentsan euren gaitasunak erakutsi zituzten. Hala ere, partiduen bigarren zatian, markagailuak 22-6 erakusten zuela, Labakak hamar tanto egin zituen jarraian, eta hor lortu zuen finalerako txartela.

Promesen mailan, berriz, Beñat Zubizarretak 22-15 irabazi zion Mikel Aranbarri. Partidu bizia eta azkarra izan zen, saketik eta erasoan tanto asko egi zituzten biek ala biek. Aireko joko ona erakutsi zuten bi pilotariek, baina Zubizarretak lortu zuen finalerako txartela.

Jaietan, goitibeherak, herri kirolak, eskalada eta juggerra

Domekan egingo dituzte Pazkoen egitarau barruko kirol hitzordu asko; tartean, goitibehera lasterketa

X.U. BERGARA

Asteburuan hainbat kirol hitzordu egingo dituzte jaien barruan, eta domekan izango dira asko. Hala, goizean, juggerra bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da, Ipintzako berdegunean (11:00) entrenamendu saioa egiten izango dira eta Arima Galduek taldeko lagunak, eta baita Dragoi Arimakoak ere. Esan beharra dago entrenamendu saio horretan parte hartzeko aukera izango dutela herritarrek.

Domeka arratsaldean, berriz, bi hitzordu izango dira: batetik,

15:30ean hasita, goitibehera lasterketa egingo dute, San Martzialen hasita; eta 18:00etan, Mokolobloc eskalada txapelketa egingo dute Bergarako kaleetan. Azken horretan esku hartzeko Bergarako Udaleko webgunean eman behar da izena, eta gehieenez hogeitaz lagunendako tokia jarriko dute.

Aste barruan, berriz, bi pilota jaialdi izango dira –informazioa ondoko zutabean– eta martitzeneko herri kirolerako saioa prestatu dute San Martin plazan (12:00).



GOIENA

FUNDAMERI laguntzeko batuta

Alfredo Najeraren omenezko memoriala jokatu zuten zapatuan Bergaran, eta ekimen solidarioa izan zuen futbol jaialdiak, muskulu atrofia dutenei laguntzen dien FUNDAME fundazioa babestea zen-eta topaketaren helburuetako bat. Emakumezkoetan Elorriok irabazi zuen eta gizonezkoen mailan Real nagusitu zen. Argazkian, sari banaketa ekitaldia.

Pazkoetako jaialdia, gertu

Martitzenean, hilak 7, pilotari profesionalen jaialdia egingo dute Udal Pilotalekuan. 17:00etan hasita, Elordik eta Bikuñak Zabalen eta Tolosaren kontra jokatu dute. Partidu nagusian, berriz, Irribarriak eta Rezustak bikotea osatu dute eta Ezkurdia eta Martija izango dituzte aurrean. Sarrerak Internetez eros daitezke, Aspe etxearen webgunearen bitartez.



Irribarria, Bergaran jokaturako jaialdi batean. X.U.

Semicup txapelketa jokatu dute ekainaren 18an

Bueltan dator gizonezkoek eta emakumezkoek elkarrekin jokatzeko Bergarako Semicup areto futbol txapelketa. Ekainaren 18an egingo dute egun osoko torneo eta ekainaren 8a da izena emateko azken eguna. Talde bakoitzean gutxienez bost jokalariek egon beharko dute eta jokalariek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte.



Artxiboko irudi bat (2018). GOIENA

"Etxekoendako jotzea bezala izango da"

XABI BANDINI KEROBIA TALDEKO ABESLARIA ETA GITARRISTA

Txikitan hainbeste ordu pasa dituen herrian ekingo dio Xabi Bandiniren Kerobiak 'Hilak' izeneko lan berriaren udako birari, eta "nerbio puntu bat" baduela aitortu du

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

2014an Kerobiak agur esan bazuen ere, 20. urteurrena ospatzeko itzuli zen joan den urtean. Bihar 23:00etan izango da kontzertua, San Martin plazan. Bandinirentzat berezia izango da; alde batetik, pandemiaren ostean, herriko festa batzuetan taldeak eskaintzen duen lehena baita; bestetik, amaren herrian arituko delako.

Nolakoa izan zen Kerobia taldearen itzulera?

20 urte egiten genituela ohartu ginenean, ospatzeko zerbait egitea polita izango zela pentsatu genuen. Ordura arte ez genuen binilorik kaleratu, eta bikoitza atera genuen, ilusioa egiten baitzigun. Erantzuna ona izan zen, eta, musikariak garen heinean, ospatzeko onena kontzertuak ematea zela iruditu zitzaigun. Oso polita izan da buelta hori, jende pila bat bildu baitzen hiru emanaldietan. Azken urtea oso frenetiko izan da.

Zeintzuk dira 2001eko eta 2022ko Kerobiaren ezberdintasunak?

Agur esan genuenean, bazegoen puntu bat esaten zuena ea etorkizunean aurreko lanak baino gauza hobeagoak egingo ahal genituen; arrakasta gehiago izango genuen. Denborarekin ohartu gara tranpa dela. Espektatibak kanpoan uzten badituzu, zailagoa da gauzak zure neurrian egitea.

Disko bakoitzak istorio bat dauka. Zer kontatzen du *Hilak* diskoak?

Etorkizun hurbilean pertsona komunitate ezberdinek Lurra uzten dute globo kosmikoetan, guk asmatutako espazio-ontzietan, etxe berria topatzeko asmoz. Ez dute arrakastarik eta espazio-ontziak eskigeta geratzen dira eguzki-sisteman. Beraz, globo kosmiko bakoitzean gertatzen dena kontatzen da. Gugana ekarrita, etxeko segurtasun horretatik ateratzen eta etxe berria topatzen ez dugunean gizakiaren pasioak



Xabi Bandini, *Hilak* lanaren aurkezpen kontzertu batean. JOSETXO PEREZ

"MUSIKA EZ DA GURE OGIBIDEA, BAINA EGITEN DUGUN GUZTIA DISFRUTATZEKO EGITEN DUGU"

hartzten du indarra. Nola, ohartu gabe, giza eskubideak, berdintasuna eta halako balioak mugitu daitezkeen autoritarismoa, faxismoa eta halako balioetara.

Nondik dator diskoaren izena?

Hilak da hitza, baina *Hilak bai ala ez?* izango litzateke. Iruditu zitzaidan bere garaian ondo neurtzen zuela ziurgabetasun hori, biziraungo dugun edo ez. *Hilak-ek nolako erantzuna izan du?*

Harrera ona izan du. Denbora gutxi utzi dugu diskoa atera genuenetik bira hasi arte. Lehenengo kontzertutik ikusi dugu jendeak kantu berriak badakizkiela. Horrek dena esaten du. **Ama bergararra duzu. Zer eragiten dizu zapatuan Bergaran jotzeak?**



Pentekosteetako musika egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau sakeleko telefonoarekin.

Denbora asko pasa dut Bergaran. Amaren herria da eta familia daukat bertan. Berezia da. Iruñean jotzen duguneko sentazio bera daukat; nerbio puntua ematen dizu, baina etxe-koendako jotzea bezala da.

Bergarako ze oroitzen dituzu?

Zenbatezinak dira. Haurra eta nerabe nintzenean, kontatu ezin diren barrabaskeriak egin nituen [Barre]. San Martin plazan joko dugu, eta duela asko, festetan, Bide Ertzean ikusi nuen bertan.

Pandemiaren ostean, festa batzuetan joko duzuen lehen aldia da?

Bai, hala da. Data gutxi batzuk planeatu ditugu; gero, etorriko dira gehiago. Udan kontzertu gutxi jotzea erabaki dugu; hori bai, leku politetan, goxo eta jendearekin izerditzeko. Musika ez da gure ogibidea, baina egiten duguna disfrutatzeke egiten dugu. Bergarara gogo betez goaz.

Biharko spoilerrik egiterik bai?

Hilak laneko kantuak joko ditugu, baina baita Kerobiaren kantu goxoenak eta jendeari gehien gustatzen zaizkionak ere. Gainera, gezurra badirudi ere, aspaldi konposatutako letrak jotzeak emozionatu egiten nau. Ez dakit oso ohikoa den hori.



2019ko Pentekosteetan zuzendu zuen aurrenekoz banda Enrike Txurrukak. GOIENA

Bergarako Musika Bandaren emanaldiak Pentekosteetan

190 urte daramatza musika bandak kaleak alaitzen; ohi bezala, 'Pobres y alegres'-ekin emango die hasiera jaiei

I.A. BERGARA

Ohiko Pentekosteen itzulerarekin batera, bueltan datoz Musika Bandak egiten dituen emanaldiak. Alde batetik, egubakoitzean, Bitorianatxoren jaitsieran, Miguel Gonzalez Bastida zuzendari ohiak sortutako *Pobres y alegres* martxa joko du; ondoren, kalejiran joango da. Partaide berri askoretzat nahiz Enrike Txurrukarentzat, zuzendari modura, ekitaldi horretan parte hartzen duten aurreneko aldia izango da. Halaber, domekan, kontzertua eskainiko du Bandak Espoloian.

'Pobres y alegres'-en sorrera

Martin Gantxegi musikariak, ezizenez *Martin Angua*-k, doinu bat entzun zuen, eta hasierako esaldia txistuka jardun zuen egun osoan, burutik ezin kenduta. Miguel Gonzalez Bastida orduko bandako zuzendariari kontatu zionean, esaldi horretatik martxa sortuko zuela agindu zion. Martxaren sorrera 1950. urte ingurukoa den arren, Gonzalez Bastidaren seme Alfredo zuzendari hasi zenean, 1987an, hark proposatu zuen martxa hori jaien hasierako martxa moduan. Ordutik hona, urtero jotzen da.

42. haur eta gazteen 'Simon Arrieta plastika sariketa'

Domekan, haurrek eta gazteek margotzeko daukaten abilezia erakutsi ahal izango dute Beart elkartek antolatutako lehiaketan. Adinaren arabera kategoriak egingo dira, eta parte hartzaileek festekin lotutako marrazkia egin beharko dute. Laminen zigilatzea 10:30etik 11:30era egingo da, eta lanak San Martin plazan soilik egin ahal izango dira.

Antolatzaileek aukeratutako epaimahaiak aukeratuko ditu irabazleak, eta sari-banaketa 13:00etan izango da, plazan. Kategoria bakoitzean bost saridun egongo dira, eta herriko komertzioetan gastatzeko bonuak eskuratuko dituzte.

Matxiategi eta Nahikari tabernetan kontzertuak festetan

Musikak herriko txoko guztiak hartuko ditu; baita tabernak ere. Egubakoitzean, gaueko haiketetan, DJ Elvis Cainok jarriko du musika Nahikari tabernan.

Matxiategi tabernan, berriz, bi kontzertu izango dira datozen egunetan: alde batetik, ekainaren 4an, arratsaldeko zazpitan hasita, Azkaiter Pelox taldea ari-tuko da. Azken boladan, folk doinuak landu ditu seikote bergararrak. Bestetik, hilaren 5ean, 13:30ean, Gildas Hot Club seikotearen txanda izango da. Jazz musikaren alde akustikoena islatzen dute. Bi taldeetako bateria-jolea da Aitor Aranburu bergararra.

Trekutzeko ingurumen inpaktua aztertuko dute

Cilda Energy enpresak egindako Trekutzeko parke eolikoaren proposamenari ezezkoa eman diote EH Bilduk eta EAJk. Izan ere, energia berriztagarrien aldeko apustua egin arren, jasangarriak diren proiektuak hobetsiko dituztela diote udal ordezkariak

Maidor Arregi ANTZUOLA

EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu dute Trekutzeko parke eolikoaren aurka egiteko proposamena ohiko osoko bilkuran –PSE-EEko ordezkaria ez da izan–. Proposamenaren baitan, Urretxuko Udalarekin elkarlanean aritzea ere jasotzen da, parke eolikoak bi herriei eragiten baitie.

Iaz azaroan kaleratu zuen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Trekutz parke eolikoak gauzatzeko hasierako administrazio-baimenaren eskaera Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian. Eskaera horren arabera, Cilda Energy enpresak Trekutz parke eolikoan 12 MW-ko potentzia gordina duten hiru aerosorgailu instalatzeko eskaera egin zuen: bi Antzuolako lurretan eta beste bat Urretxuko lurretan jartzea, hain zuzen ere. Txostenaren arabera, aerosorgailuek 115 metroko altuera, 22 metroko dia-

metroa eta 4 metroko sakonera izango lukete. Hala, bi alderdiek garbi azaldu dute energia berriztagarrien aldeko apustua egin arren jasangarriak diren proiektuak hobetsiko dituztela. "Planteatzen dena oso bortitza dela uste dugu; eolikoak beharrezkoak direla deritzogu, baina edozein modutan ez", dio EAJko bozeramaile Basilio Ormazabal. Ildo beretik, Irimogaina babestutako gunea dela gogorazti du Beñardo Kortabarria alkateak: "Natura 2.000 sarean dago Irimogain, eta babestutako eremua da; herritarrendako gune garrantzitsua da, gainera". Era berean, alkateak dio bat-bateko testuinguruan etorri dela proiektuaren jakinarazpena. 2018an

TREKUTZ PARKE EOLIKOAREN PROIEKTUA GAITZETSI DUTE EH BILDU ETA EAJ ALDERDIEK

Jaurlaritzak energia berriztagarrien garapenerako plan sektoriala egitea adostu zuen arren, "gaur-gaurkoz plan horren aurrerapena soilik" dutela nabarmendu du, eta, ondorioz, "plana zehaztu gabe eta herritarrekin adostu gabe" dagoela. Modu horretan etorri dela parke eolikoaren proposamena, alegia.

Gaineratu du Antzuolan jada energia komunitatearen inguruko lanketa egiten badihardutela: "Plaka fotovoltaikoak udal eraikinetan jarri ditugu, energia komunitarioa latzen dihardugu, eta baita ere urarekin zer egin dezakegun".

Orain, Antzuolako Udalak Eusko Jaurlaritzari helarazi behar dio parke eolikoak sor ditzakeen ingurumen inpaktuari hedaduraren gainera azterketa txostena. Azterketa hori, osoko bilkuran onartu bezala, Urretxuko Udalarekin batera elkarlanean egingo du Antzuolak eta kostua ere bien artean ordainduko dute.



Olaranen jokatzeko Carcassonne txapelketa. GOIENA

Miquel Jornetek irabazi du Carcassonne txapelketa

Mahai-jokoen jolasek ematen duten gertutasunari eman diote balioa asteburuan jokatzeko txapelketan

M.A. ANTZUOLA

Jolasena elkarteak antolatuta, III. Carcassonne txapelketa jokatuta zen zapatuan Torresoroan. Antzuolan bertan bizi den Miquel Jornet kataluniarra izan zen garaile –Ibai Beristainen kontra finala irabazita–, eta Madrilgo finalerako txartela lortu zuen; Espainiako txapelketan, hain justu ere, bigarren gelditzea lortu zuen 2019an.

Txartel horren bila joan ziren zapatuko txapelketara parte-hartzaileetako hainbat; serio hartu zuten jokoa, eta horren erakusle aretoko isiltasuna izan zen. "Madrilen jokatuko den txapelketarako txartel bila datoz lehiaz, plaza bila; sekulako esperientzia izan beharra dauka", zioen elkarteko kide Sergio Morak.

Baina lehiazera ez ezik ondo pasatzera ere joan ziren Eibartik, Zumarragatik eta Leioatik

etorritako jokalariek. Horixe da, izan ere, Jolasena elkartearen helburuetako bat. Zazpi kide dira gaur egun elkartean, baina ateak zabalik dituzte. "Mahai-jokoak ezagutzera eman eta lagun berriak erakarri gura ditugu", zioen Juanma Begiristain kideak. "Mahai-joko asko ez dira oso ezagunak, eta elkartearen helburua hauek erakustea da", gaineratu zuen. Hiriburuetan herrietan baino zaletasun handiagoa dagoela zioen eta bideo-jokoek konpetentzia gogorra egiten dietela, baina, mahai-jokoen alde, ematen duten gertutasunari eman zion Beristainek balioa. Pandemiak eragindako etenaren ondoren, hirugarrenez egin dute Carcassonne txapelketa aurten. Elkartetik adierazi dute, aurrera begira, Japonian oinarritutako jokoak eta ekintzak presente izango diren ekimen bat ere egin nahi dutela.

Debagoieneko EAJren Eguna Antzuolan ospatuko da

Antzuolak hartuko du aurten Debagoieneko EAJren Lehen Eguna ekainaren 12an, domekan. Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarraren lehendakariak, Aitor Urrutia legebiltzarkideak eta Itziar Alonso EGIko ardura-dunak hartuko dute parte ekitaldian. Honako egitaraua dute: 10:30ean, bisita gidatua egingo dute Antzuolako herria bertatik

bertara ezagutzeko; 12:00etan, ekitaldi politikoa egingo dute eta 13:00etan, triki poteoa. 14:30ean, aldiz, bazkaria antolatuta dute eta bazkalostean musika eta dantza izango dira protagonista.

Hala, Antzuolak hartuko du lehenegoz bailaran egingo den EAJren Eguna eta bazkarian izena eman dezakete herritarrek. "Bazkaltzera etorri nahi dutenak bere herriko alderdikideei jakinarazi beharko diete", dio Basilio Ormazabal jeltzaleak.



EH Bildu eta EAJko udal ordezkariak martitzeneko ohiko osoko bilkuran. M.A



Parte hartzaile bat lasterketako oztopo bat gainditzen. IMANOL SORIANO

Gozatu ederra trial lasterketa ikusgarrian

67 pilotuk parte hartu dute Antzuolako bigarren trial txapelketan. Euskadiko txapelketarako puntuagarria izanik, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Iparraldeko partaideak izan dira. Antolatzaileek txalotu egin dute izan duen harrera

Maidar Arregi ANTZUOLA
Indartsu itzuli da Euskadiko trial txapelketarako puntuagarria den Antzuolako proba. Gozatu ederra hartu dute aurreko asteburuan Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako motor-zaleek, eta baita ere, nola ez, bertaratutako ikusleek.
Guztira, 67 partaide izan dira bigarren edizio honetan, askotariko kategoria eta modalita-

teetan, eta antolatzaileak oso gustura zeuden egunaren amaieran. "Kezka bagenuen aste barruan egin duen euriagatik, baina ondo lehortu da sortutako lokatza eta ikaragarri disfrutatu dugu. Oso pozik ikusi ditugu etorri diren pilotuak, gainera", azaldu du antolakuntza lanetan aritu den Imanol Lizarralde. "Jendea oso gustura geratzen da Antzuolako probarekin; gu-

neen arteko trantsizioak oso luzeak dira, eta, beraz, oztopoak gainditzeaz gain, mendi asko duen proba da eta hori asko gustatzen zaie datozenei. Ez da ohiko lasterketa Antzuolakoa, zeren mendian ere asko ibiltzen baitira pilotuak", nabarmendu du Lizarralde.
Askok gozatzeraz, eta beste batzuk, aldiz, podiumaren bila ere, baina pilotuen artean Antzuolan izan

Sailkapen orokorra

TR 1 maila	Puntuak
Carlos Monreal	13
Guillermo Fernandez	31
Damien Ezcurdia	32

TR 2 maila	Puntuak
Diego Urreta	10
Eneko Martinez	21
Martin Mendibil	23

TR 3 maila	Puntuak
Christophe Barzu	9
Mikel Lertxundi	13
David Garcia	11

TR 4 maila	Puntuak
Haitz Lertxundi	11
Pedro Jimenez	15
Jean Marie	16

Kadete maila	Puntuak
Andoni Zendoia	43
Eñaut Korta	44
Andoni La Torre	52

Gazte maila	Puntuak
Aner Landeta	36
Andrea S. del Burgo	52
Paola de La Cruz	53

Klasikoen maila	Puntuak
Roberto Mendibil	6
Jose Manuel	17
Aitor Martinez	33

ITURRIA: EUSKAL MOTOZIKLISMO FEDERAZIOA

ohi den giro ona azpimarratu du antolakuntzako kide Iban Diaz de Ereñok: "Pike sanoa dago. Beti dago baten bat epaileekin hase-rreru daitekeena, baina, bestela, giro ederra izaten dugu gure artean. Sari banaketan izan ohi dugun *katxondea* ikustea besterik ez dago... Balorazio oso ona egiten dugu, giro ederra izan dugu".

Diaz de Ereñok lasterketaren atzetik dagoen auzolana ere azpimarratu du: "Lantalde honekin bai dela posible. Beste lasterketa batzuetan oso larri ibiltzen dira jende aldetik eta hemen jendea prest dago lanerako. Eskerrik asko lagundu duten guztiei; horrela jarraitu dezala. Datorren urtean ziur Antzuolara berriro lasterketa ekartzen saiatuko gara". Eta izen propio bat ere nabarmendu du: "Ruben Fernandezi esker on berezia helarazi nahi diogu, garai batean Espainia mailan lehiatzen zen aretxabale-tarrari. Espezialista da lekuak identifikatzen eta markatzen, eta horrek asko laguntzen digu".

1995etik aurrerako motorrek ere ikusmina piztu zuten. Kate-goria klasikoko irabazle Roberto Mendibil egindako lanarekin pozik azaldu da: "Motorrean ibiltzen motor klasikoen bitartez ikasi nuen, eta orain berriro itzuli naiz horiekin lehiatzera. Ezaugarri ezberdinak dituzte: atzealdean bi motelgailu, airez hozten den sistema eta danbo-rrezko balaztak. Oso gogoko ditut".

1995ETIK AURRERAKO MOTOR KLASIKOEN KATEGORIAK IKUSMINA PIZTU ZUEN IKUSLEEN ARTEAN

EUSKADIKO TRIAL TXAPELKETARAKO PUNTUAGARRIA DEN LASTERKETAN, 67 PARTE HARTZAILE

Landatxo, Extremaduran

Caceres, Merida, Quintana... Extremadura bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute herriko 50 bat erretiratut. Astebeteko bidaia gastronomiaz eta kulturaz gozatu dute, eta, beroa lagun izan badute ere, ederto ibili dira. "Herri dezente bisitatu ditugu; Quintanan bertako bizilagunekin ere izan gara bazkaltzen", dio Joxe Angel Arbulu presidentek.



JOXE ANGEL ARBULU

OHARRAK

Iralako kronoigoera

Ekainaren 4an egingo da Iralako kronoigoera, Aiastuiren eskutik, 12:00etan. Hilaren 11n, berriz, Uzarragakoak emango dio txirrindulari *challenge*-ari jarraipena.

Batzar orokorra

Arrola Mendizale elkarteak urteko batzar orokorra egingo du ekainaren 9an, eguena, 18:30ean, Olaranen.

Erakustaldia

Gimnasia erritmikoko erakustaldia izango da ekainaren 15ean, eguaztena, 16:30ean, pilotalekuan. Hala, Ariznoa gimnasia taldean ikasturtean zehar ikasitakoak erakutsiko dituzte.

Ferixa Nagusiko jaiak normaltasunez aurtzen

Elgetan ere bueltan dira ohiko jaiak. Egitarauan zenbait aldaketa egongo badira ere, iragarritakoen artean nabarmentzen dira herri kirolen pentatloia, Bergarako Erraldoi Konpartsa, Baiko enpresaren pilota partidak eta Gozategi taldearen kontzertua

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Ekainaren 30ean hasiko dira 2022ko Ferixa Nagusiko jaiak, eta asmoa da pandemia aurreko alaitasunak eta festa giroak hartzea herriko kaleak berriz. Jai batzordea lanean da, eta jarduneko alkate Ane Bilbao aurreratu ditu lehen zertzeladak. "Jendea galdezka dago, eta baieztatu nahi dugu ohiko jaiak izango ditugula aurtzen. Horretarako ari gara lanean. Jai egitaraua, orokorrean, pandemia aurreko jaietakoa izango da".

Nabarmentzen diren ekitaldien artean daude domekako pilota partidak eta Bergarako Erraldoi Konpartsa kalejira, zapatuan. "Interes handia sortu du domekako pilota jaialdiak. San Fermin Torneorako Baiko enpresaren finala jokatu da, besteak beste. Aurreikusten da Laso pilotaria Elgetan izango dela. Final horretarako sailkatzeko aukera handiak ditu, eta sailkatuko ez balitz aurreko partida jokatu luke". Sarrerak laster jarriko ditu salgai Baiko. "Berrehun bat Bolatokian egongo dira eskuragarri, eta gainerakoak Internet bidez. Salmenta noiz hasiko den ez dakigu oraindik. Abisua jaso bezain pronto jakinaraziko dugu", esan du Bilbao.

Gozategi taldea plazan

Musikak lekua izango du jaietan. Gozategi taldearen emanaldia dago iragarrita bariku gauerako. "Eguenean, Burrunbazale txaranga eta Mugi Panderoa izango ditugu. Zapatuko bazkari osteko erromeria, betiko moduan, Jainagak eta Narbaizak egingo dute". Bilbao jakinarazi du zapatu gauean ez dela aurtzen kontzerturik egongo. "Burrunba elektrotzaranga ibiliko da kalez kale 19:30etik gauerdira arte. 2019ko jaien osteko balorazioan atera zen zapatuko kontzertuan plaza hutsik egoten dela. Beste formula bat bilatu behar dela



Martxoso kuadrilla 2019ko jaietako Mozorro Egunean. AITOR AGIRIANO

OHIKO AZOKA EGINGO DA AURTEN; PILOTA PARTIDAK ETA ERRALDOIAK ERE IZANGO DIRA

baloratu zen, eta herritar batek proposatu zuen elektrotxaranga. Ontzat eman da, eta aukera horrekin egingo dugu saiakera aurtzen".

Herri kirolak barikuan

Berria da, baita ere, bariku goizeko herri kirolen ikuskizuna. Euskal pentatloia eskainiko dute Karmele eta Joritz Gisasolak. "Bost herri kirol ikusteko aukera izango da", azaldu du Bilbao. Ohikoa den moduan, umeen eta erretiratuen eguna izango da barikua. Puzgarriak goiz eta arratsalde, meza, erretiratuen eta umeen bazkariak, buruhandiak eta zezensuzkoa izango dira, besteak beste. "Erabakitze dago arratsaldean kale ikuskizun bat edo kuadrillen arteko jolasak izango diren. Horretan dihardugu", esan du jarduneko alkateak.

Bergarako erraldoiak zapatuan

Ohikoa den moduan, Arrasateko gaiteroen esna deiarekin hasiko da Herri Eguna. Harrera ekitaldia egingo zaie jaioberriei, eta ondotik, Bergarako erraldioen kalejira hasiko da. "Aurtzen ez da ez soka dantzarik ez umeen dantza ikuskizunik egongo. Jaiak egingo zirela baieztatu eta antolaketa lanean hasi ginenerako berandu zen entseguen hasteko", azaldu du Bilbao. "Baina hurrengo urtean bai, asmoa da ekintza hauekin jarraitzea". Dantzen ordu horretan ibiliko dira erraldoiak. Ondoren helduko dira paella erraldoia eta saiheskia bazkaltzeko, Jainagaren eta Narbaizaren erromeria, buruhandiak eta Intxortako Lehoiek prestatutako pintxo morunoak. "Kafea, aurtzen, 5. mailako neska-mutikoen emango dute hurrengo ikasturteko ikas bidairako dirua ateratzeko".

Domekan azoka izango da nagusi –baserritarak, artisauak eta ganadua–, eta Real Athletic partidak ere egongo dira kantxan. Umeendako marrazki lehiaketarekin eta txitxi-burruntziarekin agurtuko dira 2022ko jaiak.



Dantzan Amaia DJ eta Gauargi taldearekin, 2019ko jaietan. L.Z.L.

Inoiz baino indartsuago datoz Beheko kaleko jaiak

Hilaren 9an eta 10ean ospatuko dituzte; umeen eta helduen auzo-afarietarako txartelak salgai daude

L.Z.L. ELGETA

Jendeak badu bi urteok atzean laga eta aurrera begiratzeko gogo. Hala sumatu dute Beheko kaleko jai batzordean. "Laguntzeko gogoz etorri dira auzotarrak. Gure eskuetan dagoena egin dugu, eta egitaraua zabaldu osatu dugu", azaldu dute jai batzordeko Oxel Erostarbek eta Gorka Arizmendiarrak.

Ohiko ekintzez gainera, uretako txirrista erraldoia eta bits festa iragarri dituzte eguenerako. "Berraondokotik behera datorren aldapa hartuko du uretako txirristak, eta adin guztietako jendeak har dezake parte. Aspalditik genbiltzan txirrista ekarri nahian. Kostu handia du, eta bi euro ordaindu behar du dira arratsalde osoan erabiltzeko aukerarekin". Egun berean otarrainxkak eta xanpaina egongo dira Arantxa Aretxagaren omenez. "Auzoko jaiak egiten

hasteko asmoa genuela esan genionetik beti egon da prest laguntzeko, eta momentu ona izango da hura gogoratuz topa egiteko".

Barikuan auzo-afariak

Mendi kriteriumak betiko ezaguturik izango ditu. Ume eta gaztetxoendako entzierroa ere iragarri dute. Benetako zezentxoekin izango da. "Sanferminetako entzierroaren aurretik, Elgetan frogatxo egingo dute zezenek. Autoak garajeetan sartzea gomendatzen da", esan dute antolatzaileek. Disko festa, Unai Cantabranaren saioa, auzo-afariak, erromeria eta mojito jaiak izango dira ondoren. Urtero moduan, afaltzeko ehun laguntetik gora elkartzeko aurreikusten dute. Txartelak salgai daude Lola tabernan –umeendako sei euro– eta Goikoetxe harategian –helduendako hamasei euro–.

Festa eguna Asentzion

Maiatzaren 29arekin izan da aurtzen Asentzio Eguna, eta Elgetako Udalak antolatuta jan-edana eta musika izan ziren domeka eguerdian Asentzioko ermita aurreko belardian. Elgetako, Angiozarko eta Uberako auzotarrak elkartu ziren bertan. Gehien-gehienak oinez bertaratu ziren. Eguraldia lagun izan zuten, eta giro polita sortu zen pagopean.



ELGETAKO UDALA

Giro ederra frontenis txapelketaren bueltan

Egunotan jokatu dira gizonezkoen txapelketako final-laurdenak. Sakabanatuta jokatu dituzte. Horiek erabakitakoan adostuko dira finalerdiak eta finalak jokatzeko eguna eta ordua. Antolatzaileak oso pozik dira txapelketak orain arte emandakoarekin

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Guztira, 28 bikote aritu dira nor baino nor gehiago Elgetako frontenis txapelketan, eta, aste bukaera bakarrean egitekoa bazen ere, luzatu egingo da, azkenean. Elgetako jokalaria ez ezik, Arrasateko, Elorrioko eta Bergarako jendea ere aritu da txapelketan, eta partida estuak egon direla azaldu du antolaketa taldeko Iratxe Bravok.

Parte-hartzaile kopuru polita izan du txapelketak, baina antolatzaileek harmailetan egon den ikusle kopuruarekin eta giroarekin hartu dute ezustetik atseginena. "Oso giro ona sortu da frontoian. Gazte pila elkartu da pilotalekuan, eta oso pozgarria izan da", esan du Bravok.

Antolaketa lanak

Bravok antolaketa lanetara sartu den jende kopurua ere nabarmendu du. "Fronteniseko neskak ari gara, gehienbat, baina esango nuke aurreko edizioetan ez dela hainbeste jende etorri izan. Igarri egiten da, eta eskertzen da. Errazagoa da dena".

Lehen jardunaldia, bi egunekoa
"Zapatuan jende asko etorri zen frontoira, eta egun osoko jardunaldia izan zen. Giro bikaina egon zen eta balorazio oso po-



Frontenis txapelketa, zapatuan, Elgetako frontoian. IRATXE BRAVO

sitiboa egiten dugu. Berezia izan da; izan ere, denbora epe bat jarri genuen partida bakoitzeko: hogeit hamar minutu. 08:00etatik 21:00ak ingurura arte partidu bat beste baten atzetik etenik gabe. Domeka goizean, berriz, eguerdira arte. Lehiarik ez da falta. Ez dakit zergatik, baina pilota asko eta asko apurtu dira. Atera kontuak!".

2020ko txapelak

Finalerdiak eta finalak aste bukaera bakar batean eta batera jokatzeko da asmoa. "Asteburu

honetan Bergarako jaiak dira eta txanda-pasa egingo dugu, baina ez gendake nahi askorik luzatzea kontua. Gelditzen diren partidak lehenbailehen jokatzeko da asmoa".

2020rako antolatutako txapelketa da honako hau, eta ordu-rako prestatutako txapelak jasoko dituzte irabazleek. "Txapelak eginda zeuden, eta ez aldatzea erabaki dugu. Data oso sinbolikoa da. Txapelketa antolatuta zegoen, eta bertan behera gelditu zen. Oroitzapen polita izango dira txapela horiek".

Aurrera egin duten bikoteak

Emakumezkoen txapelketa

- Ihintza Imaz / Lierni Asurabarrena
- Iratxe Bravo / Iruñe Errasti
- Mireia Rubio / Maitena Mañarikua
- Rakel Zamaioa / Idoia Serna

Gizonezkoen txapelketa

- Eñaut Aranzeta / Enrike Elkoro
- Mikel Arkarazo / Eneko Ojanguren
- Ganix Belamendia / I. Azkarraga - Urizar
- Christian Rodriguez / Iñaki Kortabarria
- Josu Mañarikua / Beñat Arabaolaza
- Eneko Maguregi / I. Unzetabarrenetxea
- Enaitz Solaguren / Xabier Bikuña
- Gontzal Azkarraga Urizar / Unai Hernalttes

Oharra: gizonezkoen txapelketan final-laurdenak jokatzeko daude. Emakumezkoen txapelketa aurreratuago doa eta finalurrekoak dituzte jokatzeko.



Norica enpresak emandako karabinaren zozketa. IRATXE BRAVO

Sariak parte-hartzaile guztiendako

Norica enpresak emandako karabina eta askotariko enpresek eta establezimenduek jarritakoarekin osatutako otarra zozketatu zituzten zapatuan parte-hartzaileen artean. Horrez gainera, partaide bakoitzak botila ardoa eta poltsa bat jaso zituen.

Hamar igoera Intxortara

Zalaparta handirik sortu barik lortu du Pablo Egizabalek; segidan hamar aldiz igo da Intxortara, Mendizaleen plazatik irtenda. Erlojua 4.05.53an geratu du, guztira 28,3 kilometro eginda. Eguaztenez bete zuen erronka 16 urteko elgetarrak. Haren esanetan. hasierako eta amaierako igoerak izan ziren gogorrenak. Umeen txalo artean amaitu zuen proba.



PELLO IZAGIRRE

OHARRAK

Musika talde baterako zozketa

Musika talde baterako materiala erosteko herriko gazte talde batek antolatutako zozketako zenbaki saritua da 333.

Ipuinen Ordua gaur liburutegian

Liburutegiko ipuin kontalari talde boluntarioaren eskutik hiru saio: 17:30ean txikiak, 18:00etan ertainak eta 18:30ean handiak. Argibide gehiago, liburutegian.

Pantxoa Carrere gaur Espaloian

Azkaineko abeslari ezagunak *Esperantzan* izeneko emanaldia egingo du kafe antzokian, 22:30ean hasita. Sarrera 5 euro da (Ikus 41. orria).



Izaro Elorza eta Jone Arriolabengoa, Berdintasun Saileko batzordeburua eta teknikaria, erositako eraikinaren aurrean. UDALA

Kale Zaharrean egongo da Emakumeen Etxea

Sillero oinetako dendaren eta Ogiberri okindegiaren pareko eraikinean kokatuko da Emakumeen Etxea. Hiru pisuko eraikina da, ia 700 metro karratu. Aho batez onartu du udalbatzak horren erosketa maiatzeko osoko bilkuran

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Kale Zaharra kaleko 13. zenbakian kokatuko da Oñatiko Emakumeen Etxea, garai batean Illarramendi okindegia zegoen eraikinean. Hiru solairuko eraikina da: sarrerako oina eta beste bi solairu ditu, ia 700 metro karratu, eta Aita Madina kale-raino heltzen da kantoitik behe-ra. Herriko emakumeendako topagunea eta tailerrak, hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak egiteko espazioa ere izango da eraikin hori. Maiatzeko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez, eraikina erostea 289.500 eurotan.

Eraikinaren gainean

2017ko parte-hartze prozesutik etorri zen emakumeendako espazio baten diagnosis egiteko proposamena, eta berretsi egin zen 2020koan, Emakume Kontseiluaren, mugimendu feministaren eta Udaleko Berdintasun Sailaren babesa ere izanik. Uda-lasi hasi zen aztertzen beste toki

batzuetako ereduak, kudeaketa motak begiratzen, zein dinami-ka egon ahal ziren jasotzen... baina espazio erreal bat edukitzea beharrezkoa ikusten zuen aurrera egin ahal izateko. "Espazio fisiko bat barik zaila da hurrengo pausoa ematea, proiektua irudikatu behar duzu zerbaiten gainean, eta espazio hori sortzen eta topatzen hasi ginen", azaldu du Izaro Elorzak, Oñatiko alkateak eta Udaleko Berdintasun batzordeburuak.

Udalak, baina, ez zuen horretarako eraikin aproposik eta prozedura ireki baten bitartez deialdia egin zuen, Emakumeen Etxerako eraikin bat erosteko asmoa herritarrengan zabalduz. Pleguak ere atera zituen, gutxie-

neko batzuk jasoz: kokapena, gutxieneko metro karratu kopurua, argitasuna, irisgarritasuna edo autobus geltokiaren ondoan egotea, esaterako. Eskaintza bakarra jaso zuen, baina horrek eskatutakoa betetzen zuela ikusita, aho batez onartu zuen erosketa azken osoko bilkuran.

Informazio saioa ekainean

Hurrengo pausoa eraikina egokitzea izango da. Aurretik, proiektua egin beharko da eta lanak lizitaziora atera. "Proiektu bat egin beharko da lehenengo, obra handienak egiteko: egokitzeak egiteko, indartze-ko... Barrua bera eta dinamikak eta kudeaketa definitzeko parte-hartze prozesua egingo da herritarrekin", aurreratu du Elorzak. Proiektu estrategikotzat dute Emakumeen Etxea, eta miloi bat euro bideratuko dituztela aurrez dute esana. Gaiari buruzko azalpenak emateko saio irekia egingo dute ekainean.

PARTE-HARTZE PROZESU BIDEZ DEFINITUKO DITUZTE DINAMIKA ETA KUDEAKETA

Azken urtean HAPOri buruzko informaziorik ez duela dio EAJk

Informazioa eskatu du, eta EH Bilduk Planerako dituen irizpide eta helbururekin "kezkatuta" daudela esan

O.E.G. OÑATI

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorriari dagokionez Udal Gobernuak urtebetean ez duela ezer esan adierazi du alderdi jeltzaleak prentsa ohar bidez. Dio maiatzaren 10ean bete zela urtebete aurkezpene egin zutenetik, eta zein fasetan dagoen eta idazketa zelan doan jakin gura dutela. Idazketa informazio eta gardentasun faltarekin egiten ari direla salatu du EAJk.

Proposamenak kanpoan

Aldi berean, "EH Bilduk plane-rako aurkeztu zituen irizpide eta helburu orokorrekin kezkatuta" ere badagoela dio alderdi jeltzaleak prentsa oharrean: "Modu okerrean planteatu baitziren hainbat gai, batez ere esparru hauetan: bizitegi-lurzorua, industria arloa eta kirol arloko ekipamenduak". Etxebizitzetxei lotuta, jeltzaleek diote ez dela planteamendu egokia dotozen urteetako etxebizitzaren eraikuntza Cegasa eta Eroski-Berazaoko lurzoruetara bideratzea eta "errorea" izan dela haien proposamena, Garayrena, onartu ez izana. Bestalde, futbol zelai berrirako gunerik apropo-

sena Berezaio dela adierazi du berriz. "Gainera, hainbeste urtetan eskatutako kanpo igerilekuak egiteko eremu aproposa ere badela uste dugu". Haiek egindako proposamenei dagokionez, jeltzaleek diote oharrean "iradokizunen eta ekarpenen zerrenda bat" aurkeztu zutela: "Baina, azkenean, ez ziren kontuan hartu eta ez ziren planean barneratu".

Puntuak aztertu

Azken osoko bilkuran, maiatzekoan, gaiari buruz galdetuta erantzun zehatzik jaso ez zutela ere badiu EAJk oharrean. Izaro Elorza alkateak eta Hirigintza batzordeburuak erantzun zien idazketa taldea ari dela lanean: "Fitxaz fitxa informazio jaso eta banan aztertzea zen aukera bat, baina eurek egokiago ikusi dute dokumentua landuta dutenean guri pasatzea, udal mailan lantzeko eta hirigintzatik hartu behar diren erabakiak landu eta hor sartzeko. Hasierako onarpena izango den forma horretan egongo da euren txosten hori eta gero hasiko gara aztertzen. Puntu guztiak aztertuko dira. Uda aurretik izatea da asmoa".



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Nora zoaz?

Domeka edo jaiegunetan goizean goiz kotxea hartzea tokatzen bazaizu, ez da arraroa izango bai San Prudentzian, bai Mondragoen aldera edozein errotondatan, ertzainak alkoholaren kontrola egiten tokatzea.

Hasieran abiadura handia daramazula esaten ez badizu, beti galdera berberak egiten dituzte: "Nondik zatoz, nora zoaz?". Eta nire baitan zera pentsatzen dut: "Beraiei zer axola zaie ni nora noan". Luxenburgora noala esanez gero, seguru gaizki hartzen dutela. Helburua nire ahotsa edo jardura ikustea bada, beste modu batzuk badaude.

Dena dela, azken domeka honetan harridura handiagoa gertatu zitzaidan. Gelditzeko agindua eman zidan ertzainak, uniforme berri-berriarekin, distiratsua, azala beltzarana, eta askotan gertatzen den bezala, betiko galdera egin zidan, baina oraingoan normala ez dena, euskaraz. Hori bai, euskalduna!

Horrela bai nora goazen badakigula.



Damian Lizaur arkitektoarena da azoka, XX. mende hasieran egina. PLAZAOLA



Eskola, Santa Marinaran eraikia 1860ko harmarkadan. PLAZAOLA



Xabier Zelaia herriko plazan liburu eskuetan duela. O.E.

XIX. mendeko hirigintzaren datu basea egin du Zelaiak

Aktak irakurri, datuak jaso, ordenatu eta XIX. mendean Oñatiko hirigintzaren eta etxebizitzaren inguruko datu basea osatu du urte askoan Oñatiko Udaleko aparejadore izan den Xabier Zelaia Arzak; liburu batean erakutsi du egindako lana

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Artxiboaren ordenari garrantzi handia ematen dio Xabier Zelaiak, "hor ikusten direlako herriak izaten dituen garapena eta aldaketak". Eta horixe egin du lanean jardun duen toki guztietan. 1977an Oiartzunen hasi, 1979an Debagoieneko Mankomunitatera pasa eta 1980ko abendutik 2011n erretiroa hartu arte, aparejadore edo arkitekto tekniko moduan ibili da lanean, eta artxiboa ordenatzea izan da toki guztietan egin duen lehen lana. 31 urte egin ditu Oñatiko Udalean, eta ia-ia beste horrenbeste buruan zuen proiektu honi forma ematen: *Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta etxebizitzaren datu basea*. Aste honetan aurkeztu du lana herritarren aurrean.

Planoak eta argazki zaharrak

Mende hartan Oñatin egon ziren jarduerak eta horiek egondako eraikinak jaso ditu, eta herriko mapak ere osatu. 100 jardueratik gora jaso ditu Zelaiak datu base

horretan: baserriak, burdinolak, pospolo fabrikak, eskolak, medikuaren etxea, pilotalekua... "Kode bat du bakoitzak, eta modu horretara oso erraza izango da informazioa bilatzea. Jarduera bera eta elementu hori non kokatzen den erakusten du kodeak. Jendeari baliagarria izatea da helburua", dio egileak.

Lan hau egiteko, aktetan jasotako hirigintzari lotutako 13.000 erabakitik gora irakurri eta aztertu ditu, eta horietako 1.400 landu, hor jasotako informazioarekin planoak osatzen joateko. Udalak argitaratu eta azala Mirari Sagarzazu Sacristanek egindako liburuan datoz horietako plano batzuk, argazki zaharrek batera. Eta mende hartan Oñatik izandako aldaketa jasotzen du liburuan: lehen eskola, 1848an eta 1871n herriko plazan egondako aldaketak, 1886an Aita Madina kalean izandakoak, 1807. urtearen bueltan parrokiaren lurperatuta zeuden gorpuak handik atera behar zirela hartutako

erabakiaren ondoren Casablan kan eraiki zen herriko lehen hilerriaren datuak... eta beste hainbat pasarte eta anekdota historiko.

Artxiboa kontsultatzen bakarrik ez, beraz, artxiboa sortzen ere egin du lan Zelaiak lan honetarako: "Proiektuen artxiborik ez dago 1940 arte; dokumentazio orokorra bai, baina artxibo edo toki ezberdinetan sakabanatuta. Orduan, espediente fisikorik ezean, birtualak antolatzen hasi nintzen, akta-liburuak erabilia. Adibidez, 1848ko plano batean ikusten da orduko Oñati Kurtzetxotik Kurtzebeltzera zela. 1845ko beste bat zehatzagoa da, eta 1856ko erroldarekin zenba-

13.000 ERABAKITIK GORA IRAKURRI ETA 1.400 PASA LANDU DITU DATU BASEA OSATZEKO

kiak jarri ahal izan nizkien eraikinei, etxeei, eta aktetan ikusitako datuekin, plaza inguruko eraikin bakoitza, adibidez, zer zen zehaztu".

Beste hiru lan eginda

Hasitako lanak behartuta, XVIII. mendeko akta batzuk ere kontsultatu eta landu ditu, baina XIX.eko Oñatiko hirigintza da datu baseak jasotzen duena. "Gerra asko egon ziren mende hartan, industrializazioa eta modernizazioa ere etorri ziren, Oñatiko unibertsitatea galdu zen sasoia ere hura izan zen, eta erakarri egiten ninduen herriaren bilakaera jasotzeak. Biztanleriari dagokionez, ez zen aldaketa handirik gertatu, bestalde; 5.000 eta 6.000 pertsona artean bizi izan ziren mende osoan". Lanarekin batera uztartu du proiektu hau Zelaiak. 1994rako eginda zituen planoak eta hainbat marrazki etxeko ordenagailuan. "Honekin batera beste lan batzuk ere eginda ditut, beste hiru, zehazki, bakoitza gai konkretu bati buruzkoa: herriko bide azpiegiturak, lurraldetasuna eta administrazioaren antolakuntza eta hezkuntza ez unibertsitariar".

Hirigintzaren datu basetik ateratako liburu hau astean aurkeztu dute osoko bilkuren aretoan. 20 eurotan jarriko dituzte aleak salgai ohiko tokietan, eta datu basea Udalaren esku gelditu da.

Zazpitan emango zaie hasiera Olakua azoko jaiei

Gaur, egubakoitza, 19:00etan botako dute etxafuegoa eta domeka bitartean ospatuko dituzte jaiek auzo horretan. Kontzertuak, inguruko biosfera ezagutzeko edo mendi bizikletarekin egiteko irteera, zirkul tailerra, auzo bazkaria, bertso saioa eta domekako kadete mailako txirrindulari lasterketa, antolatutako ekitaldien artean.

Igerilekuak itxita egongo dira zapatu arratsaldean

Igeriketako Txantxiku saria jokatuko dute zapatu arratsaldean Zubikoa kiroldegiko igerileku handian, eta, ondorioz, igerilekuak itxita egongo dira erabiltzaileendako. Gipuzkoako hainbat elkartetako 200 igerilari baino gehiago etorriko dira Zubikoara; Aloña Mendikoak, tartean. Proba ondoko sari banaketa pilotalekuan egingo dute.

Bisita bereziak egingo dituzte artxiboan hilaren 9an

Artxiboan Nazioarteko Eguna da ekainaren 9a, eta bisita bereziak egingo dituzte Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan. Ordubetekoak izango dira: 10:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 18:00etan. Taldeak egingo dituzte, eta, plazak mugatuak direnez, izena eman behar da aurretik: 943 41 50 60 edo ahpg-gpah@gipuzkoa.eus.

Aralarrera irteera ekainaren 12an, Aloña Mendirekin

Aloña Mendiko mendi sailak antolatuta, Aralarrera egingo dute irteera hilaren 12an, Larraitzetik ibilbide zirkularra eginez. Bospasei orduan egiteko moduko eta zailtasunik gabeko hamalau kilometroko irteera, 07:00etan postetxetik irtenda. Izenak 9a aurretik eman behar dira Aloña tabernan. Federatuta egon behar da.



Aitor Olea, Jose Antonio Azpiazu, Joxe Fernandez, Xabier Ugarte eta Iñaki Olalde, asteleheneko aurkezpenean. O.E.

Ziklo berezia eskainiko diote Aita Madinari

Mende erdi beteko da, ekainaren 30ean, Aita Madina musika konpositore oñatiarra hil zela eta egitarau berezia prestatu du Artixa kultura elkarteak; hilaren 12an da lehen kontzertua. Musikegunak egitasmoaren barruan sartu du, halaber, Udalak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Duela bizpahiru urte hasi ziren Xabier Ugarte eta Jotxo Larrañaga Aita Madinaren lanak sailkatzen eta katalogatzen, late-randarren artxiboan. Ordurako bazuten buruan konpositorearen heriotzaren urteurrena, eta lanak eginda gura zituzten utzi eguna heltzen zenerako. Aste honetan aurkeztu dute kontzertuak, mahai ingurua eta disko aurkezpena, besteak beste, jasotzen dituen egitaraua.

Musikegunak barruan

Artixa Kultur Elkartearekin batera prestatu dute urteurreneko egitaraua. "Haiena da lana. Artixako kideok lagundu baino ez diegu egin", zioen elkarte kide Joxe Fernandezek astelehenean egindako aurkezpenean.

Hasieratik izan du Udala bidelagun Artixak egitasmo honetan eta pozik hartu du Kultura Sailak herritarrengandik etorritako ekimena. Aita Madinaren lanaren garrantziagatik,

Kontzertu bat baino gehiago

Ekainaren 12an parrokiaren egingo dute emanaldia Aitor Oleak eta Amaia Azpiazuk. Buenos Airesen eta New Yorken egindako piezak jo eta abestuko dituzte. Uztailaren 3an, haren kantuak abestuko ditu Oñati abesbatzak Zubillagan. Hots eta Ganbara abesbatzek eta Txorbela otxoteak ere hartuko dute parte Aita Madinaren omenaldian. Udazkenean izango da hori. Mahai ingurua eta disko aurkezpena ere egongo dira. Sarrerak, bost euro, ohiko tokietan.

gainera, aurtengo Musikegunak zikloaren barruan sartu du Udalak Zubillagako Txipitxaile baserrian jaiotako semearen lanak hobeto ezagutzeko antolatutako den musika ziklo berezia. "Azaroan egin ohi da Musikegunak, baina aurtun ekainaren 12an hasiko da eta udazkenean bukatu", adierazi du Oñatiko Udaleko Kultura batzordeburuak, Iñaki Olalde.

Organorako piezak

Era askotako piezak konposatu bazituen ere, organoarekin jotzekoak dira bereziki aipatzekoak. Hala, Aitor Olea organo jotzailea izango da, besteak beste, emanaldietako batzuetan. "Haren *Aita gurea* baino ez nuen ezagutzen hasieran, eta 1985ean, Juan Carlos Irizarren zuzendaritzapean Bartzelonan grabatutako zinta oparitu zidaten, *Poema sinfónico coral Arantzazu*. Zinta apurtu arte entzun nuen". Organorako egindako piezak ikusita, berezitasun handikoak zirela dio.

Santa Anan da Ganbararen bazkideendako kontzertua

Bihar, zapatua, da, 19:00etan, eta emakumeenak diren piezak eskainiko dituzte Ganbara Faktoriako abesbatzek

O.E.G. OÑATI

Urtero eskaintzen die emanaldi bat bazkideei Ganbara Faktoriak, eta aurtengoa zapatuan, ekainak 4, izango da, Santa Anan, 19:00etan. Estilo askotariko musika piezak abestuko dituzte Ganbara Txiki, Ganbara eta Hots abesbatzek, baina denak emakumeek sinatutakoak. Kontzertua borobiltzeko, bi pieza abestuko dituzte denek batera Amaia Zipitriaren laguntzarekin: Junkal Guerreroren *Non degu non?* eta Olatz Zugastiren *Bizirik gaudelako*. Hiru abesbatzek

gain, Amaia Zipitria eta Leire Egaña ere arituko dira, pianoan. 110 lagunek baino gehiagok parte hartuko dute.

Egun, 109 bazkide ditu Ganbarak, ohorezkoak diren Udala eta Ulma kooperatibaz gain. Elkartearen sostengu oso garrantzitsua dira guztiak eta bereziki prestatutako esker oneko kontzertua eskaini gura diete, beste behin, hiru abesbatzek. Bazkideak ez ezik, baina, ez direnak ere joan ahal izango dira. Zortzi eurotan daude salgai sarrerak, ohiko tokietan.

Denboraldiko azken kontzertua du bandak domeka eguerdian

Phil Collins, Blues Brothers, Sinatra, The Beatles, Queen eta Nino Bravo omenduko ditu Oñatiko musika bandak domekako kontzertuan. Haien abesti eza-gunenak joko ditu *Tributo a* izeneko emanaldian, denboraldiko azkena. Kontzertua 13:00etan da, Zubikoa pilotalekuan. Sarrerak aurrez eros daitezke Txokolateixan.

Zabalik dago haurren danborradan izena emateko epea

Datorren ikasturtean LH-3 edo LH-4 mailan egon eta danborradan parte hartu gura dutenek izena eman dezakete dagoeneko; ekainaren 10ean egingo dute zozketa. Izena emateko edo antolakuntzan parte hartzeko, mezua idatzi daiteke helbide honetara: oinatikotanborrada-txikia@gmail.com. Danborrada irailaren 24an izango da.



IÑAKI OLALDE

121 lan bertso-paperekin lehian

Gaztelekuak eta bertso eskolak antolatuta, domekan eman zituzten sariak —Maider Arregik, Andoni Egañak eta Unai Gaztelumendik *Bertso marraztuak* saioa egin zuten—. Sarituak izan dira: Nagore Ugarte eta Ane Atorrasagasti; Maddi Elorza eta Mireia Barreno; Enzo Elizburu; Gillen Biain; Maialen Mendizabal; Marina Axpe eta Izar Biain; Oihan Irizar; eta Ilargi Larra.

BERGARAKO JAIK GOIENAN



'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 3AN, EGUBAKOITZEAN, 19:00ETAN HASITA
BERGARAKO JAIEN HASIERA SAN MARTIN PLAZATIK

ZUZENETOKO



KUADRILLEN ARTEKO XII. OLINPIADAK

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 6AN, ASTELEHENEAN, 12:00ETAN HASITA
SAIOA ZEZEN-PLAZATIK

ZUZENETOKO



ERREKORTADORE TXAPELKETA

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 7AN, MARTITZENA, 19:00ETAN
BERGARAKO ZEZEN-PLAZATIK



'HEMEN DEBAGOIENA'

GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 6AN ETA 7AN, 18:00/20:00 ETA 22:00
BERGARAKO JAIEN ESKAINITAKO TARTE BEREZIA

BABESLEA

GE
grupo eibar
inmobiliario

lorentxoko
p25 - bizigune berria

goiena
Zu hemen zaude.



Xabi Gorroñoigoitia, Julen Otxandiano, Mikel Alkaide eta Aratz Kortazar, aste barruan, Musakolako kiroldegi aurrean. X.U.

"Amestutako liga amaiera da, eta bultzada areto futbolari"

XABI GORROÑOIGOITIA, JULEN OTXANDIANO, MIKEL ALKAIDE ETA ARATZ KORTAZAR MONDRATEKO ETA ESKORIATZAKO ORDEZKARIAK

ARETO FUTBOLA Zapatuan (18:30, Musakola) Mondrate eta Eskoriatza aurrez aurre izango dira ligako azken partiduan. Play-off-etara sailkatzea dago jokoan

Xabier Urtzelai ARRASATE

Kirol kazetaritzan sarri, sarri-
gi, erabiltzen den terminoa da
hil edo biziko partidua-rena.
Baina zapatuan (18:30, Musako-
la) Mondratek eta Eskoriatzak
jokatuko duten derbia halako-
xea izango da. Ligako azken
partidua izango da, eta Bigarren
Nazional Mailara igotzeko
play-off-etarako sailkatzea dago
jokoan. Joan den astean Duran-
goren kontra irabazi ostean
(7-0), Eskoriatza dago laugarren
(56 puntu). Mondrate (54 puntu)

bosgarren dago, Elorrion ber-
dindu (2-2) eta atzerapausoa
eman eta gero. Eskoriatzarren-
dako nahikoa da berdinketa,
baina Mondratek etxean jokatz
du. Eta moreek urte osoan par-
tidu bakarra galdu dute etxean.

**ESKORIATZAK PUNTU
BAT BEHAR DU
SAILKATZEKO, BAINA
MONDRATEK
GARAIPENA**

Ligako txapeldun Afantxoren
kontra izan zen.

**Joan den irailean ligako egutegia
hartu eta azken jardunaldian derbia
izango zenutela ikusi zenutenean...**

**Julen Otxandiano [Mondrateko
entrenatzailea]:** Amestutako liga
amaiera da hau, egutegia hartu
genuenean taldean broma giroan
ibili ginen komentatzen sekula-
koa izango zela azken partidu
honetan zerbait jokoan izatea.
Play-off-etarako sailkatzea edo
mailari eusteko borrokan ibiltzea,
ez genekien zein izango zen

egoera. Eta begira, bi taldeak
gaude mailaz igotzeko borrokan.
Honaingo iritsi gara biak, eta
orain, sailkatu dadila onena.
Noski, eta izan dadila Mondra-
te hori lortzen duena.

**Mikel Alkaide [Eskoriatzako en-
trenatzailea]:** Zapatuan oso par-
tidu polita izango dugu, eta,
askok uste ez duten arren, liga
ez genuen helburu honekin hasi.
Aldaketa handiak izan genituen
denboraldi hasieran, jokalaria
gazteen aldeko apustua egin
genuen eta jardunaldiek aurre-
ra egin ahala konturatu ginen
mailari eustea baino helburu
zorrotzagoak izan genitzakeela.
Zapatuan dena ematera joango
gara.

**Eskoriatzak bi puntuko alde dau-
ka. Erabakigarria izan daiteke?**

J.O.: Ez dut uste; gu garaipena-
ren bila kantxaratuko gara, eta,
akaso, hobe da bai edo bai ira-
bazi behar izatea, horrela ez da
egongo emaitzarekin espekula-
tzeko aukerarik. Etxean jokatz
dugu, eta berdintzeak ez digu
balio.

M.A.: Egia da amorrua eman
izan digula liga amaierako zen-
bait momentutan puntu gehiago
batu ez izanak; izan ere, lauga-
rren postua gure eskura geneu-
kanean beherakada izan genuen
eta atzera egin genuen sailka-
penean. Orain, berriro ere erre-
kuperatu dugu laugarren postu
hori, eta postu hori defendatze-
ra joango gara Arrasatera.

**Kantxan jokatuko duzue partidu
bat, eta harmailetan egongo da
beste bat.**

J.O.: Zalantza barik, harmailak
goraino beteko dira. Badakigu
Eskoriatza gurea baino errotua-
go dagoen taldea dela eta Esko-
riatzatik jende asko etorriko
dela. Baina etxean jokatz
dugu, eta guk ere gure zaleen babesa
izango dugu.

M.A.: Joan den astean, sekulako
jaia egin genuen Intxaurtxuetan.
Kirol elkartearen eguna ospatu
genuen eta zale asko etorri ziren
Durangoren kontrako partidua
ikustera. Eta irabazi egin genuen,
gainera. Zapatuan ez dugu etxe-
tik kanpora jokatz
gabiltzan
sentsazioa izango.

**ESKORIATZAK ZALE
ASKO EKARRIKO DITU;
MONDRATEK PARTIDU
BAKARRA GALDU DU
LIGAN ETXEAN**

**Zer egin beharko duzue kontrarioa
mendean hartzeko?**

**Xabier Gorroñoigoitia [Mondra-
teko kapitaina]:** Ez dut uste Es-
koriatzari irabazteko ezer bere-
zirik egin behar dugunik. Etxean
oso talde indartsua gara, eta
gogo handia dugu euren kontra
jokatzeko. Lagunen arteko par-
tidua izango da, baina intentsi-
tate handiz jokatuko dugu denok.
Etxean erakutsi izan dugun
mailari eutsi behar diogu.

**Aratz Kortazar [Eskoriatzako
kapitaina]:** Batetik, intentsita-
te handiz jokatu behar dugula
uste dut. Eta bestetik, partidu-
ko momentu erabakigarrietan
burua hotz mantentzea garran-
tzitsua izango da. Jokalari
gazteak ditugu taldean, eta,
askotan, hori falta izaten zaigu.
Dena dela, motibazioz ez zai-
gu falta eta oso garbi daukagu
Mondrateren kontra zelan jo-
katu behar dugun.

**Bistan dagoena da, emaitza edozein
dela, liga amaiera honekin Deba-
goienean areto futbolak jada ira-
bazi duela.**

X.G.: Zalantza barik. Horren
gertu dauden bi herrik halako
kategorian elkarren kontra jo-
katzea gauza handia da, eta
bietako batek mailaz igotzeko
borrokan jarraituko du. Uste
dut, bereziki, gazteendako dela
garrantzitsua, asko etorriko dira
zapatuan partidua ikustera eta
horrek animatu egiten ditu eu-
rak ere areto futbolean hastera.
A.K.: Uste dut bi taldeak urtez
urte joan garela areto futbola-
ri indarra ematen eta zapatu-
ko partiduen ondoren baila-
rako areto futbolak bultzada
handia izango duela. Alegia,
gazte mordoa datoz atzetik
areto futbolean, eta halako
mailako partidua batekin goza-
tzeko aukera izango dute.

'Harmailatik' berezia

Astelehenean *Harmailatik*
saioan (21:30) zabal
landuko dute derbiak
emandakoa. Laburpena
eta ondorengo
erreakzioak erakutsiko
dituzte, eta *play-off*-
etarako sailkatu direnak
telebistako platoon
izango dira.

Ekarpen zuzena egin dute Beasain 'historikoan'

FUTBOLA RFEFko Bigarren Mailara igo da Beasain, domekan play-off-etako azken partiduan Txantreari 3-0 irabazita. Lorpen horretan bi arrasatearrek parte-hartze zuzena izan dute, Igor Gordobil entrenatzaileak eta Mikel Aizpurua erdilariak

Xabier Urtzelai ARRASATE

Duela 20 urte igo zen azkenekoz Beasain Bigarren B Mailara, eta, ordutik, talde bagoilaria Hirugarren Mailan egonkortu da. Denboraldi ikusgarria egin ostean, baina, irailetik aurrera beasaindarrek RFEFko Bigarren Mailan jokatu dute, eta lorpen horren testigu, eta eragile, izan dira bi arrasatear: Mondrako jokalaria ohi Mikel Aizpurua eta trena gidatzeko ardura izan duen Igor Gordobil entrenatzailea. Hala, astelehenean, lorpenaren gaineko errepasoa egin zuten Goiena telebistako *Harmailatik* saioan. Aurreratu zuten, bien nahia da taldean jarraitzea.



Aizpurua, ezkerrean, eta Gordobil, Goiena telebistako platoon. M.B.

Hasiera txarra

Helburu zorrotzekin hasi zuen Beasainek denboraldia, baina segituan konturatu ziren zerbaitek ez zuela funtzionatzen, lehenengo bederatzi jardunaldietan hiru berdinketa baino ez zituzten-eta lortu, eta sei porrot. "Kontrarioek baino hobeto jokatzen genuen, baina partiduak galdu egiten genituen. Zerbaitean huts egiten genuen", dio Mikel Aizpurua. "Horregatik diot denboraldi hasieran inor gutxik espero zuela Beasain honaino iritsiko zenik, hasiera ez zelako batere ona izan".

Hala, hasiera txar hura zuzentzeko, Gordobil lantaldea jokalariekin batu zen. "Futbolearen badugu esperientzia apur bat, hainbat taldetan egondakoak gara eta badugu esperientzia. Bagenekien jokalariekin berba egin beharra geneukala. Gauza bat da teknikoki eta taktikoki taldea ondo lantzea, baina jokalariei entzutea ezinbestekoa da, gauza asko beste ikuspuntu batetik ikusten dituzte, eta egokitu egin ginen eurek esandakotara; jokatze modua aldatu egin genuen". Eta orduan hasi

ziren emaitza onak etortzen, garaipenak bata bestearen ostean. "Familia moduko bat sortu dugu Beasainen, denok izan dugu helburu berbera buruan eta hortxe egon da arrakastaren gakoa. Izan ere, halako txapelketa bat ez da 13 jokalariekin irabazten, jokalaria guztien inplikazioa behar da", dio Gordobilek. Eta Aizpurua ere garbi ikusi du hori. "Partidu asko ordezkoen aulkian zeuden jokalarien lanari esker irabazi ditugu. Edo, akaso, horregatik iritsi gara liga amaierara hobeto,

denok izan dugulako jokatze aukera eta minutuak banatuago egon direlako. Sasoi amaierara taldea indartsu iritsi da".

Gero, ikusgarri

Aurreratu moduan, ligako 9. jardunaldian Santutxuren kontra egindako 2-0ekoak arnasa eman zion talde gipuzkoarrari, eta hor hasi ziren egoera zuzentzen, hainbat hilabete geroago, joan den domekan, *play-off*-etako azken partidua aurreikusi baino errazago -3-0, Las Rozasen- irabazi duten arte. "Oraindik ez dugu barneratu egin duguna. Joan den domekan izan zen azken partidua, ondoren etorri dira talde afari eta ospakizunak... Eta uste dut oraindik ez garela lasai eseri egindakoaz hausnartzera. Aurrerago etorriko da hori", dio Aizpurua.

Bi talde gipuzkoar

Hori horrela, Beasain eta Real C taldeak izango dira, datorren denboraldian, RFEFko Bigarren Mailan izango diren talde gipuzkoarrak. Gordobilek garbi dauka, aurten sortu duten "familia" horri eutsi behar diote. "Hirugarren Maila zena baino lehiakorragoa da RFEFko Bigarren Maila, mailaz igotzeko asmoa duten taldeek aurrekontu politik izaten dituzte eta maila oso oneko jokalariek izaten dituzte. Esaterako, Sestao eta Arenas zelaietan jokatu dugu, liga zorrotza izango da. Hala ere, nik uste dut Beasainek aurtengo

"MONDRAN NINTZELA NORK ESANGO ZIDAN HONAINO IRITSIKO NINTZENIK"

MIKEL AIZPURUA, BEASAINGO ERDILARIA

taldeari eusten badio eta, horrekin batera, ondo indartzen bada, kategoria horretan lan txukuna egin dezakeela. Maila polita duten jokalaria gazteak ditugu taldean, kategoria berrira ondo egokitu daitezkeenak, eta baita esperientzia handia duten jokariak ere".

Jarraitzeko nahiarekin

Etorkizunaz galdetuta, Aizpurua hasi da berbetan. "Ea datozen bi asteetan klubarekin berba egin dezakegun. Bistan da oso erronka polita izango litzatekeela Beasainen jarraitzea, kategoria berri batean jokatu nukeelako, maila oso oneko jokalarien kontra... Norberak ere halakoetan hobetzeko aukera izaten du, eta nik gustura jarraituko nuke. Nork esango zidan duela 6-7 urte, Mondraren Ohorezko Erregional Mailara igo nintzenean, gaur egun hemen egongo nintzenik". Etorkizunari buruz berba egitera koan, entrenatzaile arrasatearrak irribarre eginez erantzun du; kontatu duena baino gehiago dakien seinale: "Osatu dugun familia honetan jarraitu nahi nuke nik ere, oso gustura egon naizelako Beasainen, argi daukat hori eta halaxe esan dugu, gainera. Baina klubarekin berba egin behar dugu, ea eurek ze asmo duten, ze aurrekontu izango duen taldeak... Badira berba egin beharreko gai batzuk, eta orduan hartuko dugu guk ere erabakia".

"FAMILIA BAT OSATU DUGU BEASAINEN, HOR EGON DA IGOERAREN GAKOA"

IGOR GORDOBIL, ENTRENATZAILEA

Aurrean ibili dira Legazpin

ZIKLISMOA Domekan jokatu zuten Euskal Herriko txapelketa, Legazpin, eta Bolintxo Okindegia - Lana S. Coop. taldeko ziklistak aurrealdeko postuengatik lehiari ibili ziren. Bada, Lokatzako neskek orain dituzte egutegiko hitzordu nagusiak. Datozen bi zapatuetan, esaterako, Espainiako Kopako lasterketak izango dituzte, Lizarran eta Valladoliden.



LOKATZA

PILOTA Leire Gleanok Nafarroako Torneoko finala du domekan

Nafarroako Foru Komunitateko Torneoko gazte mailako finala izango du Leire Gleanok domekan, Navarra Arenan, Iruñean (12:00). Antzuolakoak Goiuri Zabaleta izango du aurrean, eta elite maila barruan pilota mistoekin jokatu dute. Hirugarren postua erabakitze partiduan bikotea osatu dute Maddi Barrocalek eta Uxue Osesek.

TRIATLOIA Antxintxikak triatlloi txikia egingo du ekainaren 12an

Antxintxikak Bergaran egingo du, ekainaren 12an, gazteei zuzendutako triatlloi txikia. Agorrosin izango da hitzordua (09:00), eta ekainaren 10a da izena emateko azken eguna -*rockthesport.com* webgunean-. Benjamin, alebin eta infantil mailetako gaztetxoek zuzendutako hitzordua da, eta triatlloia gerturatzeko helburuarekin antolatzen dute.

"Elkarlan beharra zabaldu behar dugu"


GONTZAL MENDIBIL MUSIKARIA

Arizmendiarietaren bizitzako pasarteak eta ekintzak batzen dituen 'Hazia' ikuskizun musikala irailaren 17an estreinatuko dute Arrasateko Amaia antzokian

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA

Hazia musikala Arrasateko kooperatiben ereduia sustatu zuen pertsonaren irudikapen artistikoa da; hau da, Jose Maria Arizmendiarietaren bizitzaren irudikapen antzeztu-musikatua. Elkarlanaren eta talde-lanaren eredu izan den pertsona izan zela kontuan hartuta, musikala ere modu berean egin dutela adierazi du Gontzal Mendibilek, kultura proiektu honen atzean aritu den musikari ezagunak. **Hazia** ikuskizun musikalak Arizmendiarietaren bizitzaren hainbat zertzelada kontatzen ditu, baina sakontasunez, ezta?

Nire seigarren musikala da honako hau. Egin ditudanetik ederrenetakoa izango da, ederrera ez bada. Arizmendiarietaren bizitza kontatuko dugu, hark egindakoak; eta haren mezu eta balioak azaleratzea da asmoa, musika bidez. *Ametsak eraikitzen* leloarekin eta *Beti aurrera!* aldarri zuzenaren balio horretan finkatua. Hori horrela, ikuskizun musikala guztiz laikoa izango da, Arizmendiarieta apaiza zen eta. Bi ordu inguruko iraupena du musikalak, eta hamasei eszena batzen ditu. Hamaika musikari, hamasei antzezle-aktore, sei kantari eta Easo eta Goikobalu abesbatzak izango dira,



Gontzal Mendibil musikaria. E. AZURMENDI

Ohikako dantzakoen koreografia on batek lagundurik. Muntaia handia du, zailtasunak ditu, eta, gainera, lau argi-proiektzio ere baditu... Gauza polita izango da. Arizmendiarieta 1915ean jaio zen, Markinan, eta kontatuko dugu zein izan zen, nolakoa izan zen haren bizitza, eta baita gure herriaren etorkizunarako zer-nolako balio-bidea daukaten beraren balioek. Gaur egun, konpetentziaren munduan gaude, eta, hala, elkarlana-kooperazioa-konpromisoa oso baliagarria da.

Aurrelan handiko lana izango zenuen, duda barik. Nolakoa izan da sortze prozesua?

Duela hiru urte hasi ginen proiektu honekin. Musikal bat egin izan dudanean, pertsona azpimarratzea gustatu izan zait beti. Hala, Arizmendiarietaren bizitzari buruz asko irakurri ostean, haren mezuak poemetara pasatu ditut, eta gero, musikatu. Azken batean, haren mezuak dira kantu bihurtu ditugunak. Gidoia eta musika egin dut, baina hemen talde sendo eta ederra dago atzean. Esaterako, Arkaitz Gartzionandia izango da Arizmendiarietaren rola edo papera egingo duena. Esan beharra dut Arizmendiarietaren antza ere baduela... Hark kontatuko du nor zen, umezarotik hasita, zer-nolako oztopoak izan zituen... eta nik mezuak botako ditut; betiere, musikarekin. Gure herriaren elkarlan bidea, auzolana, asko gustatu zait beti; gure baliorik handienetakoa da, eta, Mondragon oso ezaguna da munduan zehar, baina ez da hain ezaguna nork sortu zuen.

Arizmendiarietak ereindakoak dira MCCren eta Mondragon Unibertsitatearen haziak eta lehen pausoak. Musikalaren izenburua ondo ekarri duzue.

Hazia hark sortu zuen; hura izango da hazia eta harizti bihurtuko da. Ikuskizunean, ezkur bat eramango diogu, opari gisa, antzokira datorren ikusle bakoitzari. Hala, guztiek hazia erein dezaten eta zuhaitzak hazi daitezen. *Arizmendiarieta* izena ere hortik dator; beraz, oso esanguratsua da *Hazia* musikalaren izenburua. Kantua honela hasiko da: *Hazia zen hasieran, eta haziz-haziz joan zen...* Eta amaieran, hariztia sortuko da. Hau da, bailara osoa, kooperatiben enpresa, lanbide eta guzti hori.

Arizmendiarietaren mezu deigarrien bat?

Niri deigarria egin zait bat; hark esaten zuen: "Kontzientzia hartzea hazia bezalakoa da". Hau da, nola imajinatu hazi batetik harizta sortu daitekeela. Esaten

zuen herrian sartzen diren ideiak ere halakoak direla. Hau da, gure ekintzetatik datorrela guztia. Utopia beharrezkoa dugu goian izatea, baina pragmatismoz eta errealismoz. Izan ere, ideiak aurrera eramateko, indarra lurretik egin behar dugu, oso ondo eraikitako hormekin. Hori da *Hazia* ikuskizun musikalaren nondik norakoa, eta kantua ere bide horretatik doa.

Zergatik joan behar dute herritarrek musikala ikustera?

Ziur nago antzokira sartzen dena oso ezberdin aterako dela aretotik. Arimaz egindako musikala da; lan artistiko handia da, eta, zenbait musikalekin arren, oso gustura geratu naiz honekin. Izan ere, uste dut gure herriak gaur egun duen elkarlan behar hori zabaldu egin behar dugula, herri legez.



'Hazia' musikalaren aurkezpena, Kulturaren batutakoak. ENEKO AZURMENDI

'Hazia'-ren ezaugarriak ereiten

Hazia musikalaren nondik norakoa aurkeztu zituzten egunean, Arrasateko Kulturaren. Ikuskizuneko hainbat protagonista, Arizmendiarietaren Lagunen Elkarteko kideak eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea izan ziren aurkezpenean.

IKER HIRIART 'HRT' ETA XADI AYASTUI 'K-PO'

RAP KANTARIAK

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOA

EKAINAREN 8AN, EGUAZTENEAN, 18:00ETAN, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN
'AKORDEAK' TARTEAN, BERGARAKO RAP KANTARIAK PROTAGONISTA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Ahots eskarmentuduna, kantu eta garai berrietan

Pantxo Carrere musikari azkaindarrak boskote formatuan aurkeztuko du Espaloia antzokian gaur, egubakoitza, 22:30ean, argitaratu berri duen *Esperantzan*, bakarkako bere bigarren lana; sarrerak bost eurotan eskuragarri, Karraju dendan eta leihatilan

Aitziber Aranburuzabala ELGERTA

53 urte dira Peio Ospitalekin taularen gainean kantuan hasi zenetik, eta gaur egun kantuan jarraitzen du lau musikari alboan dituela: Ritxi Salaberria –baxua eta kontrabaxua–; Angel Unzu –gitarra akustikoa eta elektrikoa, mandolina, eta bouzoukia–; Igor Telletxea –bateria eta perkusioak– eta Iñaki Dieguez –akordeoia, pianoa eta teklatuak–.

Ez ditu ilusioa ezta tresna duen ahotsa agortu oraindik eta kantatzen jarraitzeko gogoz dago, dagoeneko 73 urte baditu ere. "Kantua nahi dut eman herriaren zerbitzurako nire ideiak agertuaz, mundu hobeago bat eskatzeko arma ez bortitz ikaragarria da kantua. Mundu nahasi baten bizi gara, eskubide asko zango tratatua daude, esaterako, euskaldun izaeratik, zer esanik emakumeen eta gizonezkoen berdintasun alorrean, immigranteen egoerari begirata... Eta halako arazo askoren aurrean badut konfiantza aurrera egingo dugula; hortik dator, bada, diskoaren izenburua", azaldu du Pantxo Carrerek.

Kolaboratzaile askorekin

Folka, tradizioa eta popa nahasten ditu Carrerek *Esperantzan* laneko doinuei erreparatuta, eta



Pantxo Carrere Espaloia antzokian izango da gaur, egubakoitza. ANDER CARMONA

horien artean dira Ugo semeak sortu dizkionak. "Ondo baino hobeto ezagutzen du Ugok nire kantatzeko era, eta musikagintzan, orokorrean, duen jakintzarekin haren kutsua eman dio diskoari. Xabier Euzkitzeri eskatu nion *Esperantzan* kantuentzako bertso batzuk idazteko eta gure etxean asko miresten dugun Eñaut Elorrietarekin batera abestu dut diskoan, eta bada Euzkitzerekin abestu dudana *Pilota euskal jokoa* izeneko ere, orain dela 60 urte Xalbadorrek idatzi zuena".

Kolaborazio gehiago jaso ditu Azkaineko musikariak. "Sustrai Colinak idatzi ditu Ugoren beste melodia baterako hitzak eta, era berean, oso gustuko dudana Renaud Sechan frantses kantariaren bi kantu itzuli ditu. Agustín Alkat musikariaren laguntza ere izan dut eta pozik asko abestu dut Sarako abeslari gaztea den Patxi Garatekin eta baita nire seme eta alaba diren Ugo eta Naiarekin ere. Oso gogotsu nago beti hain ondo hartu nauzen eskualdean lan berria zuzenean aurkezteko".

'Kooperatibismoa gara' lana, Euspot-eko irabazle nagusia

Arkupe kultura etxean egin zuten ekitaldia atzo, eta sei sari banatu zituzten; horietako batzuk, partekatutakoak

A. A. ARETXABALETA

Euskarazko 95 iragarki jaso dituzte hamaikagarren Euspot lehiaketan, eta, epaimahaiaren esanetan, "spotaren kalitate teknikoa eta mezuaren egokitasunagatik", Jone Markuleta eta

Danel Teran oñatiarrak eta Bergarako Irene Azkargorta dira irabazleak –1.000 euroko saria–.

Bi lanen artean banatu dute, berriz, MUko ikasleen saria –500 euro–, boto berdinketarekin, eta gauza bera gertatu da 18 urtetik

700 bototik gora

Publikoak, oster, *Elkartu, berdin, konfidatu eta babestu* lana goraiatu du, Aretxabaletako Amaia Cataniak, Maddi Iturricastillok eta Nekane Ciardegik egin dutena.

Goienakideen txokoa

MAIATZEKO IRABAZLEAK

TD SYSTEM TELEBISTA (32")

Alaitz Urrutia Graña (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Iker Zubiria Murgiondo (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Luis Okina Agirre (Arrasate)

Itxaro Artola Lizarralde (Arrasate)

Xabier Vallina Agiriano (Arrasate)

SORALUZE JATETXERAKO

BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Kontxi Ugarte Anduaga (Oñati)

MONDRAGON HOTELERAKO

BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Amaia Irazabal Idigoras (Oñati)

ERUAN GASTROTEKARAKO

BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Arantzazu Garai Iturbe (Bergara)

'LOF LADIES ON FIGHT' DANTZALDIRAKO

SARRERAK

Olatz Arteaga Pagaldai (Bergara)

Lauri Askargorta Irizar (Bergara)

SARIK JASOTZEKO:

Aurikrutzeko sarrerak. Goiena Plubeko txartela eskutik, bina saria izango duen Aurikrutzeko txarteldagor. Sarrerak hiru hilabeteko epean izango dira. **ARRIKRUTZ KOBETAKO** sarrak auzoa, Oñati 943 08 20 00. Oñatigia: sarreratik igandea 10:00 - 17:00 (aurretik delia hiru ordu egiteko). Harman denda-otarra. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harman denda. Aretxabaletako Eroski hipermerkatuan duen denda. **Telebista** jasotzeko, sartu GOIENAREN egotzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA eskutik edota BAZKIDE ZENBAKIA editorea eraman behar da GOIENA Oñatiaren Lizenziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Oñatigia: sarreratik egunero 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00

Irabazi bi lagunendako otordua

HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari. Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: ekainak 7



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea

[[bazkidearen zenbakia]] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Gela bakarreko etxebizitza errentan ematen da Bergarako Madura kalean. Jantzia dago. Beheko solairua da. Gas berogailuarekin. Eraikina-ren kanpoaldea konpondu berri. Egokia pertsona bakarra edo bikotearentzat. Interesatuok deitu zerbaki hauetara: 688 61 76 87 edo 667 59 26 81

Donostia. Antigua azuozan etxebizitza ematen da errentan, udarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 687 78 50 45

Ezkarai (Errioxa). Zetaierako eta abuzturako errentan ematen da. Duplex berria da, erdigunean. Bi logela dauzka eta bakoitzean komuna dago. Sukalde amerikarra, egongela, garajea eta trastelekua. 688 84 36 04

Zumaia. Hiru logelako alojamendu turistikoa asteka errentan eskaintzen da, udan zein beste edozein urtarotan. Garajea ere eskaini nezake. Etxea 2019 urtean guztiz erreformatu zen eta Zumaia erdian dago, baina taberna giroetatik kanpo. Kontaktua: 678 22 22 29

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko etxe baten bila ari naiz. 608 15 37 07

Arrasate. Errentan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikote bat gara. 680 87 38 66

105. ETXEA OSATU

Arrasate eta inguruak. Etxebizitza partekatuko nuke, kontratuarekin eta erroldatzeko eskubidearekin.Presazkoa da. 681 10 64 74

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Etxeko garbiketa lanak egiteko pertsona baten beharra dugu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676 06 62 78

Ume zain. Goizetan umea zaindu eta eskolara laguntzeko pertsona euskaldun baten bila gabilta. Autoa ezinbestekoa. Ekainetik aurrera hasteko. Luzerako. 699 17 40 23

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Etxe, taberna eta abarrak garbitzen eta egunean zehar nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Titulazioak eta legezko

agiri guztiak dauzkat. 632 83 32 44

Arrasate edo Aretxabaleta. Neska euskalduna, esperientziaduna, gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. Ordutegi arazo barik. Telefonoa: 631 27 86 45

Arrasate edo Aretxabaleta. Orduka lan egingo nuke nagusiak zaintzen. Legezko agiriak egunean ditut. Telefonoa: 616 88 49 54

Arrasate edo Bergara. Mutil arduratsua gertu goizetan zaintza lanak egiteko. Baita asteburu goizetan ere. Telefonoa: 602 17 81 32

Arrasate edo Bergara. Nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke egunean zehar. Baita orduka ere. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. 632 44 71 84

Arrasate eta inguruak. Jatetxeko sukaldari laguntzaile edo zerbitzari bezala lan egingo nuke. 635 87 82 10

Arrasate. Kaixo! Magisteritza ikasketak dituen neska gazte euskalduna ekainean eta uztaillean prest haurrak zaintzeko. Edozein galdera, deitu. Mila esker! 689 09 09 97

Arrasate. Soziosanitario titulazioa daukan neska egunean zehar, orduka, nagusi zein umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko gertu. Telefonoa: 643 47 40 94 (Alba)

Bergara eta inguruak. 16 urteko neska euskalduna goizetan etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen jarduteko prest. Ekaina eta uztaila bitartean. 688 73 67 77

Bergara. Bergaran bizi den neska gazte bat naiz eta irailetik aurrera goizez umeak zaintzeko prest nago. 676 31 76 53

Bergara. Haur hezkuntzako gradua bukatu berri duen neska gaztea naiz. Astean zehar, goizetan, haurrak zaintzeko prest nago. Arduratsua eta lasaia naiz. 619 50 82 13

Bergara. Emakumezkoa prest nagusiak zein haurrak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera eta asteburuak barne. Telefonoa: 685 39 93 28 (Jenny)

Bergara. Emakumezkoa prest nagusiak zein haurrak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera eta asteburuak barne. Telefonoa: 685 39 93 28 (Jenny)

Debagoiena. Adineko pertsonak zaintzen lan egin nahi dut. 632 77 13 43

Debagoiena. Arratsalde-tan umeak zainduko nituzke. 600 64 14 50

Debagoiena. Astean zehar arratsaldetan eta asteburuetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 600 00 51 60

Debagoiena. Asteburuetan garbiketa lanetan edota pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 677 14 64 29

Debagoiena. Baserriko lanetan, nekazaritzan eta abelzaintzan lan egingo nuke. Nagusiak zaintzen ere bai, eta gainera denetarikoko garbiketarako egiteko titulazioa daukat. 643 47 39 37 (Yessid)

Debagoiena. Bertako neska bat naiz eta lan egingo nuke nagusiak edo umeak zaintzen zein etxeko lanak egiten. Titulazioa eta Jaurilaritzaren ziurtagiria dauzkat. Telefonoa: 618 03 65 02 (Elena)

Debagoiena. Egunean zehar, orduka, zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. 691 28 53 25

Debagoiena. Emakumea prest pertsona nagusiak zaintzeko, goizetan eta gauetan. Legezko agiri guztiak eguneratuta dauzkat. 647 31 48 17

Debagoiena. Emakumezkoa prest zerbitzari bezala, garbiketa lanetan eta haurrak zein nagusiak zaintzen aritzeko. 691 09 53 32 (Jenni)

Debagoiena. Erabateko prestutasuna daukat lanean hasteko; sukaldari laguntzaile bezala, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen eta abar. 609 31 34 36

Debagoiena. Eskarmentu handiko mutil arduratsua naiz eta lanean hasteko prest nago; pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan. Telefonoa: 642 94 42 07

Debagoiena. Etxeko langile, tabernari, garbitzaile edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 635 87 82 18

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 666 80 48 11

Debagoiena. Garbiketetan, eraikuntzan edota zaintza-lanak egiteko prest egongo nintzateke. 641 360 132

Debagoiena. Gizarte eta osasun arreta ikasketak dituen emakumea pertsona nagusiak zaintzeko

prest. Goizeko 10:00etatik 14:00etara, gauetz edota asteburuetan. Telefonoa: 647 31 48 17

Debagoiena. Hamazazpi urteko esperientzia daukat pertsona nagusiak zaintzen. Lanean hasteko prest nago. 643 73 52 93

Debagoiena. Lan egin nahi dut: sukaldari laguntzaile bezala, pertsona nagusi edota umeak zaintzen, garbiketa lanetan. 609 31 34 36

Debagoiena. Mutil arduratsua adinduek zaintzeko prest. Titulu soziosanitarioarekin eta esperientzia askorekin. Telefonoa: 642 94 46 02

Debagoiena. Mutil kolonbiarra zaintza lanetarako, eraikuntzan, garbiketetan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. 603 32 80 00

Debagoiena. Mutil latindarra gauetz lan egiteko prest. Nagusien zaintzarako ospitalean edota atari zein elkarte gastro-nomikoetako garbitasunerako. Telefonoa: 671 37 43 05 (Pablo)

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko, baserriko lanetan, eraikuntzan edota denetarikoko garbiketa lanetan jarduteko. Autoa daukat. Inte-

resatuok deitu zerbaki honetara: 645 72 92 87

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka. Telefonoa: 602 58 98 19

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. 631 34 11 68

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta atari, taberna, jatetxe eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. 631 92 67 24

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta atari, taberna, jatetxe eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 94 62 82

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Gauetan edo goizetan. Legezko agiriak egunean ditut. 602 49 39 31

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaintzen edota sukalde laguntzaile moduan lan egiteko. 696 84 19 51

Debagoiena. Neska arduratsua, soziosanitario titulazioarekin, zaintza lanetarako gertu. Etxean bizi izaten, egunez zein orduka. 688 85 44 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa-lanak egiteko prest. Interesatuok deitu

telefono zerbaki honetara: 623 44 49 68 (Imad)

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Hamabost urteko eskarmentua daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 617 45 10 85

Debagoiena. Propaganda banatzaile edota eraikuntzako laguntzaile moduan lan bila dabilen mutila naiz. 642 36 70 42

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukan neska nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Deitu telefono zerbaki honetara: 631 19 02 54

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta lanean hasteko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 602 07 40 39

Debagoiena. Umeak zaintzen esperientzia duen eta soziosanitario ikasketak egiten dabilen neska ordukako lan bila. Tabernan, umezain, nagusien zaintzan edota garbiketa lanetarako. Telefonoa: 642 37 01 92

Debagoiena. Persona helduak zainduko nituzke asteburuetan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 81 08 63

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



BITORIANATXOREN JAITSIERA ZUZENEAN

'Hemen Debagoiena, jaietan' Egubakoitza, 19:00



KUADRILLEN ARTEKO XII. OLINPIADAK ZUZENEAN

'Bergarako jaiak' Astelehena, 12:00

EGUBAKOITZA, 3	ZAPATUA, 4	DOMEKA, 5
08:00 Hemen da Miru 08:30 Elkarrizketa: Santi Leone 09:00 Galdegazte: Asier Urzelai 09:30 Elkarrizketa: Santi Leone 10:00 Hemen Debagoiena jaietan 10:30 Goiena 0 km gida 5 11:00 Elkarrizketa: Santi Leone 11:30 Hemen Debagoiena jaietan 11:00 Goiena 0 km gida 5 11:30 Elkarrizketa: Santi Leone 12:00 Osoko bilkura: Bergara 13:00 Hemen Debagoiena jaietan 14:00 Galdegazte: Asier Urzelai 14:30 Akordeak 12 15:00 Osoko bilkura: Oñati 15:30 Hemen Debagoiena jaietan 16:30 Asteko errepasoa 17:30 Elkarrizketa: Santi Leone 18:00 Akordeak 12 18:30 Hemen Debagoiena jaietan 19:00 Osoko bilkura: Bergara 20:30 Akordeak 12 21:00 Galdegazte: Asier Urzelai 21:30 Hemen Debagoiena jaietan	08:00 Hemen da Miru 08:30 Hemen da Miru 09:00 Hemen da Miru 09:30 Galdegazte: Asier Urzelai 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Elkarrizketa: Santi Leone 11:30 Osoko bilkura: Oñati 12:00 Akordeak 12 12:30 Hemen Debagoiena jaietan 13:00 Hemen Debagoiena jaietan 14:30 Osoko bilkura: Bergara 15:30 Akordeak 12 16:00 Elkarrizketa: Santi Leone 16:30 Galdegazte: Asier Urzelai 17:00 Hemen Debagoiena jaietan 18:00 Asteko errepasoa 19:00 Goiena 0 km gida 5 19:30 Hemen Debagoiena jaietan 20:30 Elkarrizketa: Santi Leone 21:00 Hemen Debagoiena jaietan 22:00 Akordeak 12 22:30 Osoko bilkura: Oñati 23:00 Hemen Debagoiena jaietan	08:00 Hemen da Miru 08:30 Hemen da Miru 09:00 Hemen da Miru 09:30 Galdegazte: Asier Urzelai 10:00 Asteko errepasoa 11:00 Elkarrizketa: Santi Leone 11:30 Osoko bilkura: Oñati 12:00 Akordeak 12 12:30 Hemen Debagoiena jaietan 13:00 Hemen Debagoiena jaietan 14:30 Osoko bilkura: Bergara 15:30 Akordeak 12 16:00 Elkarrizketa: Santi Leone 16:30 Galdegazte: Asier Urzelai 17:00 Hemen Debagoiena jaietan 18:00 Asteko errepasoa 19:00 Goiena 0 km gida 5 19:30 Hemen Debagoiena jaietan 20:30 Elkarrizketa: Santi Leone 21:00 Hemen Debagoiena jaietan 22:00 Akordeak 12 22:30 Osoko bilkura: Oñati 23:00 Hemen Debagoiena jaietan

MARTITZENA, 7

ERREKORTADORE TXAPELKETA

'Bergarako jaiak'

19:00

MARTITZENA, 7

BERGARAKO PENTEKOSTEAK

'Jaiak saio berezia'

21:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 8



ELKARRIZKETA NEREA IBARZABALI 'Elkarrizketa'

21:30

EGUAZTENA, 8

HRT ETA K-PO RAP KANTARIAK

'Akordeak'

18:00/20:00/22:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz zer daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Marixol Garitano Arrieta



2022ko maiatzaren 31n hil zen, 91 urte zituela.

Izeba maitagarria.

Zure ilobak: Garciandia Mugica, Garcia Mugica, Pastor Mugica eta Mozos Mugica.

Bergaran, 2022ko ekainaren 3an.

OROIGARRIA

Pedro Zubiagirre Uriarte



2022ko maiatzaren 17an hil zen, Donostian.

Txantxiku Txoko elkartekook ez ditugu ahaztuko zurekin bizitako momentu onak.



Oñatin, 2022ko ekainaren 3an.

OROIGARRIA

Jesus Arregi Irastorza



2013ko ekainaren 7an hil zen.

Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.

Antzuolan-Urretxun, 2022ko ekainaren 3an.

ESKER ONA



Pedro Martin Moñux Soria



2022ko ekainaren 1an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko ekainaren 3an.

ESKER ONA



Francisca Urkaregi Laka



2022ko maiatzaren 27an hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko ekainaren 3an.

ESKER ONA



Jabier Uribarren Leturiaga



2022ko maiatzaren 31n hil zen, 82 urte zituela.

Lerro hauen bidez Jabierren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Aramaion, 2022ko ekainaren 3an.

HILDAKOAK

Dolores Zarraoa Zarraoa. Arrasaten, maiatzaren 27an. 81 urte.

Francisca Urkaregi Laka. Bergaran, maiatzaren 27an. 78 urte.

Juliana Galdos Lazkano. Arrasaten, maiatzaren 28an. 95urte.

Mari Carmen Larrañaga Zubiaurre. Bergaran, hilaren 28an. 77 urte.

Jabier Uribarren Leturiaga. Aramaion, maiatzaren 31n. 82 urte.

Francisco Javier Errasti Larrea. Aramaion, maiatzaren 31n. 85 urte.

Jose Mari Arana Isasmendi. Arrasaten, maiatzaren 31n. 87 urte.

Marixol Garitano Arrieta. Bergaran, maiatzaren 31n. 91 urte.

Jose Mari Gallastegi Lamarain. Bergaran, maiatzaren 31n. 98 urte.

Pedro Martin Moñux Soria. Bergaran, ekainaren 1ean. 73 urte.

ESKER ONA



Jose Mari Ansoategui Fernandez de Arroiabe



2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko ekainaren 3an

ESKER ONA



Dolores Zarraoa Zarraoa



Mariano Urrutiaren alarguna

2022ko maiatzaren 27an hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko ekainaren 3an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 3 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 4 FERNANDEZ: Mussakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 5 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 6 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 7 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 8 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 9 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 3 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 4 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 5 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 6 URRITIKOETXEA: Oxirondo kalea 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 7 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 8 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 3 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 4 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 5 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 6 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 7 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 8 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 9 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2012ko abuztuaren 15era arte:
AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2022 osoan:
URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ROBESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gudan izan duzuen konfiantzagarritik eta maitasunagarritik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

BERRI-ZAKUA

**Txakolina probatzen**

Getariako Txakolina jatorriko sei upategitako ardoa dastatu zuten herritarrek aurreko asteburuan Aretxabaletan. Jatekoa ere izan zuten bertako ekoizleen eskutik, eta Buztintxuriko eta Bihotza Erraldoi eta Buruhandien Konpartsakoek girotu zuten festa. Bi urteko etenaren ostean, ederki gozatu zuten txakolinaz.

61 urte ezkontuta

Maria Altuna eta Pedro Agiriano senar-emazte arrasatearrek 61 urte bete zituzten ezkontuta maiatzaren 27an. Familian ospatu zuten, eta, argazkian ikusten den moduan, ilobak ez ziren falta izan: Markel, Asier eta Irati. *Txiki* txakur maitagarria ere ezin ospakizunetik aparte utzi. "Zorionak, etxekoen partetik! Egon gaitezen urte askoan elkarrekin".

Sagardotegira elkarrekin

Pandemia aurretik zuten ohitura berreskuratu eta, bi urteko etenaren ondoren, sagardotegira egin zuten irteera Oñatiko Trautiko kideek. Zeraingo Oiharte sagardotegian egon ziren, Gurutze Gorriko boluntarioekin batera. Guztira, 27 elkartu ziren mahaiaren bueltan. Kontu-kontari ibili ostean, elkarrekin jarri ziren Santi Mendiolaren argazki-kameraren aurrean.

**Arte azoka**

Arrasate Margo Taldeko hamalau kidek margolanak ipini zituzten ikusgai eta salgai aurreko asteburuan. Akwarelak, olio lanak, akrilikoak... Askotariko teknikak erabiliz egindako lanak. Herritarrek ez zuten hutsik egin, eta herrian artista onak daudela berretsi ahal izan zuten. Lanak kalean erakutsi ostean, azarorako erakusketa bat prestatzen dihardute.

**Zenbait belaunaldi batera**

Aurreko asteburuan ospatu zen Bergarako Musika Eskolaren 31. Udaberri jaia. Hainbat auzotan emanaldiak egin ostean, San Martin plazan elkartu ziren musikariak. Tartean, lazkanotarren zenbait belaunaldi: Jose Ramon aita, Amaia eta Asier seme-alabak eta Erik eta Elsa bilobak.

Kolorea ludotekari

Pentsatu eta egin! Elgetako ludoteka zerbitzuko erabiltzaileak margolaritza lanetan ibili ziren aurreko egubakoitzean. Eguraldi ona baliatuta, ludotekaren kanpoko aldean dauden burdinazko hizkiak koloreztatu zituzten. Kolore pila daude hitz bakar batean.

**80 urteak ospatzen**

1942an jaiotako hainbat bergararrek urtebetetze borobila ospatu zuten. Elkarrekin bazkaldu zuten Zumelaga jatetxean. Egun borobila pasa zuten. Besteak beste, gazte garaiko kontuak ekarri zituzten gogora bazkalostean. Hurrengo urterako hitzordua egin dute.



Elkartasun omenaldia
Alfredo Najeraren omenezko futbol txapelketa FundAME muskulu atrofia espinalaren aurkako fundazioari babes ekonomikoa emateko baliatu du aurten Bergara Kirol Elkartek. Etxeko taldeekin batera, Elorriok eta Realak parte hartu zuten elkartasun txapelketan. Emakumezkoetan Elorrio eta gizonezkoetan Real gailendu ziren. Elkartasuna izan zen protagonista Ipintzan eta Agorrosinen.



Bertso onenak
Oñatiko gaztelekuko XIII. bertso-paper lehiaketako sariak banatu zituzten aurrekoan. Saria jaso zutenek euren bertsoak kantatu zituzten Maider Arregi eta Andoni Egaña bertsolarien aurrean. Gainera, Unai Gaztelumendi marrazkigilearen karikatura bana jaso zuten. Guztira, 121 lan aurkeztu zituzten.



Luxenburgon musikaz gozatzen
Europako Gazteen XIV. Musika Jaialdia egin dute maiatzaren 26tik 28ra Luxenburgon. Euskal Herriko musika eskolen ordezkariaren barruan izan da Debagoieneko ordezkariarik: Bergarako Musika Eskola –beheko argazkia– eta Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskola –goikoa–. Launa kontzertu eskaini dituzte hiru egunean.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Aiora eta Alaia Murgoitio
Ekainaren 8an, 8 urte. Zorionak, bikote! Jadanik 8 urtetxo gure artean... Ederto ospatu zuen urtebetetze eguna eta patxo handi bat familia guztiaren partetik!




ARRASATE
Julen Alonso Tena
Ekainaren 7an, 7 urte. Zorionak, Julen! Asko disfrutatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Unai Bengoa
Ekainaren 6an, 36 urte. Zorionak, Zatza, bihurritxo hori! Zure 'lagunen' partetik!



ARETXABALETA
Alain Rodriguez Arca
Ekainaren 5ean, 9 urte. Zorionak, txapelduna! Beste urtebete eta aurrera. Ondo pasatu eguna familiarekin batera. Muxuak lehengusuen eta gurasoen partetik.



BERGARA
Enara Arrillaga Urbiet
Ekainaren 5ean, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Jarraitxu beti bezain alai izaten! Muxu bat familia osoaren partetik!



BERGARA
Amets Uribesalgo Uzin
Ekainaren 5ean, 8 urte. Zorionak, txapeldun, familia osoaren partetik. Batez be, aitaxo, amatxo eta anaia Egoitzenak. Patxo erraldoi bat!



ARRASATE
Jon Bereziartua Zabala
Ekainaren 5ean, 7 urte. Zorionak, potxolo! Zazpi urte munduari irribarre egiten, zazpi urte guretzako bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!



BERGARA
Ekaitz Calvo Urdanpilleta
Ekainaren 3an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Oso ondo pasatu zure egunian, mutil handi! Patxo potolo-potolo bat danon partetik.



ARRASATE
Maddi Etxebarria Maortua
Ekainaren 3an, 8 urte. Zorionak, Maddi! Dagoeneko 8 urte bete dituzu. Segi horrela, polit hori!



ARETXABALETA
Malen Makazaga Revalo
Ekainaren 3an, 4 urte. Zorionak, preioxi! Egun polita eduki eta primeran pasatu zure egunean! Patxo handi bat familia osoaren partetik.



BERGARA
Haizea Mujika Beistegi
Ekainaren 2an, 12 urte. Zorionak, Haizea! Oso ondo pasatu zure egunian. Ederto ospatuko dugu! Muxu handi bat, maitxi.



ESKORIATZA
Enara eta Olatz Urrutia
Enarak ekainaren 2an, 15 urte eta Olatzek 4an, 11 urte! Zorionak, bikote! Oso ondo pasatu zuen urtebetetze egunak! Segi gure bizitzak alaitzen!



ANTZUOLA
Iker eta Maddi Larrea
Ikerrek ekainaren 2an, 45 urte eta Maddik ekainaren 3an, 9 urte. Zorionak bixoi. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunak. Muxu handi bana etxeko danen partetik.



BERGARA
Ruben Hidalgo
Maiatzaren 31n, 37 urte. Zorionak, aita! Urte askotarako! Ondo pasatu eguna, etxekoen partetik. Muxu handi bat.



ARRASATE
Haizea Errasti Canales
Maiatzaren 29an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean, maitia. Muxu asko etxeko guztien partetik.



OÑATI
Luka Goitia Osinaga
Maiatzaren 27an, 4 urte. Zorionak, xagutxo! Ailau da zure eguna. Segi zaren moduko alaia eta goxua izaten. Asko maitte zau!



OÑATI
June Urtaza Ronda
Maiatzaren 27an, 11 urte. Zorionak etxeko danon partetik. Egun ederra izan dezazula, eder hori! Patxo handi bat etxeko printzesarendako!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



PANTXOA CARRERE

ELGETA Pantxo Carrere

Esperantzan izeneko emanaldia egingo du abeslari lapurtarrak. Lan berrian Xabier Euzkitze eta Eñaut Elorrieta izan ditu bidelagun, besteak beste. Sarrerak, bost euro
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.



'ESKORIATZA.EUS'

ESKORIATZA 'La caja tonta' antzezlan

Eskoriatzako Ausartak antzerki taldearen lana. Telebistako saioei umorezko kritika egingo diete. Emanaldi bikoitza egingo dute. Sarrerak, bost euro.
Zapatuan eta domekan, Zaldibar antzokian, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 3

BERGARA Pentekoste jaiak

Egun osoko egitaraua. Besteak beste, txupinazoa, familiendako erromeria eta Añube eta Los Zopilotes Txirriaos taldeen kontzertuak.
Bergaran.

ARRASATE Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa

Amerika elkartearen eskutik.
Kulturaten, 17:30ean.

ELGETA 'Ipuinen ordua'

Liburutegiko ipuin kontalari taldearen eskutik. 17:30ean, HH-ko 3. eta 4. mailetako umeendako; 18:00etan, HH-ko 5. mailakoendako eta LH-ko 1. eta 2. mailetakoendako; eta 18:30ean, LH-ko 3., 4., eta 5. mailetakoendako.
Liburutegian, 17:30ean.

ARRASATE Jostailu truke merkatua

Jostailuak trukatzeko eguna. Txartel bakoitzeko jostailu bat.
Monterron parkean, 18:00etan.

OÑATI Olakuako jaiak

19:00etan, jaien hasiera, trikitilarien, erraldoien eta txorimaloen kalejirarekin; eta 22:00etan, Obstruccion Nasa HC, Animales Muertos eta Kaos Etilliko taldeak.
Olakuan.

ARETXABALETA 'Dantzastea'

19:00etan, dantza garaikidea LaRutan konpainiarekin, *Out of the blu*; 19:30ean, kizomba saioa; eta 20:30ean, dantzarriak.
Herriko Plazan.

ELGETA Beheko kaleko jaiak: tonbola

Jaiak finantzatzeko, txartelak salduko dituzte.
Plaza barrenean, 19:00etan.

ARAMAIO Jukebox taldea

XIII. Musika Jaialdiaren baitan.
Sastiñan, 19:30ean.

ESKORIATZA Nhil taldea

Bizi bagina bezala diskoa aurkeztuko dute Sara Alonsok, Asel Errastik, Xabi Zuazabeitiak, Lia Garaik, Aitor Ruiz de Austrik eta Beñat Arrietak. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 20:00etan.

ELGETA Pantxo Carrere zuzenean

Esperantzan izeneko emanaldia egingo du abeslari lapurtarrak. Sarrerak, bost euro.
Espaloian, 22:30ean.

ZAPATUA 4

BERGARA Pentekoste jaiak

Egun osoko egitaraua. Besteak beste, erraldoien kalejira, errektadoreen txapelketa, bakailao lehiaketa eta Kerobia eta Skabidean taldeen kontzertuak.
Bergaran.

OÑATI Udalekuak: begiraleen lehen prestakuntza-saioa

Ordutegia: 09:00-13:00 eta 14:00-17:00.
Eltzian.

ESKORIATZA 24. Ferixie

09:00etan, etxafuegoak; 09:30ean, txistularien kalejira; 10:00etan, Ferixaren hasiera eta txorimalo lehiaketa; 11:00etan, gazteendako tailerrak eta puzgarriak eta gazta dastatzea; 12:30ean, Eskoriatzako dantza taldearen saioa; 15:00etan, *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria; 18:30ean, txapel jaurtiketa; eta 20:00etan, larrain dantza.
Fernando Eskoriatza plazan.

OÑATI Olakuako jaiak

10:00etan, zirku tailerra, Txatxilipurdirekin; 12:00etan, haurrendako mendiko bizikleta ibilaldia; 14:30ean, auzo bazkaria; 17:00etan, sormen txokoa, Txatxilipurdirekin; 19:00etan, txorimaloekin *photocall*-a, eta talogileak; 19:00etan, Bidean taldearekin erromeria; eta 22:30ean, Sweet Rage eta Mila Modu taldeak.
Olakuan.

ARETXABALETA UDA Festa

10:00etan, etxafuegoak; 10:30ean, hiruko txapelketa, Ointxeren eskutik; 10:30ean, alebiren *street* futbola; 12:00etan, buruhandiak eta erraldoiak, Arrasateko gaitariekin; 14:00etan, paella erraldoia eta txahal-mokadutxoa; 16:00etan, mus txapelketa eta kuadrillen arteko

jokoak; eta 20:00etan, Gozategi taldearen erromeria.
Herriko Plazan.

ARAMAIO Aramaioko Mendi Astea: 50. urteurreneko ospakizuna

10:30ean, Orixoleko gailurrean plaka aldaketa; 14:00etan, argazkia plazan; 15:00etan, herri bazkaria; 18:30ean, batukada; eta 22:00etan, kontzertuak.
Aramaion.

ARRASATE 23. Arrasatetik Mundura Elkartasun Eguna

10:30ean, tonbolaren hasiera; 11:00etan, puzgarriak; 11:30ean, trikiti eskolakoen emanaldia; 12:00etan, Txikitxu-Arrostaitz taldearen dantzaldia; 12:30ean, Arrasate Musikaleko gaitariak; 13:00etan, Arrasate Musikaleko talde gazteak; 16:30ean, puzgarriak; 18:00etan, *Lau haizetara* ikuskizuna, umeendako; 19:00etan, txokolate-jana, Bidezko Merkataritzako produktuekin; 19:30ean, Erromintxelak taldearen emanaldia; eta 20:30ean, Ibai-arteren zozketa.
Seber Altube plazan.

ARRASATE 'Arrasateko pertsonaia esanguratsuak' bisita gidatua

Esteban Garibai eta Pedro Biteri ezagutzeko aukera. Izenak: 943-25 20 00 eta *turismo@goiena.eus*. 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gaztelera.
Herriko Plazan, 11:00etan.

ARRASATE Saxofoi emanaldia

Arrasate Musikaleko ikasleak.
Musika eskolan, 11:30ean.

ESKORIATZA 'La caja tonta' antzezlan

Eskoriatzako Ausartak antzerki taldearen lana. Telebistako saioei umorezko kritika egingo diete. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI 'Emakumeek idatzia' kontzertua

Ganbara Faktoriako taldeen emanaldia, bazkideendako.
Santa Anan, 19:00etan.

DOMEKA 5

ARRASATE 'Arrasateko bira: ekialdea' ibilbidea

Asuela, Bakue eta Anporreta inguruetan. Izenak: 943-25 20 00 edo *turismo@arrasate.eus*.
Herriko Plazan, 09:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Gatz Bidea' kantareen aurkezpene

Gatzagara oinez igotzeko deialdia egin dute Leintz Lotzen taldekoek. Bazkaldu ostean, abestia aurkeztuko dute.
San Miguel plazan, 10:00etan.

OÑATI Olakuako jaiak

10:30ean, ate irekiak Natur Eskolan eta Olapoto inguruko biosfera ezagutzeko ibilaldia; 12:30ean, meza, Bidaurretan; 13:00etan, parrillada eta herri kirolen

erakustaldia; 16:30ean, mus txapelketa, eta txirrindulari lasterketa; 18:30ean, trikitilarien, txorimaloen eta erraldioen kalejira; 19:30ean, bertso saioa; eta 20:30ean, Aiert Alberdiren emanaldia.
Olakua auzoan.

ARRASATE Orientazio jolasa, familiendako
Altxorraren jolasa egingo dute, ibilbide irisgarrian. Izenak emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Arantzazuko Parketxean, 11:30ean.

ARAMAIO Santikurtz eguna
12:00etan, meza izango dute, eta ondoren, trikitilarien saioa eta salda.
Santikurtzen.

OÑATI 'Olakua saria' txirrindulari proba
Kadete mailakoendako 69 kilometroko lasterketa.
Olakuan, 16:30ean.

ARAMAIO Mendi irteera eta parrillada
Tximista elkartearen eskutik, 12-16 urte artekoendako. Gazte Udalekuen prestaketa eta antolaketa egiteko aprobetxatuko dute eguna.
Parkean, 17:00etan.

ESKORIATZA 'La caja tonta' antzezlan
Eskoriatzako Ausartak antzerki taldearekin. Telebistako saioei umorezko kritika egingo diete. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 6

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Penteskoteak
Kuadrillen Eguna. Askotariko ekintzak: kuadrillen arteko olinpiadak, herri bazkaria, bigantxak eta Lukien eta Ezpalak taldeen kontzertuak.
Bergaran.

ESKORIATZA '50 urte inklusioa bermatzen' erakusketa
Aspaceren bilduma.
Huhezin, 20:00ak arte.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE 'Copreciren sorrera' hitzaldia
Enpresako sortzaileek egingo dute berba.
Etxaluzen, 18:00etan.

OÑATI 'Ez, ez naiz akordatzen' antzezlan
Oñatiko helduen antzerki taldea.
Santa Anan, 20:30ean.

MARTITZENA 7

BERGARA Pentekoste jaiak
Umeen eta Helduen Eguna. Askotariko ekintzak: herri kirol erakustaldia, haurrendako tailerrak, pilota partidu profesionalak eta errektadoreen eskola ibiltaria, besteak beste.
Bergaran.

ARRASATE 'Testamentuak eta herentziak' hitzaldia
Arrasateko notario Antonio Roman de la Cuestak egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta. Entzuleek galderak egiteko aukera izango dute.
Kulturaten, 17:30ean.

ARETXABALETA 'UDA. Herriaren hauspoa. 75. urteurrena' erakusketa
Klubaren historiaren laburpena egiten duen irudien bilduma. Ikusgai egongo da hilaren 30era arte.
Arkupen, 17:30ean.

EGUAZTENA 8

BERGARA Kafe konpon
Etxeko tresna txikiak nola konpondu ikasteko aukera.
San Joxepen, 16:00etan.

ESKORIATZA Odol-ateratzea
Autobusa egongo da.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARAMAIO 'Zelan elikatu mendian' hitzaldia
Garazi Abasolok egingo du berba, Aramaioko Mendi Astearen baitan.
Sastiñan, 18:30ean.

ARRASATE Floren Aoizen hitzaldia
Mamuariso. Neoliberalismoa versus burujabetza delako berbaldia egingo

du, Karkabatik Herria zikloaren baitan.
Irati tabernan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'DJ Kaktus eta bere flow!' musika saioa
Ameztu Produkzioaren saioa, 7x7 kultura kalean egitasmoaren baitan.
Iralabarri plazan, 19:00etan.

OÑATI 'Migrar y resistir' liburuaren aurkezpena
Onica Parra egileak egingo du aurkezpena, online, Hotz Oñatik gonbidatuta.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'París, distrito 13' filma
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 9

OÑATI Gipuzkoako Protokolo Historikoen Artxibora bisita gidatua
10:00etan, 12:00etan, 16:00etan, eta 18:00etan. Izena emateko: 943-41 50 60 edo *ahpg-gpah@gipuzkoa.eus*.
Torrealdea auzoan.

ELGETA Beheko kaleko jaiak
16:00etan, txupinazoa; 16:15ean, uretako txirrista erraldoia; 19:00etan, bits festa; eta, 20:00etan, otarrainxkak eta xanpaina.
Torrealdea auzoan.

ARRASATE Abaroaren urteko batzarra
Bazkideendako.
Etxaluzen, 16:30ean.

ELGETA Irakurketa talde feminista
Gaia: *Emakume basatia patriarkatuan. Matristikaren teoria eta emakume basatia gaur egungo patriarkatuan.* Ondoren, iritzi trukaketa eta solasaldia.
Liburutegian, 18:30ean.

ARAMAIO Mendi-pote musikatua
Aramaioko Mendi Astearen baitan.
Danborralden, 18:30ean.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

El arma del engaño
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Cinco lobitos
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Sin ti no puedo
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Top Gun
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Todo a la vez, en todas partes
Egunero, martitzena izan ezik: 16:00, 19:00, 22:00.

Martitzena: 19:00, 22:00.
Zapatua: 23:10.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00.

Live is life
Egubakoitza eta zapatya: 16:20, 18:40, 21:00, 23:20.
Domekatik eguaztenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Marmaduke
Egunero, zapatua izan ezik: 16:15, 18:15, 20:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:15.
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

Top Gun
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:50.
Domeka: 16:00, 19:00, 21:50.
Astelehena eta eguaztena: 18:00, 21:00.
Martitzena: 18:00.
Zapatua: 20:45, 23:25.

Eguaztena: 19:35, 22:15.
Egubakoitzetik domekara: 16:00, 17:00, 18:00, 18:40, 19:40, 20:40, 21:00, 21:20, 22:15, 22:20.

Doctor Strange en el multiverso de la locura
Egubakoitza eta domeka: 20:45, 23:25.
Zapatua: 23:15.
Egunero: 17:05, 19:45, 22:25.

Jujutsu kaisen
Astelehenetik eguaztenera: 20:00, 22:20.
Zapatua eta domeka: 18:40, 20:55.
Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21:30.
Zapatua: 16:00.
Domeka: 15:45.
Los tipo malos Egunero: 17:10.

La ciudad perdida
Egunero: 19:30.

El arma del engaño
Egunero: 22:00.

Cinco lobitos
Egunero, zapatua izan ezik: 20:15.
Zapatua: 22:15.

El sastre de la mafia
Egunero, zapatua izan ezik: 22:30.

Sonic 2
Egubakoitzetik domekara: 15:45, 18:15, 20:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.
Eguaztena: 17:00.

En otro lugar
Egubakoitza, eta astelehenetik eguaztenra: 17:00.

El comensal
Astelehena eta martitzena: 20:05.

Juego de asesinos
Egunero: 22:20.

Animales fantasticos
Zapatua eta domeka: 15:45.

GORBEIA

Los tipos malos
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

Sonic 2
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Domeka: 11:45, 17:15.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

Alcarras
Egubakoitza eta zapatua: 19:20, 21:50.
Domeka: 19:20.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

Cinco lobitos
Egubakoitza eta zapatua: 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 19:45.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

El arma del engaño
Egubakoitza eta zapatua: 20:50.
Domeka: 19:00.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

Top Gun
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:10.

Domeka: 11:45, 17:00, 19:35.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 19:35.

Doctor Strange en el multiverso de la locura
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:45, 22:15.
Domeka: 19:20.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

Marmaduke
Egubakoitza eta zapatua: 17:05, 19:00.
Domeka: 12:00, 17:05.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

Sin ti no puedo
Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19:40, 21:40.
Domeka: 17:40, 19:40.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

FAGOR TALDEAREN BATZAR NAGUSIA 2022



ETORKIZUNA HOBETZEKO, IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA 2021EKO DATU ADIERAZGARRIENAK



GOBERNANTZA:

214

bazkide organo sozialetan



INGURUMENA:

Energia kontsumo totalaren

% 54

energia berriztagarria



LEHIAKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA:

Salmentak:

1.482 M€

Irabaziak:

57,97 M€



GIZARTEA:

1.134.992 €

gizartera bideratuta



PERTSONAK:

4.811



% 83

lanpostu EHn

bazkideak

2021ean

141

bazkide berri



690.909 €

Euskararen normalizaziora

FAGOR
ARRASATE

FAGOR
AUTOMATION

FAGOR
ELECTRÓNICA

FAGOR
PROFESSIONAL

fagoredenlantaldea

COPRECI

galbaian
intellectual property

MONDRAGON
ASSEMBLY